

ANARKISMOA ETA KOMUNISMOA

Evgueni Preobrazhenski



Federiko Engels
Fundazioa

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA
Euskal Herriko aldizkari marxista

ANARKISMOA ETA KOMUNISMOA

Evgueni Preobrazhenski

Itzulpena: Federiko Engels Fundazioko Itzulpen Taldea

Lehenengo argitalpena: 2009ko Azaroa

ISBN: 978-84-96276-60-4

Lege-gordailua: M-49729-2009

Argitaratzaile eta banatzaileak:
Federiko Engels Fundazioa • Euskal Herria Sozialista
www.engels.org • www.euskalherriasozialista.net

AURKIBIDEA

Aurkezpena	7
Sarrera	17
Nobleziaren Estatu autokrata	19
Estatu burgesa	23
Estatu proletarioa	31
Estatu proletarioa eta honen desagertze jarraitua	41
Anarkistak eta Estatu proletarioa	49
Ekonomia komunista eta ekonomia anarkista	61
Anarkismoaren klase oinarriak	87
Anarkisten taktika	99
Anarkosindikalistik komunismora	105
Anarkismo errusiarra 1921ean	117
Ondorioa	131

AURKEZPENA

IRAULTZAILE BATEN LANA

Alderdi boltxebikeak bere barnean militantzia iraultzaile errusiarreko talenturik onenak batu zituen. Lenin eta Trotsky bezalako pertsonak historiara pasa dira, ez urriko iraultzako zuzendari bikainak izateagatik bakarrik, baita teoria marxistaren garapenari egin zioten ekarpen erraldoiagatik ere. Bietaiko bakoitzaren idazlan osoek berrogeita hamar liburuki baino gehiago hartzen dituzte, non sakontasun bikain batez lantzen diren teoria eta praktika iraultzailearen aspektu guztiak: dialektika materialistaren defentsa, kapitalismo garaikidearen eta inperialismoaren dinamikari buruzko azterketak, errebisionismoaren aurkako borroka, estrategia eta taktika iraultzailearen auzia, Estatuaren inguruko teoria marxista eta, batez ere, alderdi marxistaren eraikuntzari eskainitako ekoizpen teoriko eskerga.

Esperientzia historiko osoak erakutsi du ezagutza teoriakoa mespretxatzea akatsa dela. Ezinezkoa da kapitalaren azpiraketa gauzatuko duten indarrak prestatzea gizarte kapitalistaren funtzionamendua eta bere instituzio politikoen izaera esentzia guztian ezagutu gabe. Teoria marxista ekintzarako, klase arteko borrokan zuzenean esku-hartzeko, gida bezala bali duen neurrian da erabilgarria. “Ez dago praktika iraultzailearik teoria iraultzailearik gabe” esaten zien behin eta berriz Leninek bere kamaradei eta, ideia honen egiazkotasuna onartzen badugu, boltxebismoaren obra teorikoak iraultzaile marxisten belaunaldi berriek arretaz aztertua izan dadin eskatzen du.

Hala ere, idazle boltxebikeen eta Rosa Luxemburgo bezalako maila teoriko ukaezineko beste marxista batzuen ondarea oso partzialki iritsi zaigu, kasu askotan karikatura bat bihurtu arte desitxuratua eta deformatua. Honen arrazoia ez da hainbeste zentsura kapitalista izan, stalinismoaren eskuetan teoria marxista guztiaren aurka burutu zen faltsifikazio eta jazarpen doilorra baizik.

MARXISMOAREN FALTSUTZE HISTORIKOA

Sobietar Batasunean erregimen burokratikoa finkatu ondoren, boltxebismoko milaka koadroren aurka mota guztietako kalumniak eta biolentzia fisikoa erabili ziren kasta dominatzaile berriak iraultzaren alderdiaren aurka gauzatu zuen aldebakarreko gerra zibil batean. Likidazio fisikoarekin batera, boltxebike hauetako askoren idatziak, kasu askotan sakontasun teoriko handiko lanak eta Leninen beraren begirune positiboenak jaso zutenak, debekatuak eta deuseztatuak izan ziren hamarkadetan zehar, baita Stalinen heriotzaren ondoren ere. Jokamolde hau ez zen halabeharrezkoa. Burokrazia garaileak erroten atera behar zuen langile eta iraultzaile berrien orimen eta ezagutza kolektibotik benetako pentsamendu marxista, hau azken batean mehatxu bat baitzen bere politika kontrairaultzailearentzat.

Stalinismoak aurrera zeraman pentsamendu marxistaren aurkako ofentsiba honen guztiaren jomuga, jokoaren arau berrien aurrean analisi disidente bat eman zezaketen horien guztien gainean bildu zen. Dudarik gabe Trotskyren lana jarpenik amorratuenaren xedea izan zen, baina ez zen bakarra izan. Zinoviev, Kamenev, Bujarin, Rakovski, Preobrazhenski, Radek, Rosa Luxemburgo eta ehunka autore gehiago zirkulaziotik kenduak izan ziren. Leninen idazlanak ere ebakiak izan ziren eta editorialek ohar egokiak ipini zitzioten hau ez zedin kontraesanean egon herrialde bakar bateko sozialismoaren teoriarekin edo mundu guztian zehar buruzagi stalinistek etengabe burutzen zuten klase arteko kolaborazioaren politika antileninistarekin.

Autore hauen panoraman Preobrezhenskiren obra nabarmentzen da, boltxebike zaharra eta ekonomialari bikaina, arlorik anitzenetan ekarpen ugari egin zituen.

Preobrazhenski boltxebismoaren lerroetan 1904ean sartu zen, oraindik ikaslea zela, eta alderdiaren antolatzaile klandestino nekaezina izan zen Uraletako lurraldean eta Siberian. Urriko iraultza aldian Uraletan boltxebismoaren zuzendari bihurtua izanik, zuzendaritzako postuak bete zituen alderdiarentzat zailtasun handieneko garaian. Batzorde Zentraleko kide hautatua izan zen 1917an, 1918an, 1919an eta 1920ean,

eta azken urte honetan bere kamaradek Batzordeko idazkari izendatu zuten.

Beti nabarmendu izan zen bere talentu handiagatik. Bujarinekin batera erakundeko ekonomialaririk hoberenetakoa izan zen eta bere idazlan asko trantsizio aldiko arazoetara eskaini zituen, ekonomia sobietarraren beharren ikuspegi original bat emanez, ekonomia planifikatuaren garapenak gerra zibilak eta blokeo inperialistak eragindako zailtasun ikaragarriak zeharkatzen zituen garai batean.

Alderdiaren barnean burokratizazioaren lehen sintomak loratu zirenean, Preobrazhenski irmoki ezkerreko hegalean jarri zen, deformazio hauek borrokatuz eta bai alderdiaren barnean bai organismo sobietarretan langile demokraziaren baldintzetara itzultzea gogor defendatuz.

EZKERREKO OPOSIZIOA

1923an ofentsiba burokratikoak, Europako porrot iraultzaileek eta kapitalismoaren egonkortze prekarioak elikaturik, erreakzio indartsu bat eman zen alderdiaren barnean. Leninek, gaitasunagatik oso ahulduta, Trotskyri aliantza bat proposatu zion gehiegikeria hauen aurka, gordintasun guztian agertu baitzen Stalinen Georgiako abenturetan eta arazo nazionala tratatzeko zuen modu chauvinistan. Alarmak alderdiko bizi-tzaren txoko guztietan jo zuen eta ahots mordoa altxa ziren boltxebismoan betidanik existitu izan ziren barne demokraziako eta eztabaida askeko baldintzetara itzultzeko eskatuz. Baina eginkizunak geroz eta zailtasun handiagoei aurre egin beharko zien.

1923ko urriaren 15ean, 46 buruzagi boltxebikek, hauen artean Preobrazhenskik, publiko egiten dute adierazpen bat funtzionarioen boterearen amaiera eskatuz eta alderdiaren eta proletalgoaren diktaduraren norabide politikoaren inguruan iritziz ezberdinak adierazten dituztenen aurkako jazarpenaren amaiera exijituz. Aldi honetan, eztabaida NEParen mantentzea eragiten ari zen mehatxu ekonomiko, politiko eta sozialetan barnebiltzen zen, azken finean honek gizarteko joera burges txikiak indartzen baitzituen, eta hauek gainditzeko

modua SEBSaren industrializaziorantz biraketa indartsu bat ematea baitzen.

“Eztabaida handiaren” testuinguruan defendatu zuen Preobrazhenskik jo eta ke Estatuaren esku-hartzearen bidez industrializazio planak indartzea, plan zentralizatu batetan oinarrituz eta honi “metaketa sozialista primitiboa” deituz, hau da, nekazaritzako soberakina industriara pasatzea modu honetan industriako eta kontsumoko produktuen prezioen krisia gainditzeko, hauek beharrezkoak baitziren landan bezala hirian ere, baina ikaragarri garestiak ziren industria sobietarraren atzerapena eta produktibitate baxua zela eta.

Preobrazhenskiren aurrez aurre Bujarin jarriko zen, herrialde bakar bateko sozialismoaren eta nekazaritzan eta *kulaka* aberastean oinarrituriko garapen ekonomikoaren teoriakoa zena.

Aldi honetan SEBSeko alderdi komunistaren barnean gudak neurri handiak hartzen ditu. Trotskyk, 46en adierazpenetik kanpo geratu zenak, erabateko elkertasuna adierazten dio honi eta artikulu sorta bat argitaratzen du *Bilakaera Berria* izenburupean. Hauetan barne ezadostasunen arrazoiak eta lan klandestinoa egitera ohituta zegoen aparatu baten metodo zaharren eta gizarte sobietarraren behar berrien artean garatzen diren kontraesanak aztertzen ahalegintzen da, non langile klaseak eta komunisten belaunaldi berriek bizitza sozialaren, ekonomikoaren eta politikoaren aspektu guztietan parte hartzea nahitaezkoa den proletalgoaren diktadura mantentzeko eta suspertzeko.

Trotskyren eta beste koadro boltxebikeen iritziak gogor egiten dute talka Zinovievek, Kamenevek eta Stalinek, Leninengaitasunean zehar triunbiratu buruzagian bihurturik, alderdiko erregimenari aplikatzen dizkioten metodoekin. Hauxe da Trotskyren eta “trotskysmoaren” aurkako erasoaren azpikeriak hasten diren unea, aurrez aipaturiko buruzagiek asmatu zuten kalifikatzailea eta ustezko nekazalgoaren gutxieste batean eta sozialismorantz aurrera egiteko iraultza sobietarraren gaitasunen gutxieste batean oinarritzen dutena. Prentsa sobietarraren eta alderdiaren organoetan triunbiratuko kideek sinaturiko artikulu mordoen erautsi bat Trotskyren obraren ize-na belzteaz arduratzen da, bereziki bere iragan ez boltxebikea

azpimarratuz. Trotskyk, 1917an Petrogradoko Komite Militar Iraultzaileko presidente izanik, Armada Gorriaren fundatzaille eta gidari izanik, *Urriko Ikasgaiak* idatziz defendatzen du bere burua, iraultzan izan zuen jarrera leninista berretsiz eta aldi berean boltxebike zahar batzuk ordu erabakigarrietan jokatu zuten paper tamalgarria salatuz, zeinak Leninek ere borrokatu zituen bere *Apirileko Tesietan*.

Altxatzen ari zen burokraziaren eta Ezkerreko Oposizioan elkarturiko alderdiko frakzio leninistaren arteko borroka soberan dokumentatua dago eta hau ez da tokia bera xehe-tasunean aztertzeke. Leon Trotskyren *Iraultza Traizionatuan* eta Ted Granten *Errusia, iraultzatik kontrairaultzara* lanean, biak Federiko Engels Fundazioak argitaratuak, alderdiaren eta iraultzaren degenerazio burokratikoaren aspektu klabe guztiak aurkitu daitezke.

Nolanahi ere, Leninen heriotzaren ondoren, burokraziaren boterea indartu egin zen iraultza errusiarrak Alemaniako, Hungariako eta Italiako langile altxamenduen porroten ostean jasan zuen isolamenduak elikaturik. Momentu honetan, gatazka armatuen eta miseria materialen urteen ondoren frogatitanikoak jasan zituzten milioika langile sobietarrek munduko iraultzan jarritako esperantzek kolpe gogorra jasotzen dute. Gorakada iraultzaileak atzeraldi bati eman zion bidea, Trotsky parafraseatuz “plebearen harrotasunaren” beherakada aldi bati, alderdiaren barnean ere indar kontserbatzaileen aurrerakadarekin bat etortzen dena. Hats berri batek menperatzen du erakunde boltxebikea: bulegoetatik, estatu aparatuko funtzionarioen kasta zaharretik datorrena, hauek prebendak eta postu eroso bat lortzeko aukera ikusten baitute iraultzako arrisku eta sakrifizioetatik urrun.

Stalinek erraz konektatzen du giro berri honekin eta oso urrun iritsiko da honi justifikazio teoriko bat emateko orduan. Langile internazionalismoa eta mundu mailako iraultza, programa boltxebikearen intsignia nagusienak, herrialde bakar bateko sozialismoaren teoria antimarxistarekin ordezkatzeko dira. Honela, iraultza internazionalaren perspektiba albortzen da eta SEBSen muga estuen barnean gizarte sozialista bat eraikitzeke aukera justifikatzen da. Hurrengo urratsa luzatu gabe ematen da: Internazional Komunistaren politika

kasta burokratikoaren beharretara egokitzen da, bere interes materialetara eta nazionaletara, erregimen kapitalista azpiratzeko borroka alde batera utziz. Mundu guztiko langileen elkargo iraultzailea, atzerriko burgesiaren eta bere espresio politikoen bloke ezberdinekin hitzarturiko paktuek eta akordioek ordezkatzten dute. Stalinek eta bere frakzioak politika leninista alde batera uzten dute, hau beren etengabeko zigzag politiko batekin ordezkatzuz, porrotera eramaten dituelarik 1926ko greba orokorrean zehar proletalgo britainiarra eta 1927ko Txinako iraultza. Bi kasutan, Britainia Handian eta Txinan alderdi komunistaren politika Trade Unions erreformistekin eta Kuomintangarekin egindako aliantza hilgarrien menpe ezarri zen, klase orientazio independentea alde batera baztertuz.

LENINEN EPIGONOAK

SEBSeko alderdi komunistaren barnean gertaerak gero eta gehiago azkartzen dira. 1925eko udaberrian troika buruzagiaren barneko ezadostasunak handitu egiten dira eta Zinovievek eta Kamenevek herrialde bakar bateko sozialismoaren teoria salatzen dute, Trotskyren aurkako erasoetan zuten erantzukizuna aitortuz. Alderdiko XIV. Kongresuak frakzio burokratikoaren garaipena eta oposizioaren sektore ezberdinen isolamendua berresten du. Ez da 1926ra arte izango, Batzorde Zentraleko saioan Trotskyk, Zinovievek eta Kamenevek politika ekonomikoari buruzko Stalin-Bujarinen ebazpenen emendakinen bozketetan bat egiten duten unea. Momentu horretatik aurrera Ezkerreko Oposizioa indartu egiten da Zinovieven eta Kameneven aldekoekin eta urte bereko ekaineko Batzorde Zentraleko saioan indar bateratu berriek beren aurkezpen publikoa egingo dute.

Hala eta guztiz ere, oposizioaren jarduera aparatu burokratikoak erabiltzen dituen metodo gangsterren bidez boikotatua da. Oposizioko kideak parte hartzen duten bilera publikoak pikete armatuekin erasotzen dira, disidenteei ahoa ixteko biolentzia fisikoa orokortu egiten da, oposizionisten kaleratzeak, hala nola, alderditik kanporatzeak behin eta berri-erri ematen dira. Oposizioko blokeak eraso hauek jasaten ditu

eta zartatzen hasten da, baina Trotsky tinko mantentzen da alderdiko politikaren zuzentze baten, programa leninistaren itzulera baten aldeko borrokan.

Oposizioak bere indarrak neurtzen ditu berriz ere iraultza Txinatarraren inguruan ematen den eztabaidan, kasu honetan 1927ko maiatzean Internazional Komunistaren Komite Exekutiboan, Trotskyk Oposizioaren tesiak defendatzen dituela. Berriz ere makinaria martxan jartzen da eta errepresioa oposizionisten aurka jaurtitzen da. 1927ko apiriletik aurrera Ezkerreko Oposizioko militanteen lehen atxiloketak eta lekualdatze behartuak ematen dira. Preobrazhenski eta Piatakov Parisera bidaltzen dira; Antonov-Ovseyenko Pragara; Kamenev Italiara. Erakundetik kanporatzeak alderdi guztira eta Gazterietara (Komsomol) zabaltzen dira, oposizionisten idatzi eta testuen aurkako zentsura areagotu egiten den bitartean.

Ezkerreko Oposizioak, XV. Kongresuan bere plataforma politikoa argitaratzeko frakzio stalinistaren ezezkoaren aurrean, hau klandestinoki banatzea erabakitzen du. Erreakzioa ez da luzatzen: Miashkovski, Preobrazhenski, Serebriakov eta beste 14 buruzagi erakunde boltxebiketik kanporatuak dira. Bestalde, Trotsky eta Zinoviev Batzorde Zentraletik urriak 23an eta alderditik azaroak 15ean kanporatzen dituzte.

Aldi guzti honetan Preobrazhenski Oposizioko koadro nagusienetako bat bezala mantendu zen. Honen material politikoen gauzapenean irmoki lagundu zuen, batez ere programa ekonomikoari dagokionean, “dortokaren pausora” doan sozialismoaren teorikoen eta *kulakaren* aberastearen defendatzailleen aurka eginez. Behin eta berriz baieztatu zituen SEBSen industrializazio geroz eta azkarragoan eta plan zentralizatuan eutsitako oinarri ekonomiko sendo bat ezartzeko aukerak, gainera proletalgoaren indartze baterako bide bezala, mundu mailako kapitalismoaren presioen aurrean proletalgoaren diktadurak zuen berme bakarra.

1926-1938 aldian, Preobrazhenskik errepresio stalinista jasan zuen. Alderditik kanporatua eta mota guztietako presioetara jazarria izan zen, azkenik aparatuak bere erresistentziako izpiritua makurraraztea lortu zuen arte. Radekekin batera kapitulatu zuen, burokraziak kulaka aberastearekin eta landako nahiz hiriko burgesia txikiak hartu zuen indarrarekin

beldurturik, biraketa “ezkertiar” bat ematen duen garaian eta modu terrorista batean lurraren bortxazko kolektibizazioa eta bost urtetako plana gauzatzen duenean. Honek ez zuen libratu 1934ean berriz atxilotua izatetik.

Beste hainbat boltxebike bezala, publikoki alderdiaren aurka egindako “krimen” guztiak aitortzera behartua izan zen, Leninen epigonoen gustu handiagorako. 1934ean, Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistaren XVII. Kongresuan adierazi zuen: “Badakizue nire lan teorikoek, “*Ekonomia Berria*” barne, alderdiaren aurkako arma gisa balio izan dutela... Leninismotik aldendu nintzen. Gertaerek erabat baliogabetu dute baieztatu nuena”. Hitz hauek ez zien deus balio izan. Beste hainbat Leninen burkide bezala, Preobrazhenski epai-ketarik gabe eraila izan zen 1937-38ko purga handietan eta SBAKen XX. kongresuan bere izena berronartua izan bazen ere, bere idazlanak debekatuak egoten jarraitu zuten Sobietar Batasunean.

Preobrazhenskiren ekoizpen teorikoa oso zabala da, nahiz eta bere idatzi asko burokrazia stalinistak bahitu egin zituen eta ez diren argitaratuak izan. Bere maisulanik nabar-menena *Komunismoaren ABC*, Bujarinekin batera idatzia eta urteetan zehar Alderdiko militante berrien heziketan oinarritzeko gida bezala balio izan zuena, eta batez ere *Ekonomia Berria* dira, Bujarin-Stalin blokearen planteamenduei erantzunez idatzia, non bere posizio ekonomikoak modu sistematikoan azaltzen dituen.

Anarkismoa eta Komunismoa anarkismoaren programa politikoaren errefusatzeko iraultzaile eta marxista da. Errusiako gerra zibil ostean eta martxoaren leko Kronstadteko altxamenduaren eta ondorengo errepresioaren gertaera traumatikoaren ostean idatzia, helburu bezala ez du soilik anarkismoaren ahultasun teorikoak eta sozialismo zientifikoaren programarekin dituen printzipiozko ezberdintasunak argitzea, baita onestuki klase gabeko gizarte baten alde borrokatzen duten anarkisten benetako izpiritu iraultzailearekin zubi bat ezartzea ere. Leninek *Estatua eta Iraultzan* adierazten zuen bezala, marxistak ez dira anarkistengatik bereizten lehenek Estatua-ren beharra defendatzen dutelako. Alderantziz, komunismoaren helmuga klaseen desagertzea eta beraz beren menperatzeko

eta zapaltzeko tresnaren desagertzea da. Hala ere boterea hartzeko ekintzaren eta gizarte komunistaren finkatzearen artean trantsizio aldi bat dago, non langile boterea kontrairaultza burgesaren saiakeretatik defendatzea behartua dagoen eta gizarte berriaren oinarri ekonomikoak antolatzen dituen. Aldi honek antolamendu sozialeko forma bat eskatzen du, langile demokrazia edo proletalgoaren diktadura, Marxek eta Leninek *Frantziako Gerra zibila* eta *Estatua eta Iraultza* bezalako idazlanetan definitu zutena eta, begi bistakoa denez, Stalinekin inposaturiko erregimen autoritarioaren antipodetan dagoena.

Zentzu honetan Preobrazhenskiren liburua ekarpen oso handia da, sozialismoaren alde borrokatzen dugun iraultzaileen artean egunerokotasunik eta interesik galdu ez duen polemika ideologiko batetan.

Idazlan honek irakurleen artean iraultzaile baten irudiarri zor zaion begirunea piztuko duela espero dugu, teoriko marxista hau ahazmen bidegabe batetatik berreskuratzeko bete-beharra baitauekagu. Hau denagatik, marxismoaren klasikoak euskarara itzultzeko lanean, garrantzitsua zen Preobrazhenskiren idatzi hau ere sail horretan sartzea.

SARRERA

“Anarkia” terminoak, jatorri grekoan, *botere eza* esan nahi du. Honela beraz, anarkistak inolako botere edo inposaketa motarik existituko ez den eta askatasun absolutuak aginduko duen erregimen sozial bat helburu duten pertsonak dira.

Baina akaso boltxebike-komunistek —galde dezake irakurleren batek— askatasun absolutua okerragotzat al daukate inposaketadun bizitza bat baino, honen jatorria edozein izanik ere?

Ez, erantzungo dute komunistek: gizakiarentzat eta gizartearentzat askatasun absolutua askatasun mugatua baino hobea da, egoera orotan biolentziagatik behartua eta borondatearen aurka jarduteko beharra baino hobea. Baina, esate baterako, liberal burges bati alderdi liberalaren askatasunaren azken ideala zein den galdetuko bagenio, honek ere bere borrokaren azken helburua gizakiaren eta gizateriaren askatasuna dela erantzungo du. Honela “askatasun absolutuaren” xedeak ez du inongo aukerarik ematen anarkista komunistatik ezberdintzeko, eta gainera liberal burgesaren kidetza onartzea behartzen du eta, orokorrean, inposaketaren eta biolentziaren aurrean askatasunaren onurak onestuki onartzen dituzten, edo askatasunaren inguruko berriketak eta hitzaldiak erabilgarriak aurkitzen dituzten pertsona guztiena.

Horregatik, anarkisten eta komunisten artean ezberdintasun nagusia zein den antzeman ahal izateko beste puntu batzuetan bilatu behar dugu. Erabil dezagun, esate baterako, anarkistek beren foileto, aldizkari edo diskurtso guztietan errepikatzen duten honako esaldia hau: “Gu biolentzia ororen etsaiak gara, gobernu botere ororen etsaiak gara hau biolentziatzeko organoa den aldetik”. Baieztapen honen oinarriaren gainean anarkistei ondorengo auzia planteatzen diegu: Baina gobernu boterea masa langileek erdietsia izan bada, eta beren etsaien deuseztapenerako aprobetxatzen badute, zuek botere horren aurka ere egongo al zarete?

Hemen jada erantzun ezberdinak jasotzen ditugu anarkistengandik. Batzuk erantzungo dute: “Gu ez gara botere horren etsaiak izango, langile masen alde lan baliagarri bat egingen duen bitartean”. Besteek ordea erantzungo dute: “Gu botere ororen aurka gaude, eta suntsitzen saiatzen gara, edozein izanik ere eta edozein egoeretan”.

Honela beraz, hona hemen boltxeike-komunisten eta anarkisten arteko ezberdintasun erradikal bat: Estatuaz duten ikusmolde ezberdina, ez hainbeste aurrerago ikusiko dugun bezala orokorrean Estatuaren inguruan, Estatu-komunaren inguruan baizik, langileen eta nekazarien Estatuaren inguruan.

Ikus dezagun bada zer den Estatua eta zein kontzeptu daukaten honi dagokionean komunistek. Estatua biolentzia organo bat dela edozein burges txikik daki zerga biltzailearen bisita jasotzen duenean, edozein nekazarik bere behi bakarra zergak ez ordaintzeagatik saltzen diotenean, edo edozein langilek kapitalaren aurkako greba batean parte hartzea kartzelarekin edo fusilamenduarekin ordaintzen duenean. Estatua biolentzia organo bat dela gaur egun, zorionez, burgesiak ere badaki gobernu sobietarrak bere bankuak, jauregiak, lantegiak eta kapitala indarraren bidez kendu dizkionean.

Auzi garrantzitsuena beraz honakoa jakitean datza: zeinen interesetan gauzatzen den biolentzia hau, zeinen eskuetan dauden biolentzia organo horiek, eta zer gertatu den langileen eta nekazarien gobernu boterearen aurka, kontrairaultzaile guztiak eta burgesia guztia ez ezik, anarkistak ere altxa daitezzen, modu honetan hauen aliatu bihurtuz.

NOBLEZIAREN ESTATU AUTOKRATA

Estaturik existitzen ez zen garai bat egon zen. Klaseak ere existitzen ez ziren garai bat, non gizakiak ez ziren banatzen aberatsetan eta pobreetan, langileetan eta besteen lanaren esplotatzaileetan. Baina kointzidentzia hau, klaseak existitzen ez zirenean Estatua ere ez existitzearena, ez da kasuala.

Denak berdinak ziren nekazal Komunitate primitiboan, lehenik pertsona aberatsagoen geruza bat nabarmentzen hasten denean, geruza hau geroago komunitatearen indar militarren buruan jartzen da, egoera honetaz baliatzen delarik bere bizilagunekin gerra egitearen bidez bere jabetzak zabaltzeko, bide-lapurreriaren bidez eta herrialde garaituen kontura lehenik, eta bere herriaren kontura ondoren. Honela, Estatuaren agerpenerako aukerako baldintzak sortzen hasten dira. Barroiak, kondeak eta dukeak, tribuen buruzagi militar eta lurjabe handi gisa, Estatuaren enbrioi bat adierazten zuten instituzioez inguratzen hasten dira. Ikus dezagun.

Kondeak bere menpekoak epaitzen zituen eta, noski, epaile bezala, bere interesei eta pribilegioei begiratzen zien bere zerbitzari leialen gutiziatik askatuz. Hona hemen klaseko auzitegia bere jatorrian.

Auzitegi honen erabakiak bere sateliteek gauzatzen ziztuzten. Hona hemen poliziaren enbrioiak.

Gerrarako edo lurraldearen barneko istilu garrantzitsuak zapaltzeko, pikete armatuak erabiltzen ziren. Hona hemen etorkizuneko indar militarrek.

Kristautasuna hartuz eta oparien eta lurren kontzesioen bidez ordezkari erlijiosoen mesedea eskuratuz, kondeak edo dukeak bere eskura polizia izpirituala zeukan, eta horrela sostengatzen zituen esplotaziorako bere pribilegioak, ez zartailuaren bidez bakarrik, baita gurutzearen eta ebanjelioaren bidez ere. Hona hemen Elizaren eta Estatuaren batasunaren jatorria, edo gauza bera dena, Eliza klase dominatzailearen

tresna batean bihurtzea, herria izpiritualki eta materialki esklabo egiteko.

Geroago, konde, baroi eta duke ezberdinen arteko borroken eta indartsuenaren garaipenaren ondoren, azken honek duke handiaren, erregearen edo enperadorearen titulua hartzen du, herrialde barnean botere goren bilakatuz eta modu honetan Estatu enbrioia benetako Estatu monarkiko handi batean eraldatzea gauzatuz. Lehen bere jaurerrian jopuen gainean agintzen zuen baroia orain beste baroiekin, kondeekin eta dukeekin batzen da; denak elkartzen dira “monarka maitearen” tronuaren ondoan eta herria bateraturik zuzentzen dute eta ez isolaturik lehen bezala. Noble, baroi, konde txiki ezberdinen eta nobleziako lurjabe handien arteko batasunetik lurja-been eta aristokraten klase osoaren boterea sortzen da. Nola-bait esatearren, herriaren aurka zuzendutako batasun bakar bat osatzen duten akzionisten sozietate bat sortzen da, non kide bakoitzari, bertan sartzean, bere klaseko kideen babes a ziurtatzen eta bermatzen zaion.

Hemendik aurrera, nekazarien aurka auzi bat antolatzea beharrezkoa denean, zergak ez ordaintzeagatik, jabetza pribatua defendatzeko, etabar... jada ez du kondeak edo dukeak bere kabuz jokatu; orain honetaz Estatuak, hau da, noble guztien batasunak izendaturiko epaile bat arduratuko da. Nekazari behartsuaren zapalkuntzaren aurka protestatzen duena zigortzea edo kondena bat betearaztea beharrezkoa denean, ez dira arduratuko jada jauntxoaren lehengoko sateliteak, Estatuaren polizia baizik, hau da, nobleen eta kondeen klase osoaren agenteak. Monarkari dagokionean, botere gorentzat hartzen den arren, errealtatean lurraren jabe handiek beste herri guztiaren gainean duten autokrazia estaltzen du. Bide batez nobleentzat estaltze hau onuragarria gertatzen da, Monarkak bere aurrean denak berdinak direnaren papera jokatzeko duen heinean. Noizean behin, monarkak, justiziari kontzesio ñimiño bat eginez, lurjabe bat edo beste zigortzen du, honela, nobleziaren klase guztiaren probetxuan, errentaren, Estatuaren zergen forman... milioika pertsonen esplotazioa are gehiago errazteko xedearekin.

Nobleziaren batasun honekin, noski, zapaltzaileen klasea indartu egiten da eta masa langileak zatituak eta sakaba-

natuak geratzen dira, altxamendu isolatuak porrotera konde-naturik egonik. Honela, lehenago kondearen edo baroiaren biolentziaren jomuga zen nekazaria barrutiko beste nekazari guztiek babesten zuten bezala; jauntxoaren indar armatuak mugimendua menperatzeko moduan egon ez zitezkeen bezala, kasu batzuetan baroi eta kondeak beren herrietatik kanpora-tuak izateraino iritsiz eta hauen lekuan hiri eta eskualde li-break sortuz, orain hau guztia ezinezkoa zen. Esate baterako, nekazari baten behiak noblearen jabetzako garia zapaldu badu, epaileak nekazaria isun bat ordaintzera kondenatuko du; nekazariak ez badauka isuna zerekin ordaindu edo injus-tua iruditzen bazaio, fiskalak nekazariaren behia salduko du isuna ordaintzeko. Nekazariak aurka egiten badu, poliziak atxi-lotu egingo du. Herri edo probintzi guztia atxiloketa eragozten saiatzen bada, polizia kopuru handiagoa, edo bestela armada bidaliko da. Probintzia guztia edo probintzi taldeak altxatzen badira, gobernuak eskuragarri dituen indar militar eta polizia guztiak bidaliko ditu mugimendua jazartzeko helburuarekin. Eta azkenik, sakrifizioaren ondoren, milaka hildakoren eta milioikako galeren ondoren, nekazaria zapaldutako gariaren-gatik isuna ordaintzera derrigortuko da. Aurrerantzean, no-bleziaren Estatu guztiak bere indar militarrek indartuko ditu, auzirik txikiena izanik ere, nekazalgoaren aurka noble isolatu oro babesteko helburuarekin.

Modu honetan, nobleak Estatu autokrata batean antola-tzeak ikaragarri indartu zuen klase hau, eta langile masak ahuldu zituen bere esplotatzaileen aurrean beren burua de-fendatzeko aukerarik gabe utziz.

Guzti honetatik beharrezkoa da bi ondorio ateratzea: le-henengoa eta garrantzitsuena, orokorrean, Estatua gizartea kla-seetan zatitzearekin sortzen dela da; jabetza pribatua gutxi batzuen eskuetan geratzen denean; jabetza hau jabeen klase guztiek defendatzea beharrezkoa denean; masengandik salba-tuz pribilegio hauek defendatu behar dituen klase pribilegiatu bat agertzen denean; eta klase “agurgarri eta aberats” horrek bere aberastasun eta eskubideak defendatu ez ezik, herri lan-gilearen kontura handitu ere egiten dituenen.

Bigarren ondorioa da Estatua ez dela gizartea klase ezber-dinetan egotea eragiten duena, ezta ezberdintasuna eta pertsona

batek bestea esplotatzea sortzen duena ere, alderantziz baizik, klase arteko zatiketa eta ezberdintasun ekonomikoa dira Estatua esplotatzaileen erakunde bezala agertzea sorrarazten dutenak. Eta behin sortua izan denean, Estatuak indartu egiten ditu klase dominatzaileak eta geroz eta gehiago handiagotzen du sorrarazi zuen ezberdintasun ekonomikoa.

ESTATU BURGESA

Baina nobleziaren Estatu autokrata (normalean Estatu feudal bezala ezagutzen dena) ez da betierekoa, bera eraikia dagoen indar ekonomikoa ere, jabetza latifundista handia, betierekoa ez den bezala. Pixkanaka, nobleziaren Estatuaren barnean beste klase bat sortzen eta hazten da: burgesia komertzial eta industrial. Noblezia, luxuenganako eta plazerenganako zuen zaletasunaren ondorioz, pobretzen hasten da eta burgesiak gradualki jauntxo feudalen lurak lortzen ditu, bere eskuetan industria guztia, komertzio guztia eta nekazal ekonomia zati bat biltzera iristen delarik. Burgesiak klase feudalen irabaziak jaso nahi ditu, azken honek luraren errentatik, jopuen betebeharrak ezberdinetatik eta, batez ere, Estatuaren zergetatik jasotzen dituen irabaziak desira ditu. Irabazi hauek guztiak nobleziaren eskuetara itzultzen dira herrialdea gobernatzen duena bera den heinean. Burgesiak nobleziari bere irabazien iturriak kendu behar dizkio hauek kapitalaren jabetza bihurtzeko. Honakoa lortzeko helburuarekin eta nobleziaren Estatuak zergen bidez, etabar... ezartzen dizkion kargak saihesteko, hala nola, Estatua nobleziaren prozedurekin bateraezinak diren esplotazio bide kapitalistetara egokitzeko, burgesiak beharrezkoa du herri langilearen esplotatzaile lehiakidea boteretik kentzea. Kanporatze hau iraultza burgesen bidez gauzatzen da eta boterea burgesiaren eskuetara pasatuz edo burgesiaren eta nobleziaren artean paktu bat eginez amaitzen da. Modu batera edo bestera, Estatu berria kapitalaren interesetara moldatzen da, honen metatzearen interesetara eta langile masen erasoan aurkako defentsara.

Izan ere, auzia klase zapalduaren ikuspuntutik hausnartzen badugu, proletalgoaren perspektibatik, Estatu burgesa oso gutxi ezberdintzen da nobleziaren Estatu autokratatik. Sare batean harrapaturiko txori batentzat kaiola estu batetik beste zabalago batera pasatzeak oraindik askatasuna lortzea

esan nahi ez duen moduan, langile klasearentzat nobleziaren Estatu autokrata Estatu burgesagatik ordezkatzea kaiolaren zabaltze bat bakarrik da, ez ordea bere deuseztatzea.

Gelditu gaitezen lehenik bi Estatu mota hauen arteko ezberdintasunean. Nobleziaren erregimen autokratan, klase honek gobernatzen du herrialdea monarka baten atzean ezkutatuz, esan ohi denaren arabera, monarka hau klase guztien gaitetik dagoelarik eta mundu guztiari zori onena opatzen diola suposatzen delarik. Langile masek agintzen zaiena egin behar dute arrazoitu gabe. Hemen, esplotatzaile aristokraten talde batek langileen gehiengoaren gainean ezartzen duen biolentzia ez da ezerekin ezkututzen, begi bistakoa, irekia eta zabarra da.

Aldiz, Estatu burgesean gutxiengo aberatsak gehiengoaren gainean ezartzen duen biolentzia modu miresgarri batean dago mozturrotua, batez ere gobernuko boterea sufragio unibertsalaren edo honen hurbileko prozedura baten bidez aukeraturiko Parlamentu batengan kontzentraturik badago. Burges garaikideak masa langileen “zuzendaritza” lana nobleak baino modu sotilagoan gauzatzen du, hauek bahiketa fiskalaren bidez bakarrik jarduten baitzekiten. Hemen, biolentzia askatasun formalaren itxuran dago mozturrotua, arlo ekonomikoan kapitalistek langile klasea esplotatzen duten moduaren mozturro berberarekin. Honela, joputzaren erregimenean zehar, nekazaria behartuta zegoen, esate baterako, asteko hiru egun zuzenean jauntxoarentzat lan egitera, eta denentzat argi zegoen modu honetan beharturik zegoela bere lanaren erdia lurjabe bizkarroiari entregatzera. Aldiz, erregimen kapitalistan, langileak aukera dauka gosez hiltzearen artean edo kapitalistarentzat honek esandako soldataren truke lanera joatearen artean “askatasunez aukeratzeko”. Hemen, ustezko askatasun batez baliatuz, mozturrotu egiten da esplotazioa bera eta lanaren zati bat, lehen jopuek lurjabeari bezala, langileak kapitalistari ordaindu gabeko lan moduan entregatzen diola. Berdina gertatzen da biolentziaren antolakuntzaren inguruan, gizarte burgesean hau adierazten den moduaren edo, hobe esanda ezkututzen saiatzen den moduaren inguruan. Behingoan herritarren gehiengoak hautaturiko Parlamentua, laburbilduz, langileen gehiengoa menderatzeko zereginean kapitalisten osotasunaren sostenguzko organoa dela frogatzea ez

da hain erraza. Langile klaseari bere esperientziak bakarrik erakusten dio kapitalismoaren mekanika ezkutu guztia ulertzen eta kapital garailearen interesei eta eskariei erantzuten dien Estatua bere benetako balioan aintzat hartzen.

Gizarte burgesean, botere gorenaren parlamentuarena da. Nobleziaren erregimen autokratikoan langileek eta nekazariak soilik aginduak jasotzen zituzten heinean eta, aurre egiteko kasuan, eztabaidarik gabe zigortuak izaten ziren bitartean, orain langile klaseei ere galdetzen zaie hiru edo lau urtez behin parlamentura nor eraman nahi duten.

Zein ohore handia! Nola liteke posible seriozki gizaki asketzat hartzeko desirari eustea?

Egia da lau edo bost urtez behin langileei hau galdetzen zaiela, hauteskundeetan bakarrik, alde aurretik ezagutzen baitute zein izango den erantzuna; badakite nekazariak apaizen bat edo "hezitako" *kulak* bat aukeratuko duela, orain arte Mendebaldean gertatu den moduan. Badakite langileek parlamentura sozialistaz doazen abokatuak edo Scheidemannen moduko sozial-abertzaleak eta burgesiaren agenteak bidaliko dituztela, eta langileen gutxiengo batek soilik emango diela beren bozka benetako sozialista iraultzaileei.

Burgesiak badaki hau guztia eta horregatik nahiago du, masen aurkako biolentzia zuzena baino lehenago, gobernu goitik izendatu baino lehenago, gizarte bat antolatzea non masek euren buruak zapalduko dituzten autoritateak aukeratuko dituzten.

Baina Parlamentura, ez jada benetako sozialisten, baizik eta besterik gabe elementu adiskidetzailen gehiengo bat iristeko arriskua dagoenean, burgesiak ez du atzera egiten eta kontsekuenteki jarduten du, bai sufragio unibertsala ezabatuz, adibidez Sajonian bezala, edo baita mesedegarria ez den parlamentua deseginez ere, Kerenskyk parlamentu finlandiarrarekin egin zuen moduan, etabar. Kasu hauetan, derrigorrezko bozka eskubide orokorraren ordean, jabe handientzako eta txikientzako soilik den sufragioa sartzen da. Parlamentua herri borondatearen adierazle denaren gezur eta engainu guztia airean desagertzen da. Parlamentua horretarako existitzen da, eta burgesiak guztiz bere borondateari erantzuten dion bitartean bakarrik onartzen du. Eta orduan boto eskubidea jabedunek bakarrik

badute, modu ireki batean gizarte kapitalistan boterea dirua daukatenena dela adieraziz, honek ez du esan nahi sufragio unibertsala indarrean dagoen bitartean auzia beste modu batean planteatzen denik, gertatzen dena da besterik gabe egoerak ez duela burgesia hau onartu behar izatera derrigortzen.

Praktikan, oso arraroa da gizarte burgesean sufragio unibertsala aurkitzea. Burgesiak, behin noblezia garaitutakoan edo honekin tratuan sartutakoan, sufragio unibertsalaren antza eduki nahi duten egungo formak ere, edo esperimentu arriskutsu bat direla edo erabat alferrikakoak direla irizten du. Gerroago, burgesia konbentzitu egiten da masei libreki hauteskunde eskubideak ematea arriskutsua ez dela; kapitalagatik zapaldurik dauden masei hiru edo lau urtez behin hautatzeko eskubidea eman daitekeela, batez ere masak beren egoera esklabutzarena izan arren honako hau lortzen saiatzen direnean eta hauteskunde erreformen aldeko borroka hasten dutenean.

Eta soilik aldi aurre iraultzaileetan, langile klasearen eta nekazarien esnatzea gertatzen zen momentuetan, burgesia, berriz ere bere ahultasuna sentituz, beharturik zegoen bere arropa demokratikoak baztertzera eta parlamentua hizketa saio antzuen instituzio batetara murriztera, edo biolentzia lotsagabeenaren bidez masen zapalkuntza ezartzera.

Hala ere, burgesiak, orokorrean, beharrezkoa du Parlamentua, ez soilik herria engainatzeko (bitarteko honek balio duen bitartean), baita beste hainbat arrazoigatik ere. Lehenik eta behin, parlamentuaren eskuineko aldean bere etsai zaharra, aristokrazia latifundista, zokoratzeko eta herriaren gehien goa ez dagoela nobleziaren alde erakusteko. Bigarrenik, parlamentua burgesiarentzat garrantzitsua da gizarte kapitalistako klase aberatsen talde ezberdinen arteko operazioetarako burtsa politiko bezala.

Kontuan hartu behar da burgesia proletalgoaren aurka esku hartzen duenean bakarrik egoten dela bateratua. Burgesiaren beraren barnean interes ezberdinak dituzten talde ezberdinak existitzen dira: burgesia finantzarioa (bankuen jabeak), burgesia industrial handia, burgesia ertaina eta proletalgora elkartzen ez den burgesia txikiaren zatia.

Talde guzti hauei, etsai komunaren aurrean, hau da, herri langile eta zapalduaren gehiengoaren aurrean, beren ezta-

baidak enfrentamendu ireki batera irits ez daitezen interesatzen zaie, hauek parlamentuko borrokara eta espekulaziora mugatzea nahiago dutelarik. Azkenik, parlamentua bitarteko miresgarri bat da masen arreta marrazo kapitalisten politika harraparitik desbideratzeko, hauek herria pobretzeko lana isilean gauzatzen duten heinean eta parlamentuaren gehiengo txotxongileez osaturik balego bezala zuzenduz. Eta beraien maniobrak honela gauzatzen dituzten bitartean, lapurreta plan ezberdinak hausnartzen eta burutzen dituzte, masa inkontzienteek ahoa zabalik entzuten dituzte parlamentuko hizlari baten edo bestearen hitzaldiak, bertan herriaren borondatea gauzatzen ari dela imajinatuz. Auto-engainu hau larriagotu egiten da parlamentuan kapitalaren aurkako atsedetik gabeko oposizioaren papera jokatzten duten hainbat Scheidemann egotearen ondorioz, langileei beren interesak ere bertan ordezkatuak daudela sinestarazten baitie. Soilik kapitalaren aurkako benetako eraso hasten denean, gure artean Urriko Iraultzan gertatu zen bezala, soilik orduan desagertzen da iruzur parlamentario guzti hau eta bere kutsu gorritzka galtzen dute hitzontzi sozialista guztien fisonomiek.

Honela beraz, Estatu feudalaren eta Estatu burgesaren arteko ezberdintasuna azken honetan herriaren aurkako biolentzia hobeto disimilatua egotean datza.

Nobleziaren gobernu autokratikoan, langilea eta nekazaria zuzenean eta zeremoniarik gabe lumatzen dira; aldiz, parlamentarismo burgesean prozedura hau burutzeko “bere adostasuna adierazten” uzten zaio.

Bi Estatuaren arteko antzekotasuna gobernuko geruza altuenaz gain (kasu batzuetan monarka, besteetan hauteskunde bidezko parlamentua), gobernuko aparatua guztia ere, hobe esanda, zapalkuntzako aparatua guztia, toki bereberek geratzen dela da.

Tribunalak geratzen dira, nahiz eta zigor-legeak kapitalaren interesetan berrikusiak izan diren.

Polizia eta jendarmeria geratzen dira, aldaketa da orain nagusi berrien taktikaren arabera jarduten dutela.

Armada iraunkorra geratzen da, aldaketa da ofizialtasuna berritu egiten dela, nahiz eta ez toki guztietan, burgesiaren elementuekin.

Kasuen gehiengo zabalean eliza geratzen da, kapitalaren jendarme izpiritual moduan, azkar egokitzen delarik honen eskakizunetara. Eta kapitalistek beraientzat erlijioa ez dela beharrezkoa uste badute, herriarentzat, aldiz, arrakastarekin erabiltzen dute.

Goitik izendaturiko funtzionarioen jendetza ikaragarria geratzen da.

Diplomazia sekretua geratzen da, aldaketa da kanpo politika orain ez dela horrenbeste monarka baten edo bestearen interes pertsonalen mesedetan egiten, burgesiaren talde indartsuenen interesetan baizik. Horrenbestez, aginte burgesean gerra, Estatu autokratikoan bezala, herriaren adostasunik gabe deklaritzen da, kapitalista handikien talde txiki batek gobernuko aparatu burges guztia erabiliz, biolentziarik handienak burutzen dituztelarik milioika langileren gainean.

Estatu feudalaren eta Estatu burgesearen arteko antzekotasun guzti hau oso erraz azaltzen da. Bata zein bestea gutxiengoz ziztrin batek herriaren gehiengoa dominatzeko aparatu bat dira. Konbinaketa hau, beste modu batean, ezingo zen aurrera eraman. Honegatik, burges kontziente bati galdetzen badiogu bere interesei dagokionez zein estimatzen duen gehiago, parlamentua edo polizia, beti polizia esango du.

“Nik konstituzioa maite dut, baina bien artean aukeratu behar banu, argi dago platerik gozoena aukeratuko nukeela”. Azken finean, jakina da parlamentua huts egitera iritsiko baltiz, poliziak modu seguruago batean defendatuko lukeela burges litxarreroren plater “gozoa”.

Denak ados egongo dira, esate baterako Frantzian, masesen zapalkuntzara eta ordena burgesa sostengatzera bideraturiko aparatu guztia, askoz hobeto prestatua dagoela Errepublikan kapitala defendatzeko, iraultzaren aurretik aristokrazia latifundista eta eliza defendatzeko egon zena baino. Orain langabetuak ez badio etxearen jabeari alokairua ordaintzen, nazioko aparatu juridiko, polizial eta, beharrezkoa bada, aparatu militar guztia martxan jarriko dira burgesarari bere jabetza pribatuaren interesak bermatzeko. Lanik gabeko kide bat lagunduko zuten langileek errazagoa lukete iraultza sozial osoa aurrera eramatea, isunaren inguruan epaileak emandako erabakia atzera botatzea lortzea baino.

Honela beraz, Estatu burgesak ere masa langileen gainera klase burgesaren biolentzia antolatua ordezkatzeko du. Burges liberalarentzat, nobleziaren autokraziaren eta Estatu parlamentario nazionalaren arteko ezberdintasuna izugarria da. Langilearentzat aldiz, ezberdintasun hau bi hitzetan azaldu daiteke: kaiola zabalagoa da, zartailua leunagoa, eta kolpeak konstituzioaren aurre akordioarekin ematen dira¹.

1. Baina proletarioaren alderdiak beti aitortu izan du kaiola zabalago edo estuago baten arteko ezberdintasuna, eta honegatik, monarkiak eta parlamentarismo burgesak elkarren artean borrokatzen zutenean, beti parlamentarismo burgesa babesten zuen monarkiaren aurka, eta borroka parlamentarioaz baliatzen zen, gero parlamentarismotik proletarioaren eta nekazari behartsuen diktadurara joateko. (Idazlearen oharra)

ESTATU PROLETARIOA

Ikusi dugu nobleziaren Estatu autokratikoa, egia esan, nobleziaren maila nazionaleko erakunde bat dela, hasieran indar militar bakar, ahaltsu eta batu bat irudikatzen duena, eta gero, poliziaren eta armada iraunkorraren forma hartzen duten indar zapaltzaile antolatu ikaragarrien buruan ezarritz, milioika langile bere tresna bilakatzeko gai den indar bat dela. Nobleziaren Estatua honen pribilegioen zaintzarako zentinela bat da, pribilegio hauek herri langile esplotatuaren erasotik defendatzeko, honetarako sarritan herriaren beraren indarrak erabiltzen dituelarik.

Estatu burgesa ere langile masak menperatzeko tresna bat da, baina orain kapitalaren eta nobleziaren interesetan, zeinaren eskubideak burgesia guztiaren eskubideekin berdindu diren.

Aparatu honek gutxiengo baten interesetan jarduten du herritarren gehiengo zabalaren erresistentzia zapalduz. Ikus dezagun orain zer den Estatu proletarioa eta zertan ezberdintzen den aipatu ditugun bi Estatuen formatatik, lapurreriaren eta esplotazioaren formatatik.

Estatu proletarioa iraultza proletarioaren garaipenaren emaitza gisa sortzen da. Proletalgoaren destakamendu isolatuak porrotera kondenaturik daude gobernu burgesaren aurka modu sakabanatu batean esku hartzen badute, zeren burgesia (bere kabuz ez duena indar oso handia errepresentatzen milioika langilerenarekin konparatuz) nahiko indartsua baita destakamendu hauek gobernu aparatuen laguntzarekin banan bana desegiteko. Berebiziko garrantzia du honako hau gogoratzeak, izan ere, klase etsaiaren aurkako borrokan klaseko gobernu antolakuntzak duen nagusitasun handiaren datu honek bere kabuz eta erabat baliogabetzen baititu etsaiaren aurkako borroka zentro buruzagi batek, diziplina batek eta plan komun batek lotu gabeko destakamenduen bidez egin behar

denaren inguruko hitzontzikeria anarkista guztiak. Gure Urriko langileen eta nekazarien iraultzak Errusian botere burgesa garaitu bazuen, proletalgoak antolakuntzarik handiena erabili zuelako eta klase burgesaren gobernuko batasunari, maila nazionalen sobietetan eta boltxebikeen alderdi panerusiarraren antolaturiko proletalgoaren indar guztien batasunarekin aurre egin zitzaiolako bakarrik izan zen. Antolakuntza burgesak antolakuntza proletarioaren aurka talka egin zuen, eta garaitua izan zen.

Honela, Estatu proletarioa jada enbrioi moduan existitzen da alderdian, boterea eskuratzeko borroka zuzentzen duela, eta proletalgoaren masa erakundeetan, hasiera batean, hauen eginkizuna proletalgoaren borroka bere atzean jartzea dela, hau da, proletalgoari helburu zehatzak dituen klase bezala eratzen eta talde ezberdinen ekintzak helburu hauen menpe jartzen laguntzen baitiote. Proletalgoak, klaseko batasun jakin batean burgesia garaitzen duenean eta boterea lortzen duenean, bere erakunde guztiak gobernu erakundeetan eraldatzen dira.

Honek esan nahi du, sobietak proletalgoa batzeko organo izatetik herrialdeko beste klase eta talde guztiak botere proletarioaren menpe jartzen dituzten organo bihurtzera pasatzen direla.

Berdin gertatzen da, nahiz eta mantsoago, sindikatu iraultzaileen moduko klaseko erakundeekin.

Modu honetan, Estatu proletarioa borrokan jaiotzen dela ikusten dugu, klase borrokaren berotasunean sortzen dela eta, geroago ikusiko dugun moduan, beti proletalgoaren gudako erakundea izaten jarraitzen duela.

Ikus dezagun orain Estatu proletarioa zertan ezberdintzen den nobleziaren Estatu autokratikotik eta Estatu burgesetik, nola helburuen ezberdintasuna Estatu proletarioaren egituren bertan islatzen den.

Noblezia gobernu botereaz jabetzen da bere pribilegioak defendatzeko helburuarekin, hau da, irabaziak eta masen gaineko boterea, lurjabe handien aurkako klase honen erasoan aurrean.

Burgesiak boterea iraultza burgesaren bidez konkistatzen du, kapitalaren pribilegioak defendatzeko eta langile

klasetik ahal bezain gainbalio gehien zukatzeko zereginen lagundu diezaion.

Bi Estatu forma hauek langile masen zapalkuntza eta beraien gainean esplotatzaile talde batek ezartzen duen biolentzia errazten dute.

Estatu proletarioak, aldiz, aurkako helburua jarraitzen du. Bere eginkizuna langile iraultzak burutu ez duena amaitzea da, honetarako denbora jakin bat behar baita: burgesiarren eskuetatik behin betiko ekoizpen baliabide guztiak, hau da, lantegi eta tailerrak, kentzea; gizartearen klase arteko zatiketara desagitea; gizakiak gizakia esplotatzearekin amaitzea; lanaren obligazioa ezartzea eta gizarte guztia langile kideen ejertzito bakar eta langile batean eraldatzea.

Hala eta guztiz ere, Estatu proletarioak, programa honen gauzatze praktikoa hasi aurretik, klase aberatsen erresistentzia deuseztatu behar du. Baina klase hauek borroka gogor baten ondoren bakarrik uzten dute beren boterezko posizioa, eta behin erdigune nagusienetan garaituak izandakoan, herrialdeko eskualde ezberdinetan altxamendu ahaleginak antolatzen dituzte. Gobernu proletarioak Errusian ia hiru urte behar izan zituen kontrairaultzaren iturriak zapaltzeko Donean, Uralen lurraldean, Siberian eta Iparraldean; bere existentzia defendatu behar izan zuen guardia zuriak zuzendu zuten Poloniaren aurkako gerran, eta Sobietar Batasunaren aurka mundu kapitalista guztiak babesten zituen beste nazio mugakide batzuen aurkakoan.

Honela, Estatu proletarioaren eta Estatu burges eta feudalen artean oinarritzko ezberdintasun bat existitzen da.

Estatu burgesak eta Estatu autokratikoak klase dominatzaileen interesak defendatzen dituzten bitartean, Estatu proletarioak pribilegio oro, ezberdintasun oro eta esplotazio oro desagitea du xedetzat. Boterea hartzean, proletarioak ez du herritargoaren beste klaseen esplotatzaile eta dominatzaile bihurtzeko erabiltzen, etorkizuneko esplotazio oro deuseztatzeko baizik, klase guztiak eta hauen birsortzeko aukera guztiak desagiteko.²

2. Kapitalismoarekin eta egungo trantsiziozko fasearekin alderatuz ekonomiaren antolakuntza komunistak eskaintzen dituen abantaila guztiei, Estatuaren likida-

Baina klaseak suntsitzeko Estatuaren jaiotza sortzen duen kausa suntsitu behar da. Zentzu honetan langile Estatua Estatu posible guztietan azkena dela esan daiteke.

Estatu proletarioa orokorrean Estatua hiltzen den forma da, gutxiengoaren erakunde beharrean gehiengo langilearen erakundean eraldatzen denean.

Baina, akaso ba al du zentzurik, esate baterako, botere Sobietarra gobernu botere bat dela esateak?

Bai, honela esan daiteke eta esan behar da.

Estatu oro biolentziaren erakunde bat da, baita Estatu proletarioa ere.

Baina, zeinena eta zeinen gainean?

Esplotatuen eta zapalduen batasunarena esplotatzaileen gainean, langileen batasunarena bizkarroien gainean, gehiengoaren batasunarena gutxiengoaren gainean.

Honela bada, bere helburuengatik, Estatu proletarioa Estatu feudaletik eta burgesetik zerua lurretik bezala bereizten dela ikusten dugu. Eta modu berean bereizten da bere egituraturan.

Nobleziaren Estatu autokratikoaren ateetan zera dago idatzia: hemen aristokrazia latifundistakoa denari, lurjabeen klaseko kideari, besteen lanaz bizi denari eta bere esku aristokratikoak lanarekin zikintzen ez dituenari bakarrik uzten zaio boterera iristen.

Estatu burgesaren ateetan irakur daiteke: hemen kapitala eta jabetza handia duenak, aberasteko soldatapeko lana erabiltzen duenak, boterean parte hartzeko eskubidea ematen dion agiri bat duenak agintzen du, zeina ehun milakako eta milioikako kapitalaren eta lantegietan eta tailerretan lanpeturiko ehunka eta milaka langileen ordezkari baiten.

zioari eta indar askeak lan ekonomikoan aplikatzeari esker, etxeko ekonomiaren eta hezkuntza familiarraren likidazioari esker, milioika emakume ekoizpenean txertatzeari esker, etabar, beharrezkoa da gainera mota guztietako kontrol aparatuetarako indarren eta bitartekoen murrizketa gehitzea. Gizarte burgesean indar kopuru ikaragarria xahutzen da enpresa txikien kontabilitate "pribatu" txikiarentzako, langileen gaineko zaintzan eta kontrolean, baliabide materialen zaintzan, etabar. Egungo trantsizio aldian, Errusian, indar kopuru izugarri bat banaketako eta kontsumo arauen ezarpeneko organoetan gastatzen da, kontrolerako eta ekonomia komunista antolatua ezagutuko ez dituen forma burokratiko jakin batzuetarako. (Idazlearen oharra).

Estatu proletarioan ez zaio besteen lanetik bizi denari, beste gizaki bat esplotatzen duenari, bere aberastasunerako soldatapeko lana erabiltzen duenari boterera iristen uzten. Estatu proletarioan lan egiten duenari bakarrik uzten zaio boterera iristen, soilik bere lanetik bizi denari eta ez besteen eskuetatik jasotako errentetatik bizi denari.

Lehen, noblezia gizarteko klase gorenena bezala hartzen zen, beste klase guztiak “klase baxuak” ziren. Geroago, klase altua lurjabe handiek, burgesia handi eta ertain guztiek eta intelektual burgesek osatu zuten. Estatu proletarioan, hiriko eta landako langile klaseak osatzen du klase zuzendaria, lurjabeei, burgesei eta intelektualeria burgeseko saboteadorei beren gobernu eskubideak kentzen zaizkien bitartean. Baina langile klaseak, klase gobernatzaile bihurtzean, ez dizkio inori bere lefroetan sartzeko ateak ixten, alderantziz baizik, denak langile bihurtu daitezen bideratzen ditu gauzak, gizateri guztia salbuespenik gabe pribilegiatuez osatua egon dadin, beste hitz batzuetan, boterea ez dadin inorentzako pribilegio berezi bat izan.

Nobleziaren Estatu autokratikoan, geruza altuetako pertsona gutxi batzuek bakarrik zuten boterearen pribilegioa eskuartzeko aukera. Noble jaio ez zen hura, jada jaiotzatik pribilegio horretatik baztertua zegoen eta ez zuen klase gobernatzaile lera iristeko inongo aukerarik, nobleziako tituluak erosten zituzten gizabanako isolatuen salbuespenaz aparte.

Erregimen burgesean zehar kapitalak agintzen du.

Egia da kapitalistek, erregimen burgesen onurak eta bere “justizia” deskribatuz, norbanako bakoitza aberastera heldu daitekeela adierazteko ohitura dutela. Baina baieztapen hau burla baten moduan bakarrik uler daiteke, zeren denak burgesia bihurtuko balira, non egongo litzateke orduan proletalgoa kapitalisten aberastasunak bere lanarekin sortzen badira? Jon eta Pello aberastu litezke eta milionari bihurtu, baina lehen eskale izan baziren ere, baina honek Diego eta Erramun pobretu egin direla esan nahi du eta klase burgesetik kanpo bidaliak izan direla, hamar milaka langile eta nekazari klase burgesen lefroetan inoiz egon ez diren eta egongo ez diren bitartean.

Ikusten den moduan, kapitalisten eta Estatuko buruzagien artean egoteko pribilegioa pertsona talde txiki batera mugatzen da.

Aldiz, Estatu proletarioan denek hartu dezakete parte Estatuaren zuzendaritzan; lan egiten duen orok, klase zapaltzailekoa ez den orok, aukera ditzake, esate baterako, sobietak eta beraietarako hautatua izan. Eta burgesek, eta bereziki bere lekaio diren mentxebike eta eskuineko sozialiraultzaileek, langile klaseak eta nekazari pobreek beste talde guztiak boteretik baztertzen dituztela eta klase pribilegiatu bihurtzen direla adierazten dutenean, hau erabat faltsua da. Joan dadila bankaria ereitera edo larrea segatzera, gelak garbitzera, sar dadila atezain bezala kendu eta nazionalizatu zaion bankuan, sar dadila bulegoko eskriba gisa bada ere, eta orduan jasoko du hauteskunde-eskubidea sobietetako hauteskundeetan.

Mota honetako pauso batek, aisitik lanerakoak, bankariari Estatuaren zuzendaritzan parte hartzeko aukera emateaz gain (Estatu Sobietarra zuzentzeko gogoia duen kasuan), bere osasunerako ere baliagarria izango zaio. Azken hau bere gaixoa gizentasunaren aurka zaintzen duen medikuak egiazta dezake.

Langile eta nekazari Estatua ezbairik gabe klaseko Estatu bat da, orain arte klaserik gabeko Estatuak, masak parlamentarismo burgesaren inguruko fabulekin engainatzen zituzten zientzia gizon burgesen liburuetan bakarrik existitu baitira, non “herri guztia den herrialdea gobernatzeko duena”. Baina klaseko Estatu proletarioak, ez dio inori zuzendaritzan parte hartzeko aukera ixten, alderantziz baizik, hau puntu bat arte derrigorrezko ere bihurtzen du, lan egiteko beharra sartzen eta klase aberatsak eta pribilegiatuak desegiten dituen heinean, honekin denei auzi orokorren erabakian parte hartzeko aukera eta ezinbestekotasuna irekitzen dielarik. Estatu proletarioan lan egiten duenak gobernatzeko du eta klase aberatsen baitan egongo da botere horretan parte hartzeko eskubidea jasotzea.

Eman iezaiozue amaiera Estatu proletarioaren aurkako duzuen erresistentziari, onartu ezazue garaituak izan zaretena zuen gizarte-maila langile eta enplegatuekin berdinduz, eta orduan jasoko dituzue langileek langile Estatuan dituzten eskubideak. Burges izaten jarraitu nahi duen burgesak bere buruari hauteskunde-eskubideak edukitzeko eskubidea kentzen dio.

Errusian, Estatu proletarioa langile masek hautaturiko sobieten errepublika bezala eratua izan da. Oinarri guztiak dau-de, lege orokor bezala, proletalgoaren diktadura beste herrial-deetan hain zuzen ere sobieten bitartez emango dela pentsa-tzeko, parlamentu burgesen desegitearen eta boterea langile-en eta nekazari pobreen sobietengana pasatzearen bidez. Baina honek ez du esan nahi, noski, lege honek ezin dezakeenik sal-buespenik eduki. Esate baterako, 1871. urteko Parisko Komu-na; gobernu proletarioko lehen organo hau bozketa orokorrez hautatua izan zen. Ekialde urruneko errepublikan, komunis-tek gehiengoa lortu zuten sufragio unibertsalaren bidez, hau da, demokrazia burgesaren lege guztien arabera hautaturiko asanblada konstituziogilean. Gerta daiteke herrialde batean proletalgoak parlamenturako hauteskundeetan gehiengoa lor-tzea eta, borroka proletarioaren Estatu Nagusian bere klase-ko etsaien ondoan ez egoteko helburuarekin, parlamentutik gutxiengo burgesa botatzea. Gerta daiteke herrialde batean gutxiengo komunistak, diputatu burgesak eta sozialtraidore-ak kanporatu ondoren, langile erakunde iraultzaileen babes-a-rekin gobernu gorena aldarrikatzea, eta herrialdea sobieteta-ko hauteskundeak arte eta ongi finkaturiko botere sobietar baten antolakuntzara arte gobernatzea.

Boterearen konkistan, proletalgoarentzat garrantzia duena ez da forma (kasu honetan demokrazia sobietarraren forma), auziaren funtsa baizik. Izan ere, sobiet adiskidetzaileak existitu ziren, adibidez otsaileko iraultzaren lehen hilabeteet-ako sobiet errusiarren moduan, edo baita sobiet alemaniar-rrak ere Gillermo enperadorearen eraistearen ondorengo le-hen hilabeteetan. Oraindik ere Austrian sobiet adiskidetzaile-ak existitzen dira.

Kontuan eduki behar da, burgesiaren eskuetan ia prentsa guztia nahiz zapalkuntzarako bitarteko guztiak egonik, prole-talgoak soilik ezohizko kasuetan lortu dezakeela gehiengoa parlamentuan alderdi komunistarentzat, eta ez du inongo zen-tzurik momentu hori itxaroteak boterea bide motzago eta zu-zenago baten bidez, hau da, altxamenduaren bidez konkista-tzea posible denean.

Kapitalistek proletalgoak inguraturik dauzkanean, boltxe-bikeek sufragio unibertsala, askatasuna, etabar urratu dutela

oihukatzen dute Tchernov jaunek, *kulak* errusiarren ideologo eta beren txoko beroetatik kanporatuak izandako intelektua-
lek, irmotasunez erakusten die beren babesa. Hala ere, burge-
siak berak, boterearen aldeko borrokan, momentu jakin bate-
an mesedegarriago zitzaizkion borroka formak aprobetxatu
bakarrik egin behar izan zituen, hauek modu askotara aplika-
tuaz eta berak aldarrikaturiko edo agindutako printzipioak
edo legeak hausteko beldurrik gabe.

Ingalaterrako lehen iraultzaren garaiko burges ingelesek
parlamentua erabili zuten boterearen borrokan, diputatuen
zati kontrairaultzailea bertatik bi aldiz kanporatuaz. Burge-
sia frantziarrak, 1789ko iraultzaren lehen hiru urteetan, hiri-
tarren errentan oinarritutako mugak ezarri zituen, honekin
herriarren geruza pobreenak boterean parte hartzetik bazter-
tu zituelarik.

Alderantziz, burgesia txiki iraultzaileak aldi berean bo-
teretik baztertu zuen burgesia handia. Girondinoek probintzie-
tako burgesia komertzialaren ordezkariak kanporatu zituzten
Konbentziotik. Geroago, burgesiak, Frantzia bezala beste he-
rrialdeetan ere, modu ireki batean praktikatzen zuen bere kla-
seko agintea, jabetza handiak zituztenei bakarrik utziz parla-
menturako hautagai izaten, proletalgoa eta behartsuak erabat
baztertuz. Jabetzadunen bozarekin hautaturiko parlamen-
tuak diputatu burgesen sobietak ziren. Kapitalista handien
garaipen lotsagabea modu batean ezkutatzea beharrezkoa
egin zenean, burgesak herri langilearen hautets eskubideak
zabaltzen hasi ziren, zentzu honetako pauso bakoitza itxura-
keria handiekin markatuaz. Baina, izatez, klase burgesaren
gobernuak oraindik ere parlamentuaren eta eskubideen za-
baltzearen mozorropean jarraitzen zuen, eta bozkatu ezin zen
hura, edo parlamentuak bozkatzea komenigarria ez zen hura,
herriaren bizkarrera burutzen zen isil-gordean. Honela, bur-
gesiaren diktadurak era askotariko formak hartzen zituen be-
zala, alabaina diktadura bat izateari utzi gabe, proletalgoaren
diktadura ere bere hastapenetan forma anitzenetan gauzatu
daiteke praktikan, Estatu proletarioaren forma bata edo bes-
teak klase aberatsen zapalkuntza azkarrena eta eraginkorre-
na eta jabetzaren sistema sozialistaren eraikuntza azkarrena
ziurtatzen badu.

Baina hain zuzen ere azken helburu honen mesedetan, gobernu proletarioak ezin du inongo kasutan gizarte burgesak utziriko estatu aparatua erabili. Burgesiak, herrialdeko gutxiengo izanik, bereziki langileak osaturiko gehiengo zapaltzeko egokituriko botere aparatua bat dauka.

Argi dago langileek eta nekazariak ez dutela aparatua hau behar, gaur garaiak izan diren esplotatzaileen gutxiengo zapaldu baitute, nahiz eta oraindik ere hauek aurka egiten jarraitzen duten.

Gobernu burgesaren enkarguak egiteko hezia izan den poliziaren ordeztu, guardia gorria dago, posible den heinean herri-tarrek hautatua dela.

Armada iraunkorraren ordeztu, langile klasearen armamentu orokorra dago, hau da, armada gorria, eta gerra garaietan klaseko armada, langileen eta nekazarien armada. Klaseko armadaren eta miliziaren aurka oihukatzen duen burgesiak ahaztu egiten du berak ere, Frantziako iraultzan zehar esate baterako, bere klaseko etsaien arriskuak mehatxatzen zuen unetan klaseko indar militar eta zibil bat zeukala, guardia nazionala, kontuan hartu gabe armada erregularra ere, zerbitzu militar behartuaren oinarrian eraikia, bere eskuetan instrumentu itsu bat dela.

Aparatu legegilea ere deuseztatu egin behar da epaileen hautaketaren oinarriaren gainean berri bat eraikitzeko. Arazo politikoetarako auzitegiari dagokionean, proletarioak ez dauka, burgesiak egiten duen bezala, hipokritiki ezer ezkutatze-ko inongo beharrik eta bere klaseko etsaiak epaitzen ditu, honetarako epaitegi iraultzaileak sortuz.

Zuzendaritzako aparatuari dagokionean, goitik izendaturiko burokraziaren ordeztu, lan hau herri bakoitzean hautaturiko sobietek gauzatzen dute. Bertako pertsona arduradunek langile bakoitzak fabrikari dituen baldintza bertsuetan egiten dute euren lana, pribilegio berezirik eduki gabe, 8 orduko lanaldiaren ordeztu 16 ordukoa izatea salbu, maiz egoerak eskatzen duen moduan, eta langile edo nekazari bat baino gehiago jasotzeko eskubidea izango lukete aldi baterako, soilik bere lana burutzeko benetan beharrezkoa den proportzioan.

Momentu orotan hautatzeko eta karguz kentzeko ahalmena, hona hemen gobernu proletarioa eraikitzeko oinarria.

Gobernu aparatu burgesaren desegitearen ondorio gisa, langile klaseak eta nekazari behartsuek munduan orain arte inoiz ikusi ez den Estatu mota berezi bat eraikitzen dute, Errusian Sobietar Errepublikaren forma hartu zuena.

Estatu honek bere baionetak klase esplotatzaileen aurka zuzentzen ditu; hauentzat Estatu hau biolentziaren antolakuntza da.

Langileei eta nekazariei dagokienean, beraientzat sobietak Errusiako langile eta nekazari guztien interesak zehazteko eta praktikan gauzatzeko organoak dira.

Sobieten Kongresu Panerrusiarretan, interes orokor hauek aztertu egiten dira, argitu egiten dira eta ekintza plan bat egiten da, eta eztabaidatu ondoren plan honekin ados ez dauden herri sobietak existitzen badira, herri langilearen gehiengoaren erabakia obeditzera beharturik egoten dira.

Honela, gobernu sobietarra klase aberatsen gaineko biolentziaren antolakuntza eta masa langileen auto-zuzendari-tzako organoa da.

ESTATU PROLETARIOA ETA BERE DESAGERTZE JARRAITUA

Estatu proletarioa, betierekoa eta guztiz nahitaezkoa al da komunismoaren garapen etapa guztietan, ala alferrikakoa izango da behin komunismo integrala lortutakoan? Komunismoaren maisu handiek, Karl Marxek eta Frederich Engelsek, behin baino gehiagotan eman izan dute ezin hobeki erantzun zehatz bat. Iraganeko Estatu forma guztien antzera, Estatu proletarioa behin behineko erakunde bat denera laburtzen da erantzun hau. Sortua izan den egitekoak burutzen ez diren bitartean existituko da, eta beharrezkoa egiten ez denean existitzeari utziko dio. Engelsek testualki dio “Estatua harrizko aizkoraren eta historiaurreko beste tresnen antzera museotara bidalia izango da, sortua izan zenerako eginkizun hura gauzatua izaten denean”.

Baina gainulertu egiten da ez dela posible Harri Aroko aizkora museora bidaltzea gizateriak ez badu oraindik burdinazko aizkora edo bere ordezkari honen lana ongi gauzatzeko beste tresna batzuk erabiltzen ikasi. Modu berean, Estatu proletarioa hil egingo da behin sortua izan zen eginkizun hura burututakoan, inolaz ere ez lehenago.

Zer da Estatu proletarioak gauzatu behar duena?

Lehenik eta behin, klase aberatsen erresistentziarekin amaitu behar du, atzerriko kapitalaren laguntzaren bidez boterea berreskuratzen saiatzen baitira; bere burgesian egoera zaharrera bueltatzeko aukeraren ideia desegin behar du, barne altxamenduko saiakera oro ezinezko eginez, bai honentzat baita bere inguruko elementuentzat ere.

Eginkizun hau gauzatzen ez den bitartean, Estatu proletarioak existitu egin behar du, bere zapalkuntza eta defentsa baliabideez armaturik. Baldintza hauetan Estatu proletarioa existitzearen aurka agertzen den oro, izatez, kontrairaultzaile bat eta Wrangelen eta Milyukoven lagun ideologikoa da.

Estatu proletarioak klase aberatsen erresistentzia armatua ez ezik, sabotaje moduan, legeak ez betetzean edo beste borroka aspektu ezkutuetan eginiko beraien beste edozein erresistentzia ere zapaldu behar du. Estatu proletarioak gizartean klase zatiketa desegin arte existitu behar du, iragane-ko fabrikatzaile, lurjabe eta burges txiki guztiak gizarte sozialistako herritar langile bihurtu arte eta proletalgoarekin lanaren ejertzito bakar batean bateratu arte. Denek ulertu behar dute, zentzu honetan, Estatu proletarioak bere aurrean egin-kizun gogor eta ikaragarri bat duela. Lehenik eta behin beharrezkoa da burgesiaren geruza altuekin amaitzea, hau gutxi gorabehera errez egin daitekeelarik. Erdi mailako burgesiaren maila guztiekin amaitzea konplikatuagoa da. Azkenik, zailtasunik handienak ñabardura eta espezie guztietako burgesia txikiaren aurkako borrokan zehar egongo dira, milioika maisu artisauekin, merkatariekin, nekazari aberatsekin etabar. Berreziki zaila izango da borroka hau Errusian, burgesia txikia gailentzen den herrialdean. Nagusi txikia kontrolatzea ez da erraza izango, hau bere izaera naturalagatik anarkista bat baita eta Estatua mesfidantzaz hartzen baitu, Estatu hori langileena eta nekazariena izan arren. Hona hemen burges txikiaren programa: merkeago egin eta garestiago saldu; horregatik botere ororen aurka agertuko da, baita botere sozialistaren aurka ere honek bere jardueretan eragozten badu, nahiz eta honako hau herritar langile guztien mesedetan egina izan.

Estatu proletarioak ez du jabe txikien desjabetzerantz jo behar, baizik eta ekonomia txikia kontrolatu behar du. Gero-
ra, jabe txikiak pixkanaka desagertuz joango dira, sozialismo garaian jabe txikia izatea ez baita oso onuragarria izango, komenigarriagoa bihurtuz komunitate sozialistako kide izatea. Baldintza hauetan ekoizle txiki izateak lan gehiago egitea eta gutxiago jasotzea esan nahiko du eta inor ez denez bere buruar-
ren etsaia ekonomia txikia gradualki deseginez joango da, Estatu proletarioak biolentziazko neurriak hartu beharrik eduki gabe. Hala eta guztiz ere, kontziente izan behar dugu jabe txi-
kiek hasiera batean kontrolari aurka egingo diotela, batez ere, gariaren monopolioa praktikan jartzeari esate baterako, eta momentu horietan Estatu proletarioak harri gogor bat bezala bere postuan mantendu beharko du.

Estatua klaseak agertzen direnean sortzen da. Honek Estatu proletarioa klase guztiak erabat eta betirako suntsitu ez diren arte existitu beharko duela esan nahi du.

Hala ere, botere proletarioak bere herrialdeko burgesia-
ren aurka duen borrokak ezin du berekin behin betiko garai-
pena ekarri, azken honek atzerriko indar kontrairaultzaileen
babesa jasotzen duen heinean. Are arrazoi gehiago Errusia be-
zalako herrialde batean Estatu proletarioa existitzeko, mun-
duko iraultza proletarioaren sugarrak itzaltzen saiatzen diren
kapital mundialaren indar arerioez inguratuta baitago. Baina
iraultzaren defentsaren auzia planteatzen bada, gerra sosialis-
tarena, erabat argi dago gerra hau garaipenerako itxaropene-
kin aurrera eramatea ezinezkoa izango dela gobernu erakun-
de indartsu bat gabe. Honela bada gerra dagoen tokian armada
dago, eta armada dagoen tokian diziplina eta soldadu guztien
gobernu proletarioarenganako erabateko mendekotasuna, hau
da, orokorrean langile klase osoarenganako mendekotasuna
dago. Inperialista alemaniarrek Errusia tsarista garaitu bazu-
ten, beren gobernu erakunde gogorragatik soilik izan zen.

Errusia sobietarrak Denikin, Kolchak eta Wrangel baz-
tertu bazituen hau langile eta nekazarien Estatuaren antola-
kuntza gogorragatik izan zen. Diziplina hau ez zen inoiz lortu-
ko armada gorria behar zuen guztiaz hornitzen zuen gobernu
aparatua gabe. Bera gabe inoiz ez ziren posible izango bere ga-
raipen loriatsuak.

Estatu proletario hertsia bakarrik da kapital internazio-
naren aurkako erresistentziaren indarrak antolatzeko eta iraul-
tza sozialistaren konkistak defendatzeko eta mantentzeko gai.

Honela beraz, Estatu proletarioaren existentzia ezinbes-
tekoa izango da herriaren barnean klase aberatsak garaituak
izan ez diren bitartean, beste herrialdeetako klase burgesak za-
palduak izan ez diren bitartean, gizartearen klase arteko zati-
keta desegina izan ez den bitartean eta gizarteko pribilegia-
tuen talde guztiak gizarte sozialistako lan ejertzito bakarrera
batu ez diren bitartean. Momentu honetan, oso zaila da bene-
tan Estatuaren desegitea nola gauzatuko den adieraztea, eta
are zailagoa da prozesu hau bere zantzu orokorretan zein epe-
etan amaituko den aurreikustea. 1921. urtean, gertuko etorki-
zuna gaingiroki honela ikusten dugu: kapitalismoak mundu

gerraren ondorioetatik suspertzeko duen ezintasuna dela eta (miseriaren hazkuntza, ekonomiaren uzkurtzea, masa europarraren langabezia eta sumina), altxamendu sozialista mendebaldeko herrialdeetatik hasiko da, eta Europa borroka zibil gogor baten ondoren Errepublikak Sobietarren Batasun batean bihurtuko da. Europa barnean borroka luzatu egin daiteke eta bi koalizioen arteko gerra baten itxura har dezake: herrialde sobietarren batasuna eta nazio burgesen batasuna. Noski, Europan borroka hau ematen ari den bitartean Sobietar Batasunean ezingo da gobernu aparatua momentu batez ere ahuldu, zeren proletalgo errusiarrek indar militarrekin nahiz beste bitarteko batzuekin Mendebaldeko langileei erregimen kapitalistaren aurkako borrokan lagundu beharko die. Garai honetan gobernu aparatua ahultzea ezinezkoa izango da ziurrenik baita barne izaerako arrazoiengatik ere. Zalantzarik gabekoa da ordurako barneko kontrairaultzaren indarrak zapalduak izatea. Alderantziz, posible da saiakera kontrairaultzaileak batez ere Mendebaldeko borroka erabakigarrietan espero izatea, ezbaierik gabe kapitalismo europarrak bere erreserba guztiak jaurtiko baititu borrokara herrialde guztietan, baita Errusian ere, Chernov eta bere Batzar Konstituziogilea eta gaizkileen bandak alde batera utzi gabe.

Aldi berean, Mendebaldeko Europako iraultza proletarioaren garaipenak Estatuaren desegite gradualera gerturatuko gaitu. Egia esan, denbora honetan zehar kapitalismoak oraindik ere Amerikan eta Japonian indarrak baldin badauzka, kapitalismoaren bi gotorleku hauek ez badiote euren buruari gerra deklaritzen eta iraultza sozialistara iritsi arte gerra egingen, ez da baztertzen Europa Sozialistaren eta Mundu Berri kapitalistaren arteko gerra baten aukera. Baina honek aldi berean Europarentzat nahitaezkoa egingo du gobernu aparatua indartsu bat mantentzea eta lurreko nahiz itsasoko armada gorri boteretsu baten antolakuntza. Nahiz eta kasu horretan ere Errusia Sobietarrean gauzen egoera hausnartzen ari garen auziarekiko beste bat izango den. Mendebaldeko ziurtatuz, Sobietar Errepublikaren Batasun boteretsu baten barnean finkatuz, alde guztietatik hegazti harrapariez inguraturiko gotorleku proletario baten egoeran egoteari utzirik, Errepublikak Sobietarrak jada, modu jarraituan, bere gobernu aparatuen

berreraikuntza hasi ahalko du errepresiora bideraturiko beharrezko ez diren organoak murriztearen zentzuan, gobernu biolentziaren aparatu batzuk funtzio ekonomikoen gertukoetara edo funtzio erabat ekonomikoetara bideratzearen zentzuan. Eta hau bizkorrago egin ahalko da, alde batetik, zenbat eta azkarrago bihurtu ohitura langile indarraren eta lanaren betebeharraren banaketa sozialista, eta bestetik, ekonomia txikiaren produktu soberakinaren banaketa sozialista. Zeren hau gauzatzeko organo bereziak beharko diren arren, benetan gobernu aparatuaurren murrizketa ikaragarri bat eragingo dute.

Azkenik, mundu mailako politika erabakitzeke gai diren munduko herrialde garrantzitsuenetan boterea proletalgoaren eskuetara pasatzen denean, Estatuaren suntsiketa geroz eta pauso bizkorragoan joango da Errepublikak sozialista guztietan, klase aberats eta ertain guztiak komunitate sozialistaren langileetan bihurtzearen bide paraleloari jarraituz.

Suposa dezagun orain hau guztia lortua izan dela, inork ez duela iraganera bueltatzea ere pentsatzen, gizarte guztia eskubide berdinak dituzten herritarrez osatua dagoela, eta erregimen berriak erregimen kapitalistaren aldean dituen abantaila izugarriak jada argi ikusten direla.

Zer egin beharko da talde isolatuak, edo orokorrean, guxtiengo bat, gehiengotik banantzen bada eta gehiengoaren eta gizarte guztiaren interesen kontraesanean posizio pribilegiatu bat eskuratzen saiatzen bada? Borondatezko adiskidetzak ezinezkoa bada, noski gehiengoak bere borondatea praktikan betearazi egin beharko du inposaketaren bidez. Eta hau horrela bada aldi batean zehar, oraindik ere komunismo integralaren gradura heltzen ez den baina harantz azkartasunez hurbiltzen den klase gabeko gizarte berrian, gehiengoaren erabakiak betetzera bideraturiko organoen itxuran, Estatuaren hondakin jakin batzuk geratuko direla suposatu beharko dugu. Begi bistakoa da Estatu proletarioaren organoen hondakin hauek ez dutela antzekotasunik edukiko gizarte burgesekeko poliziarekin. Litekeena da auzia ekonomiako organo zentralak txandaka herriarren talde bati edo besteari talde isolatuak obeditu nahi izan ez duen erabakia betearaz dezan enkargatzera murriztea.

Biolentziaren beharra azkar desagertuko da, izan ere, praktikan, gizarteko talde isolatuak eta orokorrean gizarte guztia

gutxiengoak gehiengoari bere borondatea inposatzeko saiakerak erabat antzuak direla konbentzituko baita. Geroago, denak ohituko dira gehiengoaren erabakiak beti praktikan gauzatzera eta nahikoa izango da gehiengoaren bozketa, baita erabaki honekin ados ez zeuden horientzat ere, eztabaidako auzia praktikan gauzatu izan dadin. Bere alderako gehiengo lortzea, hona hemen gutxiengoak bere erabakiak praktikara eramateko bide bakarra.

Gutxiengoak gehiengori edukiko dion mendekotasuna, noski, auzia bi aldeak aseko dituen borondatezko akordio batekin konpon ezin daitekeen kasuan bakarrik izango da ezinbestekoa. Bistakoa da akordioa hobea dela edozein motako bortxa baino, hau morala izanik ere. Gizateriak armoniazko antolakuntza bat lortzen duen tokian eta biolentziaren organo moduko gobernu instituziorik gabe moldatzeko gai den tokian, Estatu soberan egongo da, kaltegarria eta iraingarria izango da komunismoko aldi horrentzat. Azaldu dezagun hau ondorengo adibidearekin: herritarren masa oso erlaxatua dagoenean, tsarismoaren eta kapitalismoaren egoeraren ondorio diren pikardiaren izpirituagatik eta eskala txikiko lapurretengatik, gure trenbideetan, esate baterako, beharrezkoa da txartelak bakarrik saltzen dituzten enplegatuak eta enplegatu hauen gainerako kontrolatzaileak jartzea. Zintzotasun sozial faltaren zerga hau ikuspuntu ekonomikotik erabilgarria da, eta ezinbestekoa da trenbideen administrazioak, adibidez, txartel saltzaileekin eta kontrolatzaileekin urteko ehun mila errublo gastatzen dituen tokietan, modu honetan publikoaren zintzotasun ezagatik hirurehun mila errubloko galera posible bat salbatzen badu. Baina herritarrak bere gehiengo zabalean zintzoak badira eta bidaiari bakoitzak trenbidean jarritako itsulapiko batean txanpon bat botako duenaz fidatu badaiteke, nahiz eta ordaindu gabeko txartelen kopurua hamar edo hoge milakoa izan, komenigarriagoa izango da hala ere kontrola kentzea. Kontrola hil egiten da ekonomiarentzat alferrekoa eta kaltegarria izateagatik, eta iraingarria da pertsona kontzienteen eta zintzoen gehiengo zabalarentzat. Berdina gertatuko da Estatuarekin. Osorik desagertuko da gizarte komunista garatuan, baita kontserbatu zituen hondakin apurrekin ere. Hau izango da hain zuzen ere gizakiaren heldutasuneko momentua komunismo aske eta

osoarentzat, non obligazioak gizartearentzat ezinbesteko direla pentsatzen delako soilik betetzen diren eta ez gizarteak biolentziaren bidez bere kide batzuei hauek betetzetik aldentzea eragozten dielako.

Eginbehar hauek ohituraz beteko dira, sen sozialagatik, bere kabuz ulergarria den zerbaiten moduan. Esate baterako, lanaren eginbeharra betetzea eskola garaiko adinetik bihurtuko da ohitura eta lana, lo egitea, elikatzea, etabar bezain funtzio naturala izango da bakoitzarentzat. Honela, gizarteko ki-deek gizarteko ekonomia organoek onartua izan den guztia borondatez betetzeko edukiko duten joera sen sozial hutsa bihurtuko da. Ekonomiaren zuzendaritza ziurrenik talde jakin batzuek txandaka buruturiko lana izango da, agian baita dagozkien karguetarako hauteskunderen ezabatze posiblearekin ere. Eskulanaren, ekoizpen baliabideen, kontsumo proportzioen, erreserben, etabarren beharrezko estatistikak dituen ekonomia organoaren deialdi bat nahikoa izango da ekonomia- ren edozein adarretan beharrezko lan indarra ziurtatzeko. Adibide txiki bat: taldea gidatzen duen antzarrak alarma oihu bat botatzen duenean, talde guztia, instintiboki, altxa egiten da eta hegan hasten da. Modu berean gizarte komunistako langileek instintiboki behar sozialaren deia jarraituko dute. Estatistikak esango du: “hamar mila esku langile ikatzaren ekoizpena handitzeko” eta boluntarioen beharrezko kopurua beste lanak egitetik ikatz mehatzeetara pasako da. Beharrezkoa da arrozaren edo limoien kontsumoa ehuneko hogeita batean jaistea: denek eramango dute berehala praktikara ekonomia organoaren agindu hau, Hornikuntzako Herri Komisari- tzako banaketa organo ezerosoak sortu gabe. Aginte sozialeko organoak, bere aspektu ahulenean ere desagertu egingo dira kanpotik jarduten duen indar bezala, honen funtzioak gizakiak barneratu egingo baititu, ongi antolaturiko eta bikain hezitako entitate kolektiboaren sen sozialean diluituko dira. Atzerapauso isolatuak sendamena behar duten gaixotasun sozialtzat hartuko dira eta ez biolentziaren antolakuntzaren berrezartze bezala.

Frantziako klase arteko borrokari eginiko hitzaurrean, Engelsek argitasun handiz langile Estatuaren trantsiziozko izaera azpimarratu zuen ondorengo paragrafoan:

“... *Estatua* ez da klase batek bestea zapaltzeko tresna bat besterik, berdin errepublika demokratikoan bezala monarkian ere; eta kasurik hoberenean proletalگو garaileari bere klase dominazioaren aldeko borrokan oinordetzan transmititzen zaion gaizki bat da. Proletalگو garaileak, Komunak egin zuen moduan, berehala moztuko dizkio gutxienik honen alde txarrenak, etorkizuneko belaunaldi batek, bien bitartean, baldintza sozial berrietan eta askeetan hezia izanik, Estatuaren traste zahar guzti honetaz, mota guztietako instituzioetat, libratu ahalko duelarik”.

Komunismoaren aldeko borroka garai guztian zehar, Estatu proletarioak existitu egin beharko du eta existitu egingo da, eta bere existentziaren iraupena klase aberatsen erresistentzia gaitasunaren arabera izango da. Eta jada gaur egun mundu mailako burgesia erresistentzia gaitasun izugarri bat garatzeko gai dela ikusten denez, Europako iraultza proletarioaren garaipenak ere ez du langile klasea Amerikan eta Japonian aginte burgesarekin amaitzeko beharretik salbatuko, litekeena delarik hasieran harakin hauengandik defendatu behar izatea. Estatu proletarioak, oraindik ere munduko txoko guztietan kapitalaren agintea desegiteko hamarkadetan zehar lan egin beharko duela baieztatu dezakegu.

Ikus dezagun orain zer irizten duten anarkistek Estatu proletarioaz eta zein den honekiko duten jarrera praktikan.

ANARKISTAK ETA ESTATU PROLETARIOA

Anarkistak gobernu botere ororen eta antolaturiko biolentzia ororen etsai agertzen dira.

Hona hemen Estatuaren inguruan, adibidez, Kropotkinnek idazten duena:

“Guk beragan giza historia guztian zehar jendeak elkarren artean batzea eragozteko, herrietako ekimenak oztopatzeko, existitzen ziren askatasunak itotzeko eta beste batzuen sorrerari traba egiteko balio izan zuen instituzio bat ikusten dugu. Eta guk badakigu hainbat mendetan zehar existitu zen instituzio bat eta historian paper jakin bat betetzeko forma zehatz bat hartuz sendoki finkatu zen instituzio bat ezin dela aurkako zeregin baterako egokitua izan” (P. Kropotkin, *Estatua eta bere paper historikoa*).

Malatestak zera idazten du:

“Estatuak ez du ezer sortzen, perfekziora eramanda ere herritarren indarrak alferrik gastatzen dituen eta beharrezkoa ez den instituzio bat da.” (E. Malatesta, *anarkismoaren sistema laburtua*).

Aipaturiko goiko paragrafoetan bi ideia bereizi behar dira. Lehenik eta behin, Estatu esplotatzailearen aurkako gaitzespena eta langile klasearen emantzipaziorako zapalkuntzazko aparatu zahar hau aprobeztatzeko erabateko ezinezko-tasuna azpimarratzea. Puntu honen inguruan komunisten eta anarkisten artean ez dago desadostasunik. Bigarrenik, Estatu ororen aurkako protesta, baita Estatu proletarioaren aurkako ere.

Baina anarkistak Estatu zapaltzaileak sortzen dien gaitzespena Estatu proletarioaren aurka eramaten saiatzen direnean, zeina klase zapalduen borrokaren antolakuntza bezala sortzen den, komunisten eta anarkisten artean erabateko amildegia irekitzen da. Kapital internazionalaren aurka borroka

latz bat burutzen duen langile Estatuaren aurrean, Malatesari jarraituz, loro bat bezala Estatu hori ere “herritarren indarrak alferrik gastatzen dituen instituzio bat dela” errepikatzeari ekingo liokeen anarkistak, bere buruan anarkiarik idealenak agintzen duela bakarrik erakutsiko luke. Haurrei ere ez dago frogatu beharrik borroka hobekien antolaturiko aldearen garaipenarekin amaitzen dela. Klase arteko gizartean lor daitekeen antolakuntza forma gorenena klasearen Estatu antolamendua da eta hamar aldiz biderkatzen ditu modu hone-tan batzea lortzen duen klasearen indarrak. Horregatik proletal-goak bere Estatua antolatzean ez ditu “herri indarrak alferrik gastatzen”, baizik eta indar hauek zaintzen ditu, ahalik eta gastu txikienarekin burgesiaren gaineko garaipena lortze-ra joaz. Eta aldiz, indarren gastu handiena anarkisten meto-doekin egindako borrokak eragiten du. Baina honen inguruan geroago hitz egingo dugu.

Anarkismoaren teorikoez, langile Estatua sortuko balitz halako Estatuaren aurrean zein jarrera edukiko luketen planteatzen zuen galderari erantzun behar zienean erantzuna saihesten ahalegintzen ziren, Estatu proletarioa ezin existitu daitekeen baieztapenean oinarrituz: “Estatua beti izan da, da eta izango da gutxiengoaren erakunde bat eta ezin daiteke inoiz herriaren gehiengoak boterea bere eskuetan hartu dezake-en kasu bat eman”. Langile masak beren zapaltzaileen aurka-ko borrokan garaipena lortuko balute, Estatuaren erakundea erabat alferrikakoa izango litzateke masa hauentzat. Baina hain zuzen ere bizitzak Estatu proletario baten adibidea eman zuen, honela anarkismoaren teorikoez trufatuz eta jada saihestu ezin zuten erantzun bat eskatuz.

Auzi honek, errealitateak berak planteatua izanik, golpe gogorra eman zien anarkistei. Orain, aitortu behar dute langile klasearentzat mingarria dena ez dela Estatu oro ezta antolaturiko biolentzia oro ere, baizik eta esplotatzaileen Estatua soilik. Hau egitean, anarkismoak bere teoriaren funtsezko puntuan arraila bat irekitzen utziko zuen, baieztapen absolutuen zerutik lurreko benetako errealitatera jaitsi beharko zue-larik. Edo alderantzizko kasuan, beharrezkoa zen langile Es-tatua, esplotatzaileak zapaltzen zituen Estatua, langileen be-raien lerroetako diziplinaren Estatua, mingarritzat hartzea,

honi gerra deklaratzeari eta modu honetan burges kontrairaultzaileen kidetzan geratzeari.

Ikus dezagun nola saiatu diren anarkistak egoera hone-tatik irteten.

Estatu proletarioaren lehen esperientzia Parisko Komunak eman zuen. Anarkismoak ezin izan du erakunde miresgarri honen izaera askatzailea ukatu. Eta horregatik ikusten dugu adibidez Kropotkinek Parisko Komuna besterik gabe Komuna anarkista bat bezala aurkezten duela. Kropotkinek, iraultza soziala nola gauzatu behar den Parisko Komunaren adibidetik abiatuz ikastea gomendatzen du eta ez da ikusten ahalegintzen, edo sinpleki ez du ulertzen, nola iraultzak garbituriko lurzorua gainean historian inoiz ikusi gabeko Estatu proletario berri bat sortzen hasi zen. Bere *Anarkia* foiletan, Kropotkinek zera idazten du: "Iraultzan, deuseztatzea lan iraultzailearen zati bat bakarrik da; iraultzaileak berehala hasi behar du gainera berria dena eraikitzen. Eraikuntza hau burutu daiteke, liburuetan ikasitako errezeta zaharren eta zaharraren defendatzaileek herriari inposatzearen arabera, berrian pentsatzeko gaitasunik ez duten guztiez; edo bestela berreraikuntza oinarri berrien gainean hasiko da, hau da, herri bakoitzean, hiri bakoitzean, gizarte sozialistaren eraikuntza masek asimilaturiko oinarri komun batzuen eraginpean hasiko da, toki bakoitzean honen gauzatze praktikoa lurralde bakoitzari dagozkion erlazio konplikatuaren barnean bilatuko dutelarik".

Eta halako eraikuntzaren eredu moduan, Kropotkinek Parisko Komunaren esperientzia aipatzen du, ezer baino gehiago Paris orduan "hiri independente" aldarrikatu izana gus-tatzen zaiolarik. Independentzia hau, batez ere Thiersengandiko, Versaillesko gobernu kontrairaultzaile burgesarengandiko eta nekazal guneko elementu atzerakoiengandiko indepen-dentzia zela, Kropotkinek isilean gordetzen du. Egia esan, Komunak Frantzia guztia hartzera jotzen zuen, herrialde guztia Estatu proletarioaren antolakuntza bihurtzera, eta norabide honetan jasandako porroten ondorioz izan zen garaitua.

Orokorrean, Parisko Komunak ez du Komuna anarkiko baten eredia irudikatzen, Estatu-komuna baten enbrioiarena baizik.

Honako hau, hain zuzen ere Estatu baten esperientzia zela, mota berrikoa eta esperientzia oso inperfektua izan arren, argi dago Parisko Komunaren historia ezagutzen duen edonorentzat eta bere esentzia zikindu edo hankaz gora azaltzeko interesik ez duenarentzat.

Komunak, anarkistek hainbeste gorrotatzen duten Estatuaren ezaugarri garrantzitsu guztiak biltzen zituen. Lehenik eta behin, organo legegile bat zen eta denentzat derrigorrezkoak eta zigorpean praktikan gauzatu beharrekoak ziren dekretu sorta bat diktatu zituen. Ez zuen epaitegia kendu, baizik eta epaileen hautaketa herriaren esku aldarrikatu zuen. Ez zituen armadak desegin ezta diziplina militarra ere, ezinbestekoa porrotak soilik jaso nahi ez dituen armada batentzat, baizik eta hurrenez hurreneko langileen armamentu orokorrean oinarrituriko armada bat zeukan.

Orokorrean, Komuna proletalgoaren interesetara, burgesia zapaltzeko helburuetara, egokituriko Estatu enbrioi bat zen; bere zapaltzaileei gerra deklaratu zien zapalduen Estatua.

Estatu hau oso inperfektua zen eta Kropotkini Komunitik gustatzen zitzaiona, hain zuzen ere, proletalgoaren borroka organo bezala zituen akatsak ziren. Parisko Komunak zenbat eta indartsuago ekin izan balio Frantziako indar iraultzaileak bere zuzendaritzan antolatzeari eta bere menpean jartzeari, zenbat eta azkarrago sortu izan balu militarki jardungo zuen eta bere armadan diziplina eta ordena ezarriko zuen erakunde zentralizatu bat, are arrakasta handiagoa edukiko zuen Thiersen gobernu burgesaren aurkako borrokan.

Baina Kropotkinek ezin izan zuen ulertu, edo ez zuen nahi ulertu, Parisko Komunaren esentzia eta bere teoriaren ahultasuna salbatu nahian, ez zuen aintzat hartu langile paristarren esperientzia sozialista honetako estatuaren elementua. Aldiz, gure Karl Marx eta Frederich Engels maisuek, intuizio bikain batez, Komuna proletalgo garaileak sortzen zuen Estatu mota bat zela azaldu zuten. Hona hemen, esate baterako, Marxen *Frantziako klase arteko borroka* idazlanaren hitzaurrean Engelsek Parisko Komunari buruz idazten zuena:

“Azken urteetan filistiar alemaniarra berriro izu ikaragarri bat sentitzen hasi da honako hitzak entzutean: proletalgoaren diktadura. Jakin nahi al duzue, jaun agurgarriak,

zertan datzan diktadura hau? Ikus ezazue bada Parisko Komuna. Hau zen proletalgoaren diktadura”.

Marxek, foileto horretan bertan Komunari buruz zera idazten zuen: “Honen misterioa (hau da, Komunarena. I. O.) bere esentziagatik langile klasearen gobernu bat izatean datza”.

Komunari buruz ere, langile gobernu baten inguruan hitz egingo balu bezala, zera idazten zuen: “Oraindik gobernu zentralaren eskuetan geratzen ziren funtzio apurrak baina garrantzitsuak ez ziren desegin behar, Komunaren etsaiek erraturik deklaritzen zuten bezala, baizik eta komunako funtzionarioei, hau da, ardura serioak zituzten funtzionarioei entregatu behar ziren”.

Gure maisu handien iritzien aipu askoz gehiago azaldu genitzake. Aipamen hauek guztiek, Marxek eta Engelsek Parisko Komuna langile klasearen gobernutzat hartzeaz gain, baieztapen hau proletalgoaren gobernu antolakuntza honetako bizitzaren eta jardueraren datu sorta batekin frogatzen zutela erakutsiko lukete.

Estatu proletarioaren bigarren adibidea Errusia Sobietarrak eman zigun Urriko altxamenduaren ondoren. Nola jaso zuten anarkistek langile eta nekazarien Estatu baten sorkuntzaren esperientzia izugarri hau?

Parisko Komunaren antzera, Errusia sobietarra, jada bere existentziagatik bakarrik, botere oro gutxiengo zapaltzailearen boterea dela eta langileen gehiengoak gutxiengo burgesa zapaltzeko ez duela Estatuan antolatzeko aukerarik ez beharrik dioten aurreiritzi anarkistaren ezeztatze ageriena da. Baina Kropotkinek Parisko Komuna komunista bat zela esateko atrebentzia eduki bazuen ere, Errusia Sobietarri buruz berdina errepikatzea jada ezinezkoa zen. Urriko iraultza “botere guztia sobietentzat” kontsignarekin burutu zen. “Botere” hitza, anarkistek hainbeste gorrotatzen dutena, agerian zegoen eta hitz hau ekintza bihurtu zen koalizioko ministerioa eraitsia izan zenean eta proletalgoaren diktaduraren gobernu aparatu sobietarra indartzen hasi zenean. Anarkistek, boltxebikeekin batera, Urriko iraultzan parte hartu zuten. Lortu zen garaipenean beraien ahaleginen zati bat ere badago. Baina Urriko iraultzan paper iraultzailea jokatu zuten ez bere anarkismoari eskerrak, honetaz gain baizik, hau da, ez

botere ororen gabeziagatik, boterea bere eskuetara pasatzeagatik baizik; borrokan ziharduen proletalgoaren aliatu egiten zituena ez zen orokorrean botere ororen ukapena izan, botere burges jakin baten aurkako borroka baizik. Noski, anarkistak beren ekintzetan beti saiatzen ziren burgesiaren aurka anarkiaren izenean borrokatzen zutela azpimarratzen, baina honek ez zuen ekintza eragozten, burgesiaren boterea eraisten lagunduaz proletalgoaren boterearen garaipenari laguntzen baitzioten.

Urriko iraultzaren ondoren, anarkista errusiarren artean hiru korronte ezberdin bereizi daitezke botere sobietarrarekiko duten jarreraren arabera. Anarkisten zati batek gutxi gorabehera ondorengo moduan arrazoitzen du: Botere sobietarrak polizia errusiar eta internazionalaren aurka borrokatzen du. Borroka hau amaitu ez den bitartean beharrezkoa da botere sobietarra babestea, anarkia erregimen sozial perfektuagoa izan arren. Botere sobietarraren aurka borrokatzeak, oraindik ere burgesia garaitu gabe dagoenean, burgesiari laguntzea esan nahi du. Honela arrazoitzen du anarkisten zati txiki batek.

Beste anarkista batzuk erabat aurkakoa den iritzia defendatzen dute. Botere sobietarra beste ezer baino lehen boterea dela ulertzen dute, eta anarkistek beti boterea suntsitu behar dute, edozein izanik ere eta egiten duena eginik ere. Honela beraz: Behera botere oro, baita botere sobietarra ere! Behera segituan! eta, Gora anarkia!

Muturreko bi korronte hauen artean badago erdi bideko korronte bat, egoeraren arabera mutur batera nahiz bestera hurbiltzen dena, momentu guztietan gauza bat botere sobietarra dela eta beste gauza erabat ezberdina sobietak direla azpimarratzen saiatuaz. Ziurrenik anarkista errusiarren gehiengo hartzen duen erdi bideko korronte hau ondorengo erregelaren bidez orientatzen da botere sobietarrarekiko dituen erlazioetan: anarkistek momentu jakin batean, botere sobietarraren politika anarkismoaren interesekin bat datorrela ikusten dutenean, honen aurkako ofentsiba ahuldu egiten dute eta baita bera babestu ere. Beraien konbentzimendu sakonaren arabera ordea politika hau ez bada iraultzailea, ez dute gobernu sobietarraren neurri honen edo bestearen aurka egiten, batez ere botere sobietarraren aurka orokorrean baizik. Argi geratu

behar du denontzat, botere sobietarrarekiko horrelako jarre-
rak erakusten duena, anarkisten erabateko nahasmena eta
Estatu proletarioari dagokionean printzipiozko jarrera baka-
rra hartzeko duten erabateko ezgaitasuna dela.

Aipatu ditugun anarkisten lehen taldea, modu ireki eta
zintzo batean, oraindik ere klase esplotatzaileen zapalkuntza
lana amaitu ez duen gobernu sobietarraren alde jartzen da.
Honekin, benetan eta argi eta garbi (nahiz eta ziurrenik hi-
tzez ez esan), Estatu proletarioa existitu daitekeela, Errusia
Sobietarrean praktikan existitzen dela, eta anarkismoa pun-
turik funtsezkoenean, Estatuaren auzian, erratu egin zela
onartzen dute. Talde honek aldi iraultzaile batean bere sen
iraultzaileak agintzen dion bezala jarduten du, baina aldiz
Kropotkindarren arrazonamendu teorikoak ahazmenean baz-
tertzen ditu.

Kasu ezberdina da anarkismoaren teorikoek joandako
hamarkadetan idatzi zutena loroak bezala errepikatzen duten
anarkisten taldearena. Anarkismoaren teorikoek Estatu es-
plotatzailetik Estatu gabeko gizarterako pausoa forma oso sin-
plista batean irudikatzen zuten: Iraultza soziala hasten da,
Estatu burgesa suntsitzen da eta askatasun anarkikoaren
agintea sortzen da. Noski, hau erraza da paperean idaztea, ba-
tez ere oztopoak kontuan hartzen ez direnean. Errealitatean
garapen historikoak ez zuen Bakuninek eta Kropotkinek au-
rreikusiriko bidea jarraitu, *Manifestu Komunistak* eta bere
autoreek aurreikusitakoa baizik. Estatu burgesa suntsitzeko
proletalgoaren borrokak Estatu proletario baten beharra es-
katu zuen, eta gutxiengo esplotatzailearen Estatuaren eta Es-
tatutik askea izango den etorkizuneko gizartearen artean erdi
bideko kate begi bat eratu zen, gehiengo langilearen Estatu
iragankor bat. Horrela gertatu ziren gauzak praktikan. Baina
anarkista “teorialariarentzat” egia erreal hau ez da existitzen.
Berarentzat, paper inprimatura eramandako teoriko anarkis-
ten aurreiritziak garrantzitsuagoak dira iraultzaren bizitza-
ren esperientzia baino. Anarkista teorialariak ez du bereizten Es-
tatu proletarioa, edo hobe esanda, Estatu proletariotik bereiz-
ten duen gauza bakarra gorroto duen “Estatua” da, eta zera
oihukatzen dio: “Behera gobernu sobietarra!”, oihu hau bera,
kontrairaultza burges eta monarkiko guztiak ere jaurtitzean,

ozenen entzuten den momentuetan. Egia da burgesak edo monarkikoak “behera gobernu sobietarra!” oihukatzen duenean, “sobietar” hitza nabarmentzen duela eta anarkistak, aldiz, “gobernu” hitza nabarmentzen duela. Praktikan ordea, gobernu sobietarra eraisteko benetako aliantza bat da, konkretuki existitzen dena eta burgesiari garaipena emanaz amai daitekeena.

Baina anarkista teorialari eta “kontsekuenteek”, hala eta guztiz ere, kontsolamendu bat daukate (ez da txarrik onik ez dakarkienik!), hain zuzen ere amaiera arte anarkismoaren ondare guztien kontserbatzaile izaten jarraitzearena; ezin zaie aurpegiratu Estatuarekiko erlazioei dagokionean beraien “egietatik” aldendu direnik. Anarkistei kontsolamendu honen eskubidea aitortu behar diegu, are gehiago garestiegi ordaindu dutenean: kontrairaultzarekin aliatuz...

Kropotkinen jakinduria zaharkituen eta benetako iraultzaren eskakizunen artean dabilzan anarkisten erdi bideko taldeari dagokionean, praktikan ukatu egiten du botere orok herri langilea zapaltzen duela eta hau ezin daitekeela inoiz bere mesedera egon dioen baieztapen anarkista. Burgesiaren eta inperialismoaren aurka zuzenduriko gobernu sobietarraren neurri batzuk praktikan babestuz, anarkistek, hitz askorik gabe baina elokuentziaz, langileen alde esplotatzaileak zapaltzen dituen botere bat ere badagoela aitortzen dute. Baina airtormen hau egitea anarkista dogmatiko batentzat bere buruaz beste egitea izango litzateke, izan ere, botere burgesaren eta botere proletarioaren artean ezberdintasunak ezartze hasten den bezain laster, bere burua galdutzat eman baitezake. Behin alde batetik Wrangelen eta Lloyd Georgeren boterearen eta bestetik botere sobietarraren arteko borroka planteatua izanik, aukeratu egin beharko du borroka orotatik eta iraultzatik aldendu edo langileen boterearen alde eta borrero burgesen boterearen aurka jartzearen artean. Baina teoriko anarkistek ez zuten aurreikusi hautaketa horren aukera eta beren ikasle errusiarrak beharturik daude “euren adimenaren” bidez egoera honetatik nola irten erabakitzero. Irtenbidea modu ezberdinetan bilatzen dute baina, azken batean, beti amaitzen dute bi bideren aurrean: aurreiritzi anarkistei leial mantendu eta kontrairaultzari lagundu, edo iraultzari lagundu baina

botere orok edozein egoera eta garaitan herriarentzat suposatzen duen arriskuaren inguruko aurreiritzi guztiak alde batera utzi ondoren.

Gorago ikusi dugun moduan, Kropotkinetik, Estatu proletarioaren enbrioi baten aurrean, hau da, Parisko Komunaren aurrean egonik, anarkismoarentzat Salomonen pareko erabakia aurkitu zuen: Parisko komuna desjabetu, nolabait esatearren, komuna anarkiko bat dela aldarrikatuz. Historiak hausteko zailagoa den intxaurra eman die gure anarkistei: sobietak.

Zer dira sobietak?

Alderdi burgesek, adiskidetzailleek eta anarkistek ez zituzten sobietak benetan ziren moduan ikusten, izatea gustatuko litzaiekeen moduan baizik. Alderdi adiskidetzailleek ez zituzten sobietak botere proletarioaren organotzat hartzen, baizik eta boterea kontrolatzeko bakarrik gai ziren klaseko erakunde profesionalak zirela adierazten zuten, eta indar guztiak erabili zituzten hauek hain egoera tamalgarrian mantentzeko. Anarkistek auzi honi ia zentzu berean erantzun zioten: sobietak ez dira botere organoak, herri langilearen borondatearen organoak baizik. Soilik boltxebikeak saiatzen dira hauen izaera aldatzen eta botere organo bilakatzen.

Hain erantzun tamalgarriak, beste behin ere, sobieten existentzia hutsa Estatuaren arazoari buruzko teoria anarkista guztien errefusatzeko argi bat dela egiaztatzea baimentzen du, eta organo hauek balioesteko duten erabateko ezgaitasuna agertzen du.

“Botere” hitza “herri langilearen borondate” hitzagatik ordezkatzeko saiakerak ez ditu anarkistak salbatzen, gure eboluzioaren ibilbideak berak paretaren kontra zokoratzen baititu.

Ados gaude sobietak herri langilearen borondatearen organo direnarekin, baina akaso herri langilearen borondateak ezin al du botere hori lortzeko borondatea ere izan?

Errealitatean herri langilearen organoek boterea lortzeko borondatea zutela agertu zuten, botere organo bihurtu ziren, eta ezin zuten eraldaketa hau jasateari utzi iraultza proletarioaren garaipena bermatu nahi bazuten. Zer irabazten du orduan anarkismoak sobietak ez direla proletalgoaren botere organoak, “proletalgoaren borondatearen” organoak baizik adieraziz?

Ezer ere ez. Anarkistek hitzak nahasten dituzte, maiz bere absurdotasunagatik benetan harrigarriak diren ondorioetara iritsiz; hauetako batzuk ondorengo moduan arrazonatzeko joera dute: sobietak botere organoetan eraldatzen eta botere sobietar zentral bat osatzen duten heinean, herri langilearen borondatearen sobiet ordezkari izateari uzten diote. Beste hitz batzuetan: sobietek ez dutenez anarkisten errezeta jarraitzen, ez dute herri langilearen borondatea adierazten!

Baina orokorrean adieraz al dezake Sobietak, langileek hautaturiko diputatuen asanblada gisa, langile hauen borondatea? Anarkistentzat honako hau auzi oso serioa da. Irakurleak gogoan hartu behar du Malatestak eta anarkismoaren hainbat teorikok beti grina handiz azaltzen zutela, instituzio baterako edo besterako hautatua denak bere borondatea adieraz dezakeela baina inolaz ere ez ehunka eta milaka pertsona ezberdinena. Anarkista kontsekuenteak arrazonamendu honekin, sobietak masen borondatea ezin adieraz dezaketenez or-ganoak diren ondorioa iritsi beharko luke. Baina auzi honetan anarkismoaren teorialari guztiak ez datoz bat sobietak kalamniatezarekin eta proletalgoaren borondatea adierazten ez duten organo direla adieraztearekin. Honela beraz, sobieten eta hauen lanaren existentziak berak, anarkistak beren aurreiritziakoko bat baztertzeraz behartu zituen.

Baina Sobiet isolatua herri langilearen borondatea adierazten duen organoa bada, zein iritzi dute anarkistek Sobieten Kongresuari buruz?

Hemen anarkisten zati batek atzera egiten du eta Sobieten Kongresuak ez duela jada herriaren borondatea adierazten baieztatzen du.

Sobieten Kongresuak Batzorde Zentrala eta herriko komisarioen Sobietak hautatzen dituenean, anarkista guztiek adostasunez baieztatzen dute honek ez duela herri langilearen borondatea adierazten, eta berak hautaturiko instituzioek are gutxiago adierazten dutela.

Anarkisten arrazoiketa honen inkongruentzia eta absurdo guztia ageriagoa izan dadin, argitu dezagun hau adibide txiki batekin. Suposa dezagun probintzia bat, dei diezaiogun Ivanovskaia, non ogi soberakin bat dagoen eta probintziako sobiet hautatuak soberakin ori ez dela hirira entregatuko erabaki

duen. Hau “herri langilearen borondatearen” adierazpena izango litzateke. Baina Sobieten Kongresu Panerrusiarrak, langileak eta uza txarra eduki duten nekazariak gosetik salbatze-arren, dekretu bidez herrietatik, eta batez ere Ivanovskaiatik, ogi soberakin guztiak hartu behar direla agintzen badu, hau ez litzateke jada herri langilearen borondatearen adierazpena izango, boterearen eta biolentziaren erabilera baizik.

Honela beraz, anarkisten eta Estatu proletarioaren inguruan esandakoaren balantze bat eginez ondorengo ondoriora iristen gara: anarkistek ez zutenez Estatu proletarioaren agerpena aurreikusi, eta hauek iraultza sozialaren bidea erre-alitateari erabat ezberdina zaion modu batean irudikatzen zuten, jada sobietak botere proletarioaren enbrioi moduan agertze hutsak anarkistak mende erdiz axiomatzat zeuzkaten aurreiritzi asko baztertzeraz behartu zituen. Baina Urriko Iraultzaren ondoren, sobieten sareak, entitate bakar bat osatuz, klaseen desegitearen aldeko borrokari hasiera ematen zion langileen eta nekazarien Estatuaren oinarria osatu zutenean, bizitzak berak ondorengo dilemaren aurrean jarri zituen anarkistak: sobietak botere organo bezala suntsitu edo erregimen burgesa deuseztatzeko instrumentu bezala babestu.

Ondorio bezala, anarkistek ezin izan dute printzipiozko jarrera kontsekuente batean mantendu eta gaur egun erabarteko nahasmen teorikoko egoera batean daude.

EKONOMIA KOMUNISTA ETA EKONOMIA ANARKISTA

Jada ikusi dugu nola Estatu proletarioaren aurka borrokatzeak, Estatu honek esplotatzaileen erresistentzia zapaltzeko eginkizuna amaitu baino lehen, anarkistak, ezinbestean eta bere goaz gain, kontrairaultzaren aliatu bilakatzen dituen. Ekonomiaren arloan arazoa are okerragoa da. Anarkisten idealismo ekonomikoa merkatu ekonomiaren bertsio burges txiki bat besterik ez da eta atzerapauso bat suposatzen du, baita kapitalismo garatuarekin alderatuz gero ere.

Gizartearen berreraikuntza ekonomikoaren arloan programa komunistaren eta anarkistaren artean dagoen ezberdintasuna argiago ikus dadin, gaingiroki komunismoak ekoizpenean eta banaketan dituen eginkizunak deskribatzen hasiko gara.

Irakurleak kontuan eduki behar du beharturik gaudela, ez soilik borrokaren helburu bezala ulertuz ekonomia komunista idealaz hitz egitera, baita trantsizio aldiko erlazio ekonomikoez ere, zeinean Errusia jada sartu den eta Europa proletalgoak boterea eskuratu eta hurrengo egunean sartuko den.

Komunismoa ekoizpen baliabide guztiak langileen jabetza kolektibo diren erregimen sozial bat da; langile bakoitzak bere indarren arabera lan egiten du eta gizarteko kide bakoitzak biltegi sozialetatik bere beharren arabera jasotzen du. Halako erregimena pertsona langile ororentzat erregimenik perfektuena eta idealena da. Baina erregimen honek, aldi berean, beharrezko ditu antolakuntza bikaina, lan kolektiborako langileen ohitura eta pazientzia, eta teknikaren arloan oraindik lortzetik urrun gauden aurrerakuntza. Bakoitzak bere beharren arabera kontsumitu behar badu eta ez arau jakin baten arabera, honek esan nahiko du generoen ekoizpena kontsumorako beharrezkoaren berdina edo handiagoa izan beharko duela.

Arrazoi hauek direla medio, komunismo osatua gauzatzeko denbora dezente beharko du eta lortzeko, esplotatzaileen

aurkako borroka amaitzean eta herritar guztiak gizarte berriko langile bihurtutakoan, langileen barnean beste borroka gogor eta luze bat hasiko da gizartearen antolakuntza eredu bikainago baten alde; borroka, kontzientzia handiago baten, laneko diziplina adiskide baten eta kontsumoan berdintasun komunistaren alde.

Orokorrean, berreraikuntza komunista gutxi gorabehera ondorengo ordenan burutu beharko da: lantegien eta enpresen nazionalizazioak ekoizpen instrumentu guztiak langile klasearen eskuetara pasatuz amaitu beharko du. Lan hau amaitzean ekoizpen baliabideen eta garraiobideen (hau da, trenbideen, lurruntzien, etabarren) sozializazioa lortua izango dugu.

Ekoizpen tresnen sozializazioarekin batera (langile bote-re sozialistan eginiko nazionalizazioa da hain zuzen ere benetako sozializazioa) nahitaezkoa da herrialdeko langile indar guztien eta makinaria eta erreserba guztien kontrolik zorrotzema ematea, hala nola, biztanleri guztiaren kontsumorako beharrezko diren produktuen kopuruaren kalkulu bat egitea. Ekoizpenaren neurriak kontsumoaren neurrietara egokituko dira. Industriako adar bakoitzak, herrialde guztian produktu horren kontsumorako dagoen beharraren arabera kalkulaturiko eskari bat jasotzen du eta lanbide honetako langileek eskari hori bete beharko dute, horretarako ahal duten guztia eginez, zeren eskari hau adar eta lanbide ezberdinetan gauzatzearen menpe egongo baita herrialdeko mekanismo industrial zabal eta konplexu guztiaren funtzionamendu egokia. Jarduera industrialaren zuzendaritza Herri Ekonomiaren Sobiet Zentralaren esku egongo da, honek ekoizpeneko sindikatuaren bidez jardungo du eta lantegi bakoitzean lantegi eta enpresa horretako Komitea izango da erakunde honen agentea eta ekoizpenaren zuzendaria. Ez dago ekonomia planifikatu komunista posiblerik ongi antolaturiko estatistika orokor bat gabe eta esku lanaren eta ekoizpen baliabideen banaketarako zuzendaritza zentral bat gabe.

Jarduera industrialaz kontziente den zuzendaritza horri eskerrak, erregimen komunistan ezingo da gain-produkzioirik existitu, ezta honen ondorio tamalgarri diren soberakinen eta bertan ezarritako lanaren alferrik galtzerik ere, erregimen kapitalistan sarritan gertatzen den bezala. Bestalde, ez da posible

izango produktu hauen edo besteen gabezia egotea, izan ere, hauen ekoizpena kontsumoaren gutxi gorabeherako neurritara egokituriko kalkulu baten oinarriaren gainean emango baita. Guzti honi eskerrak, gogoz kontrako langabeziarik ere ez da existituko.

Kapitalismoa, komunismoaren alderantziz, zuzendaritzarik gabeko erregimen ekonomiko bat da.

Ekonomia kapitalistan ekoizpena kontsumora modu erabat espontaneoan egokitzen da. Irabazien irrikaz, fabrikatzailerik produktuen kopuru jakin bat ekoizten dute inolako estimaziorik egin gabe. Merkantzien gain-produkzioa dagoenean, merkatuak hondoa jotzen du, prezioak jaitsi egiten dira. Produktuen gabezia dagoenean, prezioak igo egiten dira eta kapitala irabaziak bilatuz industriaren adar hauetan sartzen da, ekoizpena handitu egiten da, lehen nahikoa ez ziren merkantzien beharra ase egiten da, eta behar baino gehiago asetzen da, izan ere, kapitalaren mekanismo inperfektuak ezin baitu bere lasterketa zoroan behar denean gelditu, eta produktuen gabeziari gain-produkzioak jarraitzen dio.

Egokitzapen metodo hau garestiegi irteten zaio gizateriari, energien gastu antzu ikaragarri bat dakarren heinean. Komunismoan ez da lan kolektiboaren xahutze hau existituko, langile indarrak kontsumo eskariaren arabera banatzeko zerreginean, merkatuaren papera Estatistikaren lanak ordezkatzuko baitu.

Honek esan nahi du gizarte proletarioak lana bere kabuz eta kontzienteki banatzeko duela kide guztien artean eta Estatistikaren Organo Zentralean edukiko duela kapitalismoari falta zitzaion zuzendaritza.

Aurrerago ikusiko dugun moduan anarkismoak, kapitalismoan gertatzen den bezala, gizartea zuzendaritzarik gabe uzteko asmoa du eta ekoizpenaren erregulazio kontzientean eraso bat ikusten du ekoizlearen nortasunaren askatasunaren aurka. Beldur hau nagusi burges txikiaren perspektiban dago erabat funtsatua.

Ez gara komunistak fabriken eta tailerren jabetza komunista ekoizpen baliabideen jabetza pribatua baino justuagoa delako bakarrik. Justizia honek, komunismoak bezala, oso baliogutxi edukiko luke azken honek kapitalismoaren aldean ez

balu ekoizpen indarren garapenean aurrerapauso izugarri bat ekarriko. Esate baterako, langile amerikarrak gizarte kapitalistan, bataz beste zortzi orduko lanarekin komunismoan baino produktu gehiago ekoizten duela suposatzen badugu; kapitalistak jabetzen duen gainbalioaz gain soldatapean komunismoan jasoko lituzkeen baino produktu gehiago jasotzen dituela, orduan komunismoak bizitzaren okerragotze bat suposatuko luke eta ez hobetze bat. Egia esan, komunismoak aukera handiak irekitzen ditu noski lanaren produktibitatea izugarri igotzeko eta, beraz, kapitalismoarekin alderatuz langilearen ondasun sarrerak ikaragarri handitzeko (lan denbora berdinarekin).

Baina produktibitatearen handitze hau batez ere teknikaren perfektzioaren ondorioz lortuko da. Makinak erabiltzean gizakiak ez ditu, adibidez, zuzenean orratzak egiten, baizik eta zeharka ekoizten ditu, lehenago orratzak egiten dituen makina bat fabrikatuz. Makina eraikitzen gastaturiko lana txikiagoa da makinak erabat hondatu arte aurrezten duen lana baino. Honetan datza aurrerapen teknikoaren zentzu guztia; hemen daude, guztiaren gainetik, komunismoan kapitalismoan baino ekoizpen indarren garapen azkarrago bat lortzeko komunisten esperantza guztiak.

Lana aurrezten duen edozein makina asmatzen bada, kapitalistak ez du beti hau ekoizpenean erabiltzen. Enpresariari ez zaio axola makinak lana aurrezten duen edo ez, edo sozialki erabilgarria den; berarentzat auzia makina hau aprobetxatzeak irabaziak ekartzen al dizkion eta, beraz, hau lortzea komeni al zaionera mugatzen da. Ondorioz, gizarte kapitalistan lana aurrezten duten makinek sarritan ez dute aplikaziorik aurkitzen, soldata baxuak daudenez, makina hauek lortzea eta aprobetxatzea ez baita errentagarria irteten.

Ekonomia komunistak bere bidean ez du oztopo hau edukiko. Lana aurrezten duen makina orok aurkituko du aplikazioa eta, orokorrean, modu honetako ekonomian jardueraren erdigunea teknikaren ahalik eta perfektzionamendu handienaren alderantz mugituko da. Milaka milioi gizaki egongo dira honetan interesatuak. Milioika izango dira, eta ez gaur egun bezala tamalez hamarnaka edo ehunka, asmatzeko duten gaitasunarekin beren energia guztiak eginkizun komunari laguntzean

kontzentratuko dituztenak. Emaizta bezala, makinen eta lan tresnen ekoizpena, hau da, ekoizpen baliabideen ekoizpena bideraturiko jarduera ekonomikoak, kapitalismoan oraindik oso zabala eta bereziki garrantzitsua dena, komunismoan bultzada erraldoi bat hartuko du, aurrez inoiz ikusi gabea. Eta are garrantzitsuagoa izango da langileen indarren banaketa justua, modu honetan ekoizpen baliabideen lanketa kontsumo produktuen ekoizpenaren neurriarekin proportzioan gauzatu dadin. Arazo honen konponbidearen zailtasuna oraindik handiago egiten da proportzio hau etengabe aldatzen ari den zifra bat den heinean: beharrezkoa da, momentu jakin bateko kontsumoaren beharrak ez ezik, aldaketaren norabidea eta bere azkartasuna ere kontuan hartzea. Kapitalismoan, merkatuko lehiaren eta prezioen sistemak auzi hau erdizka konpontzen zuen. Estatuko kapitalismoak arazo bera zertxobait hobeto konpontzen du. Komunismoa da urteetako esperientzia praktikokoaren emaitza bezala hau bikain konpondu dezakeen bakarra. Baina anarkistek eginkizun hauek nola ebatziko lituzketen, ezin uler dezakegun zerbait da. Dena den, auzi ekonomiko garrantzitsuenetan eta zailenetan anarkistek duten ganoragabekeria mugagabea hain handia da, ezen auzi hau ez dela bere konplexutasun guztian adierazi ere egiten eta inoiz ez direla honen azterketan interesatu ere egin.³

3. Gure organo ekonomikoek gaur egun ekonomiaren adarren artean proportzionaltasuna ezartzeko egiten dituzten ahalegin guztiek eta ekoizpena plan ekonomiko bakar bat eramateko zailtasunak auzia zein konplikatu den erakusten dute. Urte batez bada ere, aldezturik ekonomiaren adar ezberdinen artean zenbat lan indar eta zenbateko ekoizpen tresnen, erregaien, lehen gaien, etabarren kopurua banatu behar den zehaztea, ez da zaila gure esperientzia munduko historiako lehena delako bakarrik, eta gainera miseriako, suntsiketako eta goseteko egoera izugarri batean garatzen delako bakarrik, baizik eta orokorrean halako ekonomia handian eginkizun konplikatu delako. Mundu mailako ekonomiarentzat arazo hau ere zailagoa izango da. Baina anarkistek ez dute arazoaren konplexutasuna ikusten, ez daude auzi hau sakonki ikertzeko prest, benetan infantila den ezjakintasun eta axolagabekeria egoera batean geratzen dira. Suposatu behar dugu axolagabekeria hau, anarkista bakar batek ere ez duelako serioki praktikan “ekonomiaren sistema anarkiko” baten aukera planteatzen eta ez delako teorikoki zoritxar honetarako prestatzen dela. Denbora luzea da jada gure organo ekonomikoetan lan egiten duten anarkosindikalistek plan bakar bat gabe, ekonomiaren organo zentral bat gabe eta, trantsiziozko garaian, inposaketarik gabe ekoizpena antolatzearen inguruko fantasiak alde batera utzi zituztela. (Idazlearen Oharra)

Nekazal ekonomiari dagokionean, landan komunismora igarotzea modu honetan ikusten dugu:

Proletalgoak boterea konkistatzen duen momentuan lurrraren jabetza pribatu handia eta ertaina nagusi den herrialdeetan, nekazal ekonomia antolatzea ez da hiriko industria handia antolatzea baino zailagoa izango. Nekazaritza komunistarako igarobidea askoz konplikatuagoa izango da nekazal ekonomia txikiko herrialdeetan, Errusia bera bezala, batez ere nekazal ekonomia txikikoak diren herrialdeetan.

Lehen momentu batean, nekazaritza sozialista Estatuaren lurretan bakarrik egongo da eta hemen Estatu proletarioaren zuzendaritzan lan egingo da; suntsituak eta zatituak izan ez diren eta hasiera batetik sobieten kontrolpean egon diren lurretan eta, azkenik, Errusian ugaritu egin diren komunek eta kolektiboek lantzen dituzten lurretan. Ondoren, nekazal ekonomia sozialistak, jada bere kabuz nekazal ekonomia independentea baino askoz onuragarriagoa izanik, urtez urte landan arrakasta lortuko du langile gobernuaren babes boteretsuarekin. Lurra komun bitartez lantzeak, agronomo sobietarren zuzendaritzan, makina perfektzionatuen, ongarrrien eta ekonomia sistemen aplikazioarekin, ekonomia indibidualarekin alderatuz lan gutxiago egitea eta gehiago jasotzea esan nahiko du.

Komuna eta kolektiboen kopurua handitzen den heinean, 1921. urtean 15.000koa izanik, ekonomia kolektibora pasatzen diren herrien kopurua ere handituz joango da. Ekonomia pribatuko sozietateak beste bide batzuetatik ekonomia kolektibora gerturatuko dira, esate baterako, landaren sektore berezi bat hazi kolektiboen ereiterako egokituz; lur eremu hau hazirik hoberenekin erein beharko da eta modu honetan herri guztiarentzat kalitate hobeagoko haziak lortuko dira, lur guztiaren errendimendua igoz. Norabide berean jokatu du gaur egun praktikan jarria dagoen prozedurak, oinarrian haziak depositu kolektiboetan gordetzea, gobernuaren laguntzarekin hauek hautatu eta perfektzionatzea, hala nola, labore jakin batzuekin eremu jakin baten derrigorrezko ereintza planifikatua dela.

Herriei makinak ematean kolektibizazioari laguntzen zaio, makina hauek ez badira jabetza pribatu moduan entregatzen, erabilera komunerako alokairuzko sasoien bidez baizik; izan

ere, bide honekin soilik da posible, herrialdean dagoen makin-
nen gabezia egon arren, ahalik eta lurjabe gehien asetzeari. Ne-
kazal ekonomiari utzitako traktoreen kopurua handitzeak ere
ereindako lurren partzela kontaezinen desegitea erraztu egin
behar du, ereintza komunaren alde. Hein batean, ez da baz-
tertzen ekonomia kolektiborako igarobidea ondorengo moduan
ematea: Gizarteak ereintza komuna, haziei bideraturiko part-
zela komun batean ez ezik, Estatuaren ereintzetara bideratu-
riko partzela batean ere ezarriko du eta partzela honek gai
izan beharko luke lehenago nekazariei Hornikuntzen Herri
Komisaritzaren bitartez nekazal ekonomiaren soberakinen
moduan konfiskatzen zitzaiena eta gaur egun zerga bakar mo-
duan arbitratua izango dena emateko. Honela, helburu berdi-
nera daramaten bide ezberdinetatik, eskualde bakoitzean erri-
mo ezberdinetan, nekazal ekonomia lurraren laborantza ko-
munera pasako da pixkanaka. Laborantza sozialistaren onurek
praktikan beren gorentasuna erakusten dutenean, ergel ba-
tzuk bakarrik geldituko dira lasaitasunez beren partzela txiki
independenteetan. Herri bakoitza ekonomia kolektiboko zelu-
la bat bihurtuko da, organo ekonomikoekin egin beharreko tra-
mite guztiak Komuna osoak egin beharko dituelarik eta ez
jabe bakoitzak.

Horrela gauzatuko da pixkanaka herrixkan lurraren la-
borantza komunistarako igarotzea; herri bakoitzaren lur ja-
betzen mugak ezabatu egingo dira eta nekazal lurzoru guztia
agronomiaren eskaera zientifikoen arabera banandu eta lan-
duko da. Honela, herrietako komuna isolatuak komuna neka-
zari handi batean elkartuko dira eta hirietako komuna indus-
trialarekin batera osotasun bateratu bat eratuko dute.

Industriaren eta nekazaritzaren arteko langile indarren
banaketak ere estatistikan oinarrituriko eta kontzienteki lan-
duriko plan baten eskakizunak ase beharko ditu: langileen
talde jakin batzuk ezingo dute espontaneoki nekazaritzaz ar-
duratu bertan jada gehiegizko eskulan bat dagoenean, eta al-
derantziz. Hau ez da tokia, ekonomia komunistan industriako
eta nekazaritzako lana gauzatzeko txandak nola zehaztu ahal-
ko diren xehetasunetan sartzeko. Gauza bat bai garrantzitsua
dela: langileen indarrak plan zehatz baten arabera banatuko
dira. Noski, beti edukiko dira kontuan langileen nahiak, dituzten

zaletasunen arabera aukeratuko dutelarik lana. Baina nahi pertsonala banaketa plan zehatz batekin talka egitera iristen bada, desira pertsonalak eman beharko du amore eta ez milioika pertsonak ekoizpenak normal jarrai dezan duten interesak.

Hau izango da ekoizpenaren antolakuntza erregimen komunistan. Banaketari dagokionean, hau ekoizpenaren izaeraren menpe egongo da eta, komunismo osatugabe batetatik abiatuz, komunismo absolutu eta eztabaidaezinean amaituko da, honi buruz geroago hitz egingo dugularik. Ikus dezagun orain zein erregimen ekonomikorako joera duen anarkismoak.

Beste ezer baino lehen beharrezkoa da kontuan hartzea, literatura sozialistan sozialismoaren eta komunismoaren helburuak aspaldi azalduak izan diren bitartean, ezin dugula berdina esan anarkismoaren helburuei buruz. Eremu honetan, beraien artean “iritzien askatasunik osoena” dago. Burges motako anarkista indibidualistak daude, anarkista komunistak, anarkista sindikalistak, besterik gabe anarkistak direnak, etabar. Korrante hauetako bakoitza ez dator bat bestearrekin berreraikuntza ekonomiko mota ideala ulertzeko moduan. Badaude “antolakuntza ekonomiko” adierazpena bera higuinagarria egiten zaien anarkista taldeak, inposaketa, diziplina, edo behintzat askatasun pertsonalaren mugatze bata edo bestea gogorazten baitie. Beste batzuk, anarkista sindikalisten moduan, ez diote beldurrik “antolakuntza” hitzari eta, aldiz, gizartearen eraikuntza ekonomikoan soilik anarkismoak ziurtatzen duela antolakuntzarik gorenena eta solidoen uste dute. Anarkisten artean gizartearen berreraikuntza ekonomikoaren auziaren inguruan hainbeste ezadostasun daudela ikusirik, hauen arrazanamenduen eta teorien orokorrean bakarrik seinalatuko dugu, honen inguruan talde guztiak ados baitaude. Anarkistek estatu botere oro, baita proletarioa ere, ukatzean ez dute defendatzen ekoizpen baliabideak orokorrean langile guztiei ematea, anaiarteko isolatuei, taldeei edo langileen kolektiboek baizik. Honela beraz, anarkistak ekoizpena langileek hautaturiko erdigune ekonomiko berezi baten bidez erregulatzearen aurka agertzen dira, erdigune hau hainbeste gorrotatzen duten Estatuarekin identifikatzen baitute. Anarkistak, kolektibo komunek beraien produktuak elkar trukatzearen eta elkarren arteko erlazioak orokorrean

bata bestearekin alde z aurretik iritsiriko akordio batekin ezartzearen alde agertzen dira. Langilea modu aske batean sartzen da kolektiboan eta hau askea da beste kolektiboekin batasun bat hitzartzeko ere. Lan indarraren banaketa justuari, adar bakoitzeko ekoizpenaren dimentsioak kontsumoaren neurriei egokitzeari, etabarri buruzko garrantzia biziko hainbat auziei dagokionean, hauen guztien inguruan, anarkistek, beren gehiengo zabalean, bat egiten dute erantzunean: “suntsi dezagun lehenik kapitalismoa, eta gero bizitzak berak erakutsiko digu zer egin behar dugun”.

Hori dela eta, gizartea oinarri anarkisten gainean antolatzeak ezinbestean ekarriko lituzkeen ondorioak aztertu behar ditugu, antolakuntza hau kapitalismoa suntsitu ahala burutuko litzakeen heinean. Anarkistek saihestu egin nahi dituzte “bizitzak berak erakutsiko digu zer egin behar dugun” esaldiak konpontzen ez dituen arazoak. Errusian “bizitzak berak” zer erakutsi digun aztertu behar dugu, anarkisten idealak errealitatean zein modutan gauzatzen diren, ideal hauetatik zer geratzen den.

Has gaitezen anarkistekin dugun ezadostasun funtsezkoenarekin: zeinenak izan behar dute eta zein aginteren buruzagitzan egon behar dute kapitalistei desjabeturiko fabrikak eta, orokorrean, ekoizpen baliabide guztiak. Guk diogu: ekoizpen baliabide guztiak lan egiten duten guztien, gizarte komunista-ko langile guztien eskura eta jabetzan egon behar dute.

Petrogradoko Putilov lantegia, esate baterako, ez da bertan momentu jakin batean lan egiten duten milaka langileena; ezta bi hamarkadetan zehar eraiki zuten ehunka milakadena ere, baizik eta herrialde guztiko langileena da. Aldiz, Putilov fabrikako langile bakoitzak, Ivanovo-Voznessenskeko lantegien, Cheremjoveko ikatz mehatzeen, Lenako urre mehatzeen eta Errepublikako ekoizpen baliabide guztien jabe dela jakin eta sentitu behar du. Lan tresnak denenak dira orokorrean eta inorenak ez partikularrean: hona hemen benetako komunismoa. Baina lantegi guztien jabetza langile klase osoarena dela esaldi huts bat baino zerbait gehiago izan dadin, langileek ekonomiaren administrazioarako organo bereziak hautatu behar dituzte, izan sobieten atalak edo izan langileek bereziki hautaturiko herri ekonomiaren sobietak. Zentro ekonomiko

panerrusiar honek izan behar du herrialdeko ekoizpen baliabide guztiak eta langile indar guztiak eskura edukitzeko eskubide gorenarekin jaso behar duena. Enpresa bakoitzeko langile bakoitzak, lantegi eta tailer bakoitzeko komiteak, bere burua langile klase osoaren apoderatu edo agente bezala sentitu behar du, enpresa jakin horren ardura emana izan zaion agente bezala. Zentro ekonomiko panerrusiarrek administrazio orokorrerako eskubidea eduki behar du, langileen gehiengoaren interesak asetzen ez baditu derrigorrez karguz kendua izan beharko duelarik.

Aldiz, anarkistek lantegi, tailer, etabar bakoitzak komuna independente berezi bat osatu behar duela defendatzen dute. Komuna isolatu honetan lan egiten dutenak izango dira bere benetako jabeak. Gainerakoen adostasuna badago komunaren sar zaitzake. Komuna bat bestearekin batzeko bi aldeak akordioa eskatzen da. Praktikan, honek esan nahi duena langile guztiek ekoizpen baliabideengan duten jabetza desagitea (jabetzaz hitz egin badaiteke behintzat), lanaren baliabide guztiak kolektiboki eskura edukitzeko eskubidea pusketetan zatitzea eta langile guztien borondatearen aurka lan baliabide guztien antolamenduari oztopo bat ezartzea da. Enpresa bakoitzeko langileak beren enpresako jabe sentitzen hasiko dira eta, berez, burges txiki bihurtuko dira. Anarkismoa praktikan kapitalistarekin gabeko kapitalismo bat izango da, eta enpresa bakoitzak ehun eta mila jabe izango ditu bakar bat beharrean, baina ez da herrialdeko langile klase guztiarena izango.

Zentzu honetan, anarkismoaren teoria honek ez ditu desagiten langileak gizarte burgesetik heredatzen dituen jabetza pribatuaren sentimendu burges txiki guztiak, alderantziz baizik, indartu egiten ditu. Esanguratsua da, Urriko iraultzaren lehen hilabeteetan, enpresen administrazio gorenaren organo zentral eta herrialdekoen bidez langile klase guztiarengana pasatzearen aurka zuzenduriko anarkisten kontsignen atzean, hain zuzen ere kontzientzia gutxien zuten langile taldeak egotea.

“Gu bakarrik gara nagusiak” hitzekin, langile inkontzientek kanpotik etorritako beste langileak ez onartzeko ahalmena dutela ulertzen dute; edozein arrazoiengatik hauen etorrera ez bazaie komeni, herrialde guztiko langileentzat kaltegarria den modu batean jokatu dezakete; lanaren murrizte bat sortzen

bada, bertakoak ez diren langileak kanporatu ditzakete, nahiz eta hauek gero lanik ezin lortu eta dagoen lana denen artean forma berdin batean banatua izan daitekeen arren.

Enpresa isolatu bakoitzaren agintea guztiz enpresa horretako langileei pasatzearen kontsigna anarkista praktikan gauzatzeak, langile klase bakarra burges txikien talde eta kolektiboetan zatitzea ekarriko luke ondorio gisa, langileen lerroetan barreneko borroka bat piztuz. Ikus dezagun zein ondoriotarantz eramango lukeen ekonomian sistema anarkista sartzeak.

Suposa dezagun enpresa bakoitzak, herri bakoitzak, komuna anarkiko erabat independentea osatzen duela. Komuna bakoitzak nahi duenean, nahi duen bezala eta nahi duen adina lan egiten du. Galde daiteke: nola burutuko da langile indarren eta ekoizpen baliabideen banaketa horrelako ekonomia “sistema” batekin? Ikusi dugu nola kapitalismoa, nekez eta indarren xahutze handiaz bada ere, hau lortzen ahalegintzen den; nola komunismoan helburu berdina askoz erraztasun handiagoarekin eta gastu gutxiagorekin lortuko den. Ekonomia anarkistarekin ez. Har dezagun adibide txiki bat. Suposa dezagun ikatzaren kontsumoa, industriaren garapena dela eta, bere erauzketa baino azkarrago hazten dela. Ekonomia kapitalistan, batzuetan behar dena baino beranduago bada ere, aldezturik ezagutu ahalko da, merkatuan prezioak bat batean igotzen hasiko baitira, enpresa ikazkinen akzioen bilakaera igo egingo delarik. Ikatzaaren industriara bideratuko den kapitalak handiagotu egingo du erauztea edo bestela ikatz hori atzerrian erosteko modua aurkituko du. Erregimen komunistan zehar, kontrol orokorraren bidez, ikatzaren gabeziaren aukera aldezturik ezaguna izango da eta prebentzio neurriak erregimen kapitalistan baino askoz azkarrago hartu ahalko dira. Zer gertatuko da ordea komuna isolatuaren administrazio anarkikoarekin?

Ikatzaaren falta labeei zer bota ez dagoenean ohartuko dela gertatuko da. Ondorio gisa ikatza erabiltzen duten enpresak gelditu egingo dira eta orduan norbaitek ikatzaren industria handitzeaz arduratu beharko du. Baina handiagotze hau mehatxe berriak zabalduz bakarrik bada posible, eta horretarako beharrezkoak badira tresna egokiak eta pertsonal teknikoa eta langilea, ondorengo galdera sortzen da: zein erakunde

egongo dira arazoaz arduratzeko moduan, anarkismoak erakunde hauek existitzeko aukera onartzen badu behintzat?

Kaos berdina existituko da gainerako lanaren adar guztietan. Gain-produkzioa, langabezia behartuarekin batera, ekonomia anarkikoaren betiereko patua izango litzateke. Anarkismoak bi irtenbide posible bakarrik edukiko lituzke ekonomia guztiaren erabateko erlaxamenduaren eta gastu ez produktiboan egindako indarren xahutzearen aurrean: edo betirako merkataritzaren ekonomia eta merkaturua mantentzea, hau da, komuna bakoitzak bere ekoizpena merkaturuan saltzea eta bertan behar duena erostea; edo bestela herrialde guztiko lan indarraren, beharren eta erreserben kontrola onartzea; organo zentralak eta tokian tokikoek ekonomia eta indar eta tresnen banaketa zuzendu dezaten, ez norbanakoen eta komuna isolatuen nahiaren arabera, industria orokorraren interesen arabera baizik. Ezin daiteke beste irtenbiderik egon.

Badaude anarkistak, komuna isolatuen askatasuna barbesteko saiakeran (askatasun hau gerora inposaketa oro baina okerragoa gertatuko litzateke), ez daudenak merkatu ekonomia mantentzearen aurka. Zentzu honetan, Proudhon burges txikiaren ikasleak dira. Beste batzuk, anarkosindikalistek eta anarkokomunistek bezala, sozialistetatik zerbait ikasi zuteenez, ez diote beldurrik kontrol hitzari, honen aldekoak dira kontrol hau sindikatu profesionalek gauzatzen badute, zeintzuk elkarren artean adostu behar duten lanbide bakoitzean ekoitzi beharreko produktuen kopurua.

Noski hau aurrerapauso handi bat dela. Baina pauso honek ez du inolako zentzurik ez badu hurrengoaren ematen.

Dena den, guztiz berdin da zeinek burutzen duen ekoizpenerako ezinbestekoa den beharrezko produktu kopuruaren, kontsumoaren neurrien, erreserben kontrolaren, etabarren kontrola. Auziaren gakoa kontrola zergatik egin behar den jakitean datza. Kontrola ekonomia politikoko edozein irakasleri koadro estatistikoei gogobetetzeko bakarrik ezarri behar balitzateke, ez luke merezi eginkizun hau burutzeak. Kontrola ezinbestekoa da batez ere lan indarren banaketa antolatu batentzat.

Hala ere, banaketa antolatuak ez luke beti borondatezko banaketa esan nahiko, eta auzi honek asko arduratzen ditu anarkistak. Ezbairik gabe, langileen zati bat lanbideetan alde

batetik bere gustuen arabera eta bestetik gizartearekiko bete-beharraren sentimenduz banatuko dira, baina beste zati bat honetara derrigortu beharko da lanaren diziplina aplikatuz.

Ezinezkoa da inposaketa jakin baten ezarpena saihestea. Eskulan falta dagoen adarretako langileei eskulana soberan dagoen lanbideetako langileen aldean produktu gehiago emango balitzaizkie, guztiz egingarria litzakeen zerbait, errealitatean banaketaren desberdintasuna bultzatzea esan nahiko luke, batzuk besteen kontura erostea, modu batean, interes orokorren kontzientzia ez edukitzeari eta ez ulertzeari emandako sari bat izango litzateke.

Honela, ekoizpenaren eremuan anarkistak arazo konponezin baten aurrean aurkitzen dira: edo alde batetik komuna isolatuen arteko komertzioaren askatasuna, edo beraiek modu sotil batean esaten duten bezala, “borondatezko akordioa” (saleroketa ere borondatezko akordio bat da) eskulanaren banaketa kapitalismoaren bide berdinetik lortua izan daitekeen kasuan, eta orduan, behera berdintasun oro eta gora Proudhonek hainbeste grinekin defendatzen zuen konpetentzia askatasuna; edo bestetik ekoizpenaren kontrola herrialde bakoitzean eta ondoren mundu mailan, eta orduan, behera baroien gazteluen eta Erdi Aroko korporazioen moduko komuna independenteak, behera banaketa antolatua inguruko beldur oro nahiz eta hau batzuetan eta lehen momentu batean inposaketaren bidez izan, behera askatasun pertsonala denen benetako askatasunarentzat oztopo denean. Baina honek ere zera esan nahi du: behera anarkismoa, hau defendatu dutenek orain arte ulertu duten moduan.

Enpresa banakoak komuna anarkista aske eta independente bihurtzea eta ekonomia guztia zatikatzea atzerapauso ikaragarri bat izango litzateke eta benetako utopia erreakzionario bat suposatuko luke, baita kapitalismo garatuaren ikuspuntutik ere, batez ere zentralizaturiko trust boteretsuen garai-ko kapitalismoaren ikuspuntutik. Alderantziz, sozialismoaren eginkizuna eta bere paper aurrerakoa ez datza ekoizpen handi zentralizatua ahultzean, hau indartu eta perfektionatzean baizik eta ekonomia mundial bakar bat antolatzean, kapitalismoak ez baitu emaitza hau eskuratu, herrialde ezberdinen barnean zentralizazio handi bat bakarrik lortu duelarik. Komuna

askeen eta independenteen inguruko fantasia anarkistek duten absurdo eta atzerakoikeria bere handitasun guztian nabarmentzen da gure mendea, joan den mendeari kontrajarriz, ez dela lurrunaren garaia elektrizitatearena bezain beste hausnartzen badugu. Nahikoa da Errusian, Sobieten VIII. kongresuaren onarpenaren ostean, botere sobietarrak hartu duen elektrifikazio plana aintzat hartzea komuna produktibo independenteak sortzeko anarkisten esperantzen antzutasun guztia agerian uzteko. Akaso posible izango al litzateke Frantzia baino bi aldiz handiagoa den lurralde baten sektore guztiari energia ematen dion eta lurraldeko industria guztia (eta gero nekazaritza) batasun oso batean eraldatzen duen barrutiko elektrizitate fabrika ikaragarri bat ekoizpen isolaturiko komuna anarkikoen artean banatzea? Akaso zatitu al daitezke barrutiak makinaren instalazio elektrikoek jasotzen duten erregaiaren arabera, beste barrutietatik datorren burdinaren arabera, ekonomikoki loturik baldin badaude eta plan ekonomiko jakin baten arabera lan egiten badute? Nahikoa da Majno eta bere koadrila Errusiaren elektrifikazioaren eginkizunaren aurrean jarrita irudikatzeari, hau pentsatze hutsak barrea algarak eragiteko.

Bere garaian, Kropotkinen asko idazten zuen jada aldi kapitalistan zati isolatuen artean administrazio zentralizatuarekin zerikusirik ez duten lotura zientifiko ekonomikoak ezartzen direnari buruz; adibidez, posta internazionala, telegrafoa, garraiobide sozietate internazionalen bidezko bidaiariaren garraioa, zentro zientifikoak, etabar. Modu honetan ekonomia anarkista argi eta garbi erlazio kapitalistetan bihurtzen da. Historiak modu anker batean egin dio barre Kropotkini. Mundu Gerrak lotura ahul hauek guztiak apurtu zituen, eta Kropotkin bera, Juan Grave eta beste hainbat anarkista nabarmen gerran zeuden koadrila kapitalistetako baten alde jarri ziren.⁴

Geroago, Errusian hasiriko iraultza sozialistak munduko kontrairaultzaren aurka arrakastaz borrokatzeko, Estatu gogor

4. Justiziak eskatzen digu hemen azpimarratu dezagun, anarkismoaren zuzendarien traizioak gerran zehar modu ireki batean gerra inperialistaren aurkako jarrerari hartu zuten anarkisten aldetik, gehienbat langileak zirenak, gaitzespen gogorra jaso zuela. Bereziki Kropotkin, hil baino zertxobait lehenago, Alderdi Komunistak kapitalaren boteretik lanaren benetako askapenerako eginkizunean zuen meritua handiaz konbentzitu zen. (Idazlearen oharra)

bat eta armada ausart eta diziplinatu bat ez ezik, ekoizpenaren administrazioarako aparatu zentralizatu bat ere beharrezkoa dela erakutsi zuen, mota guztietako “komuna libreak”, hala nola, kontsumorako produktuen eta beharrezko ekoizpen instrumentuen sistema gabeko banaketa anarkista alde batera baztertuz.

Honela, arlo politikoan ez ezik, arlo ekonomikoan ere, iraultza anarkistak irudikatzen zutenaren erabat aurkakoa zen norabide batean garatu zen.

Erregimen kapitalistan irabazi sozialen, hau da, herrialde jakin batean lanak sorturiko balorezko gauza guztien banaketa, ororen gainetik klase agintarien apetituak asetzero egokitzen da. Orokorrean, klase gizarte guztietan, ekoizpenaren buruzagitzan dauden eta gobernu boterea duten talde sozialak produktu sozialaren ahalik eta kopuru handienaz jabetzen dira, balore mota guztien sorkuntzarako oinarri nagusia den langile klase zapalduen diru sarrerak biziraupen maila batean mantentzen dituzten bitartean. Klaseko gizarte guztietan, irabazi nazionalaren banaketa lehenik eta behin ezberdintasunean oinarritzen da. Banaketa hau kaotikoa eta berezkoa da. Klase bakoitzak, beste klaseen aurkako borroka anker eta tinko baten ondoren, sortutako baloreen batura komunetik ateratzea lortzen duen hura jasotzen du, azken banaketa borrokalarien arteko indarren korrelazioen baitan egoten delarik. Klase bat zenbat eta indartsuago antolatuturik egon eta gobernu aparatua lortzetik zenbat eta gertuago egon, orduan eta handiagoa izaten da beretzat ateratzea lortzen duen irabazi nazionalen zatia.

Gizarte kapitalistan, Estatuko diru sarreren banaketa klaseen arteko borrokari ez ezik, klase baten barneko borrokari ere loturik dago. Kapitalista enpresarien klaseak ez du langileen soldaten igotze orokorraren aurka bakarrik borrokatzen, fabrikatzaile isolatu bakoitzak bestea hondoratzeko joera du bere merkatuaren lehia desesperatuan. Trusten erakundeak, sindikatuek eta mundu gerra garaian hain arrakasta handiak eduki zituen gobernuko kapitalismoak, jada irabazi nazionalen banaketa forma berrietarantzko eta antolatuagoetarantzko pausoak adierazten dituzte. Lan merkatuaren kontrol zentralizatuak eta soldaten tarifiket esku lanaren trafikatzailen banaketa

antolakuntza jakin bat dakarte. Komunismoa ez da banaketa-ko berdintasuna bakarrik izango, hau klaseen desegiteari eta denak eskubide berdinak dituzten langile bihurtzeari loturik egonik, kolektibotasunaren irabazien banaketa kontziente eta antolatua ere izango da; ez biolentziaren bidezko banaketa iraganean gertatzen zen bezala, erabat ezberdinak diren printzipioetan oinarritua baizik.

Produktu kolektiboaren banaketa justuena bakoitzaren lanaren proportzionala izango litzakeena dela ematen du.

Suposa dezagun langileak eguneko zortzi ordu lan egiten duela eta jasotzeko eskubidea duen produktuak egitea ere zortzi orduko lana kostatzen dela. Langile bakoitzak, lan kopuru jakin bategatik, dagokion produktuen kopurua hartzeko eskubidea du gizarteko biltegietatik.

Baina banaketa modu hori, egia esan, oraindik urrun dago benetako komunismotik. Hemen bakoitzak entregatu duena jasotzen du, eman zuen lan kopuru berdina jasotzen du, nahiz eta beste itxura batean.

Hau ez da oraindik komunismoa, norberarena defendatzeko eta kolektibotik banantzeko ohitura burges txikiaren hondarra baizik. Pertsonak ez dira berdinak jaiotzen indarretan eta gaitasunetan. Batentzat zortzi orduko lanaldia arinagoa izango da beste batentzat baino. Batek gehiago kontsumitu behar du, besteak gutxiago. Bata ezkondurik dago, bestea ezkongabe⁵. Honela, kontsumoko produktuak lanorduen arabera bakarrik banatuko lirateke, langilearen beharren neurrien eta indar fisikoaren inguruko baldintza garrantzitsuak kontuan hartu gabe.

Are bidegabeagoa da produktuak langile bakoitzak egin-dako kopuruaren arabera banatzeko prozedura. Hemen argiago agertzen dira naturatik jasotako gaitasun ezberdinak, desberdintasuna nahiko handia izango da eta banaketa komunista oraindik eta denbora luzeagoz atzeratuko da.

Banaketa justua eta komunista, kide bakoitzak gizartetik dauden produktuetatik bere beharren araberrako kantitatea jasotzea da, eta kopuru mugatuko produktu horiek zati

5. Familiari erreferentzia egiteak haurren hezkuntza eta mantenua guztiz gizartearen kontura hartu ez diren bitartean bakarrik dauka zentzua.

berdinetan banatzea, zenbat lan egin duen eta ekoiztu duen aintzat hartu gabe.

Bakoitzak lana bere indarrak eta gaitasunak baimentzen dien bezain beste egin behar du, nekeak jo gabe baina ezta herri ekonomiako Sobiet zentralaren (edo beste erakunde balio-kide baten) estatistikan bataz bestez ezarritako minimoaren azpitik lan eginez ere, zeren maila honen azpitik lan egiteak herri ekonomiaren krisi baten eta kontsumoko produktuen gabeziaren aukera suposa bailezake. Baina langilea hitzarturiko arauaren gainetik lan egindako orduak zehatz-mehatz kontatzen gelditzen ez denean, berehala izango da posible araura iristeko falta diren orduak kontatzeari ere uztea, hau da, orokorrean bakoitzaren lanorduek kontatzeaz utzi ahaliko da. Eta honek bakoitzak gizarteari lana bere indarraren eta gaitasunaren arabera emango diola esan nahiko du. Indar eta gaitasun hauen kopuruan sakrifiziorako sentimendua eta gizarteari ahalik eta erabilgarritasun handiena eskaintzeko nahia sartuko dira, hitz batean, gizakiaren sen sozial hoberenak, gizarte komunistarekin bakarrik egongo direlarik bere osotasunean agertzeko moduan.

Honela beraz, iraganean artisau batek, esate baterako, bi boten fabrikazioa amaitu ondoren bere produktuarekin kontaktua galtzen ez zuen bezala, aitzitik, orduan hasten zen hain zuzen ere kalkulatzeko: “Zenbat lan jarri dut bota pare hauetan eta zenbat lortuko dut hauengatik jasotzea”. Gizarte komunistako langileak, aldiz, bere lanaren produktuarekin lotura oro galtzen du behin hau burutu ondoren. Jada ekoizpen kapitalista handian zehar langile batek, esate baterako, lokomotora baten edozein zati txiki egiten duenean posible da lokomotora amaitua inoiz ez ikustea. Langile ez kualifikatuek eta soldatapeko langileek normalean oraindik eta aukera gutxiago dute bere lanaren fruituak ikusteko eta sentitzeko. Lanaren aztarna, proletarioaren laneko koadernoan edo langileburuaren koadernoan geratzen da. Hala eta guztiz ere, lan kopuruaren aztarna geratu egiten da. Kopuru honetatik dagokion eskubideak osatzen du langilearen jabetza, bere lanaren zati bat da eta honen truke produktu jakin batzuk jasoko ditu. Aldiz, komunismo osatuan aztarna hau desagertu egingo da. Langileak bere lana, nolabait esatearren, berea ez den edukinontzi komun

batean ezartzen du. Edukinontziaren beste aldean, langileak beste ate bat irekitzen du bertatik behar dituen produktu guztiak hartuz. Milioiek beren lana entregatuko dute, milioiek beren beharren arabera kontsumituko dute eta ez dira geratuko pentsatzen ea baten batek gehiago entregatu ote zuen eta gutxiago hartzen duen edota produktu gutxiago sortu zituen eta gehiago kontsumitzen duen.

Irakurleak esan dezake: “hau guztia miresgarria da, baina gu gaur egun benetako komunismotik oso urrun gaude. Akaso beharrezkoa al da jada banaketa goi mailako printzipio komunisten arabera antolatzea?” Ez, erantzungo dugu. Benetako komunismorako eskubidea ezin daiteke dekretu bidez ezarri, ezinbestekoa da hura merezi izatea, haraino ailegatzea. Eta noski, komunismo osatua gauzatzeko momentura iritsi arte, gizateriak aurrez nahiko luzea den bide batetik pasa beharko du. Erlazio burgesen deuseztapen osoa eman ez den bitartean, ekonomia komunistaren eraikuntzaren amaiera oraindik ere oso urrun dagoen bitartean, jabetzaren gainean mendeetako hezkuntzaren produktu diren ohitura burges ugari eta ongi errotuak existitzen badira, baita langile klasearen lerroetan ere, banaketa posible bakarra lortutako garapen mailarekin bat etortzen dena da. Aldi hau gainetik saltatzea ezinezkoa da, bertatik igaro behar da gero koska bat gorago igo ahal izateko. Eta guk, behin ekoizpenaren arloan gauzak benetako bide komunisten gainean kokatu direnean, banaketa hau bigarren mailako zerbait izango dela uste dugu. Alde batetik bizitzaren esperientziari esker, eta bestetik ekoizpen indarren hazkuntza azkarraren eta ekoizpenaren soberakin bat egoteari esker, banaketa komunista dudarik gabe gauzagarria izango da.

Egungo momentuan, langileak ez diren klaseak deseginak izanik ere, ez genuke banaketa komunista edukiko, alderantziz baizik, oraindik ere klase arteko borroka baten aurrean geundeke, langile eta nekazarien artean ondasun nazionalen zati handiena lortzeko borroka baten aurrean, hau da, langileen beraien arteko borroka baten aurrean. Ez *kulaka* bakarrik, irina eta beste produktuak ahalik eta garestien saltzen saiatzen den nekazari eroso sinplea ere ogiaren monopolioaren etsaia da, Estatuaren organoek bere ekonomia kontrolatzearen aurka dago, ez dio Estatuari borondatez bere ekoizpenaren

soberakina emango, nahiz eta hauei eskerrak dagoen botere sobietarra hirietako langileak eta armada gorria elikatzeko eta pixkanaka suntsituriko industria berrezartzeko moduan. Nekazari inkontzienteak banaketa komunista, komunistek indarraren bidez herrietako ogi soberakina kentzea eta trukean hirietako produktuak askoz merkeago entregatzea dela pentsatzen du. Kontua, noski, ezberdina da. Egungo banaketa Estatu proletario pobre baten banaketa da, ekonomia hondamenditik salbatzen duena eta nekazariei ogi soberakinak eta beste produktuak maileguan hartzera behartua egon zena. Gaur egun, neurri baxuagoan, zerga bakarra jasotzen du industria konpontzeko eta azkenik, nekazariari behar dituen produktu industrial guztiak behar adinako kantitatean hartzeko aukera ematen dio. Egungo banaketa kapitalismotik komunismorako trantsizio aldiko banaketa da. Banaketa hau perfektionatuz joango da ekonomia sozialistaren arrakastekin batera eta bere garapenean hainbat faseetatik pasako da, hiriaren eta landaren arteko merkantzien elkar trukeko aldia barne. Neurri handian nekazal ekonomiaren soberakinak mailegu moduan biltzetik hasiz, gero zerga bakarrera eta merkantzien elkar trukatzeko partzialera igaroaz, Estatu sobietarrak, behin industria berreraikitakoan, landari, lehenik eta behin, beharrezkoen zaizkion produktuak emango dizkio eta gero beste guztia. Aldi berean, nekazal ekonomia bera forma kolektibotara pasako da, herri ekonomia mundialaren sistema orokorrean sartuaz. Nekazariak banaketa komunista zertan datzan jakin nahi badu, ondorengo azalpen hau jaso beharko du: lurra komunitatean besteekin batera lantzen duzunean eta ez duzunean uzta zatitzen, baizik eta bere zati bat zure komunari eta gainontzekoa gizarte guztiari ematen diozunean, zure herrixkako kontsumo biltegitik, hala nola hiritik, dirurik gabe behar dituzun produktu guztiak behar adinako kantitatean jasotzen dituzunean, orduan egongo da benetako banaketa komunista.

Proletalgoaren artean ere, egungo banaketa prozedura benetako komunismoa izatetik oso urrun dago. Gure pobrezia ikaragarria dela eta, nahiz eta lan berdinagatik ordainsari berdina ezartzeko gogoia eduki, momentuz beharturik gaudede beste lantegi eta tailer batzuetako langileei baino enpresa

garrantzitsuenetako langileei produktu gehiago ematera, enpresa hauen baitan baitago herrialdeko industria guztiaren salbazioa. Neurri hau behin behinekoa eta ankerra da, baina ezinbestekoa. Modu berean, lanaren produktibitatea igotzeko, diru eta produktuen sarien sistema ezarri dugu, eta produkzio batzuetan somarako ordainketa ere bai. Errepublika Sobietarra beharturik dago hau egitera miseriagatik eta honekin epe motzean amaitzeko beharragatik, gero banaketa justuago, komunistago, batera pasa ahal izateko. Espezialistei eta pribilegiatu batzuei, Errepublika Sobietarrarentzat beren lanak baliorezia duen langile arduratsuenei emandako ordainsari handiagoa ere behin behineko neurria da.

Honela beraz, gaur egun oso urrun gaude benetako banaketa komunistak batetatik. Hara iristeko dugun bidean, lehenik eta behin gizarte burgesetik mantentzen diren norberaren lanak eman gabeko irabazien iturriak suntsitu behar ditugu, iraganeko klase pribilegiatuei lan egiteko obligazioa ezarri. Gero, nahitaezkoa da nagusi txikia gizarte sozialistako langile bihurtzea eta produktu nazionalaren zati handiagoa lortzeko saiakerak eragindako langileen arteko klase borrokaren aukera oro errotik desegitea.

Ezinbestekoa da ekoizpen maila kontsumorako produktuak salbuespenik gabe gizarteko kide guztien behar garrantzitsuenak ase arte ekoizteraino igotzea. Posible izan behar du lan egiteko gai ez diren guztiak komunitatearen kontura mantentzea eta haurtzaroko behar materialen ardura guztia gizarte guztiaren eskuetan ezartzea.

Jada gaur egun eratu diren komuna nekazari askotan, benetako komunismora gerturatzen diren printzipioekiko banaketa ezartzen ari da. Komuna isolatu batean betetzeko erraza dena zaila da, baina ez ezinezkoa, gizarte guztian betetzea. Komunaren eta lantegien barnean sarien bidez lanaren produktibitatea bultzatzeak beharrezkoa izateari uzten dienez, gizarte komunistako kide guztiak lan orduen kontrolaren beharrik gabe produktu kopuru nahikoa egiteko gaitasunean egongo direnean, mota guztietako erreserbak pilatzea erabat alferrekoa bihurtzen denez eta barregura besterik eragiten ez duenez, orduan iritsiko da benetako banaketa komunistaren momentua.

Honela beraz, banaketa komunistaren gauzatzea prozesu zehatz bat izango dela ikus dezakegu. Ekoizpen komunistak perfektionatzen jarraituko du, honekin hartu-emanen banaketak ere perfektionatzen jarraituko du, eta gizakia ere perfektionatuz joango da klaseak desegin dituen gizarte baten baldintza onuragarrien barnean. Eta momentu honetan, jabetza pribatu txikian (nekazaritzan bakarrik 20 milioi ekonomia isolatu existitzen dira) berreraikuntza komunista biolentziaren bidez ezartzeak zentzurik ez duen bezala, modu berean absurdoa izango litzateke, printzipio berrien gainean belaunaldi bat baino gehiago hezi duen gizarte komunista indartsu eta heldu bati bakarrik dagokion banaketa sistema praktikan jartzen saiatzea.

Ikus dezagun orain nola pentsatzen den gizarte anarkistaren produktuen banaketa antolatzea.

Anarkismoa, beragan eragin gehien izan duten teorikoen bitartez, Kropotkin, Juan Grave, Malatesta eta Reclus besteak beste, komunismoaren printzipio berdinen gainean gauzaturiko banaketa komunistaren aldekoa da, hau da, “bakoitzak eman diezaiola gizarteari bere gaitasunen arabera eta jaso dezala bere beharren arabera”.

Baina zailtasuna, noski, ez datza desira on baten adierazpidean, bere gauzatze praktikoan baizik. Eta hemen da hain zuzen ere anarkismoa kontraesan ebaztezinetan erortzen den tokia eta praktikan, bat-batekotasunaren halabeharrezko jostailu tamalgarri bat bihurtzen da.

Komunismoak ez du banaketan berdintasuna aldarrikatu bakarrik egiten, lehen ikusi dugun moduan, benetako banaketa komunista bat zein baldintzatan burutu daitekeen ere azaltzen du. Anarkistak nahikoa asebetetzen dira beren programaren puntu bat edo beste gauzatu daitekeen baldintzak eta ondorioak eztabaidatuz: iraultza soziala hasi denez, beharrezkoa da enpresa bakoitza, berehala, komuna independente bat bihurtzera jotzea eta kontsumoa, berehala, kontsumo komunista bihurtzea. Anarkistei ez zaie itxoitea gustatzen, eta Kropotkinek denaren aurretik printzipio komunisten gaineko banaketatik hastea proposatzen du gero ekoizpena kontsumoaren neurrietara moldatzeko. Egia da Malatesta anarkista zorrotzak, banaketa komunista ezin dela edozein garaitan eta

egoeretan gauzatu oharrazten duela. Malatestak banaketa komunistarako giza generoaren kontzientzia handiagoa beharrezkoa dela irizten du. Baina gure anarkista errusiarrek ez dituzte Malatestaren oharrak entzun nahi, horrela ia denak “berehalako anarkisten” alderdikoak dira, eta honegatik jada nahiko zigortuak izan dira, merezitakoa jaso dutelarik.

Galde liteke: nola liteke posible banaketa printzipio benetan komunisten arabera burutzea enpresa bakoitza komuna independente bat bihurtua izan denean, komuna bat besteak baino baldintza onuragarriagoetan badago (adibidez, batek teknika perfektzionatua dauka, besteak ez) eta, azkenik, inposaketa bidezko irabazien ekibalentzia oro anarkismoak biolentzia ankertzat hartzen badu?

Honetaz gain, eraman al daitezke masak berehala gizarte kapitalistatik anarkistara, perbertitu eta ito egin dituen kapitalismoak kontzientzia maila oso baxuan utzi dituela kontuan harturik?

Arazoa benetan konponezina da. Edo anarkismoak, bere idealak iraultza sozialaren berehalako epealdian praktikan aplikatzeari dagokionean funtsik gabeak direla onartu behar du eta gizarteak kontsumo komunista lortzeko garapenaldi jakin batzuk ezinbestekoak dituela kontuan hartu, edo beste la sortutako zailtasunak prozedura errazenaren bidez desegin beharko ditu: pertsonak aingeruak direla eta talde isolatuak burges txiki bihurtuz beren taldeko interesak defendatuko dituztenaren suposaketa adierazi, azken finean herri langilearen aurkako kalumnia zital bat dena.

Anarkistek nahiago dute, noski, bigarren irtenbidea, are gehiago propagandaren eraginen aldetik eroso den heinean. Masak aingerutxo inuzenteak eta kontzientzia handiagoa duten gizarteko kideak direla diotenean, ez dute honekin inor mintzen.

Iraultza sozialaren momentuan, esate baterako Errusian urriko altxamenduaren ondoren, lantegiak eta enpresak praktikan komuna independente bihurtu izan balira, banaketa sozialistaz hitz egitea ez litzateke ezinezkoa bakarrik izango, alderantziz: langile klasearen barrenean bertan, langile talde isolatuak desberdintasun handiko egoera batean aurkituko ziren, gerra zibilerako aukera sortuz bere aspekturik txarrenean;

langile talde isolatuak beren laneko produktuaren banaketa-gatik beste antzeko taldeen aurka buruturiko gerraren aspektuan. Adibide praktiko bat eduki dugu jada gure iraultzan zehar, beherago ikusiko dugun bezala.

Ezingo litzateke beste modu batera izan. Bizimoduak herrien kontzientzia determinatzen du. Kapitalismoan zehar, kapitala dela eta proletalgoaren barneko talde jakin batzuen interesak klase zapalduaren interes orokorren aurrean maila baxuago batean geratzen baziren ere, kapitalaren boterea suntsitu ondoren interes korporatibo hauek birsortu egiten dira.

Ekonomia sozialistako sisteman, hau da, kapitalismotik komunismo osaturako trantsizio aldian, langile talde isolatuek ez dute besteen kontura aberasteko aukerarik izango, banaketa langileen gehiengoak aukeraturiko organoek egingo baitute eta banaketa hau gehiengoaren interesetan egingo baita.

Ez da berdina gertatuko anarkismoarekin, minutu batez bada ere hau praktikara eramaten hasiko litzakeela suposatzen badugu. Komuna bakoitza —enpresa independentea— lubaki bat bihurtuko litzateke enpresa horretako interes korporatibo estuak defendatuz, gizarteko langileen osotasunaren interesak defendatu beharrean, eta honek halako desberdintasuna ekarriko luke banaketan, ezen honen aurrean anarkista onestu bakoitza, higuindurik apartatu egin beharko litzateke, bere akatsa onartuz.

Har dezagun adibide bat. Iraultza ostean geure aurrean enpresa komuna sorta bat daukagu hegoaldean eta Petrogradon, eta beste antzeko hainbat enpresa komuna Uralean. Egungo teknikarekin, Uraleko enpresa gehienetan lanaren produktibitatea bi aldiz baxuagoa da hegoaldean baino. Hori dela eta, hegoaldeko enpresa komuna bakoitzak, bataz bestez eta lanaldi eta langile kopuru berdinarekin, bi edo hiru aldiz produktu gehiago egingo ditu. Suposa dezagun ondoren enpresa komuna hauek produktu hauek besteengatik trukatzan dituztela. Zeinek jasoko du trukean gehiago: hegoaldeko langileek edo Uralekoek?

Uraleko langilea kalteturik irtengo da, eta ez bere erruagatik, enpresari harrapariak ez zirelako teknika perfektionatzeaz arduratu baizik.

Honela, industriaren adar bakarrean ere, produktuen lan-
ketan dauden baldintza ezberdinek diru sarrera ezberdinak
ekartzen dituzte. Eta are gehiago, herrialdeko ekonomiarentza-
ko garrantzia gehien duten industriako adarrak posizio priba-
legiatu bat lortzeko aukera edukiko lukete garrantzia gutxiago
dutenen kontura. Modu honetan, esplotazio komunean dagoen
mehatze bat burdinan eta ikatzean beste bat baino aberatsa-
goa bada, bertan lan egiten dutenei irabazi handiagoak eman-
go dizkie; baina ez hori bakarrik, ikatzaren industria guztia
ere, bere langileei garrantzia gutxiago duten beste lan adarre-
tako langileei baino baldintza onuragarriagoak bermatzeko mo-
duan egongo litzateke.

Sortuko zen egoera, modu batean, kapitalismoan baino
okerragoa izango zen. Kapitalismoan, kapital independenteek
industriaren adar batera edo bestera mugitzeko aukera dau-
kate, honegatik ekoizpenaren adar isolatuetako monopolioa-
ren egoera pribilegiatua ia ezinezkoa eginez. Enpresa komuna
anarkisten existentzian zehar, industriaren adar isolatuen eta
enpresen egoera pribilegiatua desagitea, kaltetuen gehiengo-
ak antolaturiko inposaketa eta presiorik gabe, ezinezkoa izan-
go litzateke. Modu bakarra enpresa elkartuak ezartzea da. Bai-
na, zein da hauek ezartzeko modua, zergak sartzeta? Anarkis-
tak, kasu honetan, alarmari eman beharko dio, zeren zerga
sistema batek gobernu aparatu bat suposatzen baitu.

Monopolioaren suntsiketan interesaturik dauden komu-
nen borondatezko elkarteak sortzea?

Hau posible izango litzateke komuna hauek honakoa
gauzatzeko nahitaezko baliabide materialak dituztela onartu-
ko bagenu. Baina baliabide hauek eduki ezean, ezinezkoa da
meatzariei eta trenbideko langileei esate baterako, duten mo-
nopolio egoera lubaki lanen bidez suntsitzen saiatzen diren el-
karteen aurka borrokatzen hastea eragozte. Borroka anar-
kistek suntsituriko boterearen berrezartzea ekarri dezake, hau
indartsuena denaren eta bere garaipena finkatzen duen alde-
aren eskuetan eroriko delarik. Kasurik hoberenean, erakunde
monopolistak, baionetez eta beste bide batzuez baliaturik, be-
ren monopolioen egoera pribilegiatua mantentzea lortuko dute,
gehiengoak beldur badio bere erabakia antolaturiko presioa-
ren bidez praktikara eramateari; emaitza gisa, gutxiengoaren

askatasuna gehiengoarentzako biolentzia eta mugaketa bihurtuko da. Batzuek lasaitasuna edukiko dute besteak estuasunik handienez egoteari esker.

Anarkosindikalismoak praktikan langile klasean talde pribilegiatuak sortzera, langile geruza batzuek besteak larrutze-
ra, jabetza pribatuaren ohitura makurrak indartzera bakarrik eramango zukeela, argi eta garbi erakusten du 1918ko Cheremjoveko mehatzeen adibideak, Kolchakek eskualde hau konkistatu aurreko aldian, Siberian oraindik ere botere sobietarra existitzen ez zenean eta trenbide siberiarra oraindik beren eskuetan zegoenean. Mehatze hauetan, anarkistek gehiengoa lortu zuten, emaitzak luzatu gabe berehala agertu ziren. Cheremjoveko langileek meatzeak “beraienak” aldarrikatu zituzten, hauen nazionalizazio ororen aurka agertu ziren eta banaketaren arloan praktikara halako “komunismoa” eman zuten, ezen anarkista ideologo guztiak ordara jo zutela honen aurrean. Prezio altuak ezarri zituzten “beren” ikatzagatik eta uko egin zioten berau entregatzeari trukean ez bazuten esku-dirua jasotzen, trenbide siberiarrak ikatz faltagatik lan egiteaz utzi izan balu ere interes handirik agertu gabe. Organo sobietar siberiarra beharturik zegoen Cheremjoveko anarkisten eskakizunak asetzeraren siberiarraren martxa ona ez gelditzearen, eta, ondorio gisa, Cheremjoveko kide bakoitza Siberian beste enpresetako langileek garai hartan irabazten zutena baino bost aldiz gehiago irabazten hasi zen.

Hona hemen lantegi eta enpresa bakoitza komuna independente bihurtzeak ekarriko lukeen “banaketa komunistaren” adibide bat. Cheremjoveko langileak, beren joeren ondorioz aberaste bidegabe eta azkarra lortu bazuten eta anarkistek kexuak eragin bazituzten, hau bere maisuen errezetaren arabera jokatu zutelako izan zen. Lehenik, mehatzeak berehala “komuna” independente bihurtu zituzten, langile boterea hau sozializatzen saiatzen bazen meatzea lehertzeko mehatxu eginez. Gero “borondatezko akordio” bat sinatu zuten trenekin eta “banaketa komunista ezarri zuten”. Eta anarkistak kexatu egiten dira beren ikasleen grinagatik, beren propaganda praktikan gauzatzen zutenean! Langileei egozten die anarkismoaren errua den hura! Ez da zaila berehala banaketa komunista bat aldarrikatzea, baina lelokeria da praktikan honen

ondorioa bertako talde isolatu batek masa langilea larrutzea denean haserretzea. Modu berean, lelokeria da haserre hau, ekoizpen moduaren eta banaketa moduaren arteko lotura ulertzeko norberaren ezgaitasunari egotzi beharrean langileei egozte, anarkistak direnean, eta ez hain zuzen ere langileen erruz, momentu jakin batean benetako banaketa komunista praktikan gauzatzeko gai ikusi dituenak.

Anarkistek ez bezala, komunistak benetako banaketa komunistarantz zuzentzen dira, eginkizun hau garrantzi gabea dela esan gabe eta masak hau betetzeko nahikoa prestatuta daudela aditzera eman gabe. Zeregin hau zaila dela aitortuz hasten dira, masak errealitatean diren bezala hartuaz eta helbururako bidea seinalatuz, ez bere nahien eta fantasien arabera, arrakasta gradualen, printzipio berrien gainean berreraikitako ekoizpenaren, baldintza berrietan ematen den masen hezkuntzaren, bere psikologia eta ohituren eraldaketaren, masa atzeratuen gainean abangoardia komunistak duen ekintza hezitzailearen oinarriaren gainean baizik, laburbilduz, gazteri langileak baldintza berrietan jasotako hezkuntzaren oinarriaren gainean, hau ez baitago gizarte burgeseko aurreiritzi eta ohituretatik askatzeko zaharrak bezain besteko zailtasunekin lotua.

Banaketa komunista, komunismoko banaketaren gradu gorenaren emaitza gisa eraman daiteke eta eraman behar da praktikara.

Pentsamenduaren bidez etorkizun honetara joatea, masei hau bere aurrerabidearen helburu natural bat bezala argitzea, egin daitekeen eta egin behar den zerbait da. Baina etapak soberan daudela eta beharrezko ez direla esateak, denbora hitzontzikeria merke eta fantasiosoetan alferrik galtzea esan nahi du, hau erlazio komunisten gauzapen praktikoaren borroka eraginkorrean erabili beharrean.

ANARKISMOAREN KLASE OINARRIAK

Teoria bakoitza, ikasbide bakoitza eta programa bakoitza klase jakin baten iritziak adieraztera eta interesak defendatzera bideraturik dagoen heinean, ez badute honen babes masiboa jasotzen, galdu egiten dute borroka sozialerako garrantzia oro eta pertsona gutxiren jabetzan egoten jarraitzen dute. Kasu honetan, edozein programak mantendu dezake eraldaketarik gabe bere hasierako izaera. Baina programa hau klase arteko borrokaren zurrunbiloan erortzen denean eta beregan talde sozial handien arreta erakartzen duenean, borroka praktikorako programa zehatz bezala eraldatzen hasten da, egoera erabat ezberdina sortuz. Aipaturiko ikasbide eta programa hauek errotik eraldatzen dira berriz jaiotzen direnean. Pertsonen elkargo txiki hau kopuruz handitzen denean eta alderdi handiagoa bilakatzen denean, jada orduan ikasgaiaren itxura eraldatzen dela ohartarazten da. Eta eratu den alderdia masek artean babesa bilatzen hasten denean eta babesa aurkitzen duenean, kasurik gehienetan, programa hau praktikara eramatean, ezagutezina geratu arte eraldatzen da. Eta hala ere, programa hau inprimaturik azaltzen duen orri bera aldatetikari gabe argitaratu daiteke; baina alderdiaren taktikak, hau da, bere jarduera praktikoa, sarritan ez du programan jarritako helbururantz eramaten, erabat aurkakoa den norabide baterantz baizik. Hau alderdiaren programa edo programaren oinarriaren gainean jaurtitako kontsigna jakin batzuk, masek momentu jakin batean dituzten interesen arabera asimilatzen eta egokitzen dituztelako gertatzen da, are gehiago masa hauek ez badira programaren autoreek hau babestuko zutela pentsatzen zuten talde sozialetakoak.

Esate baterako, sozialismoa bere baitan kapitaletik eman-tzipatzera jotzen duen lanaren programa da. Baina sozialismoa, talde inperialista bateko zein besteko kapital mundialak

txotxongiloak bezala maneiatzen dituzten Scheidemmandarren, Zambatarren eta Chernovtarren eskuetan, proletalgoa gerra-bidaltzeko probokazio bat da, inperialismo alemaniarren interesetan alde batetik eta anglofrantziarrarenean bestetik; kapitalismoaren pasio makurrak bandera gorriaren atzean ez-kutatzea da; chauvinismoak itsuturiko burgesia txikia, nahiz oraindik ere abertzalekeriaren morboaren eraginpean dauden langile klasearen geruza atzeratuak marrazo kapitalistei entregatzea da.

Anarkismoa bere baitan, teoria bezala, gizartea printzipio berrien gainean berreraikitzeko hainbat jomugek osatzen dute. Teoria honetan, Estatuaren desegitearen puntua ez zaio inolaz ere botere kapitalistaren deuseztapenaren ondoren jarraituriko dion garapen lerroari kontrajartzen, etorkizuneko gizarteko banaketaren inguruko programa (teorikoki behintzat), orokorrean komunismoaren izpirituan formulatzen delarik.

Baina anarkismoa, langileak zapaltzen dituzten geruza sozial horien esku boteretsuetan erortzen denean, bere buruarren kontraesan bat bihurtzen da.

Anarkismoaren inguruan arrazoitzean beharrezkoa da, ez bakarrik anarkisten argitalpenetan idatzia izan dena kritikatzeko, baita anarkisten atzetik doazen masek argitalpen hauek nola kritikatzin dituzten aztertzea ere. Zeren funtsik gabeko doktrina batentzat ezin baitaiteke kritika krudelagorik eta beldurgarriagorik egon, doktrina hau praktikara eramaten saiatzea bezain bestekorik.

Gaingiroki, anarkisten desira liburuzale guztiak hausnartu ditugu. Ondorio gisa, nahitaezkoa da anarkistek praktikan zeinen mesedetan jarduten duten, zein taldek aurkitzen duen anarkismoan bere interesen defentsa eta, batez ere, iraultzan zehar anarkismoa zein talderen interesak defendatzera beharturik egon zen aztertzea.

Literatura sozialistak aspaldi seinalatu zuen bezala, Mendebaldeko Europan anarkismoak ekintza eremu handiagoa edukitzen zuen burgesia txikia gailentzen zen herrialdeetan, Frantzia, Italia, Suitza, Errusia bezala; eta eremu txikiagoa zuen proletalgo industrial zabala zuten herrialde kapitalista handietan, Alemania, Ingalaterra edo Belgika esaterako. Ameriketako anarkismoak batez ere Europatik emigratu dutenen

artean dauka arrakasta. Orokorrean, anarkismoak onarpen handiagoa du industria artisauko eta industria kapitalista txikiko langileen artean, eta maila baxuagoan enpresa kapitalista handietan. Krisi industrialeko eta langabeziako urteetan zehar ere, alde guztietan izpiritu anarkistaren indarraren handiagotze bat nabaritzen da. Errusian, anarkismoaren hazkuntza egiaztatua izan da iraultzaren deskonposaketa eta erorketa urteetan, 1906-1908 urteetan, eta Urriko iraultzaren aldi kritikoan, Brest Litovskeko tratatua sinatu ostean gutxi gora-behera.

Azkenik, ongi ezaguna da Majnok Errusiako hegoaldean lurjabe ukrainiarren defentsan jokatu zuen papera.

Hona hemen dudarik uzten ez duten gertaerak eta oharrak. Baina, zer erakusten dute gertaera hauek?

Gertaera hauek anarkismoak burgesia txikiarekin duen lotura eztabaida ezinaz hitz egiten digute, baita bere habitat normaletik atereak izan diren herritar taldeekin duten loturaz ere, langabetuak diren bezala, eta azkenik, bereziki iraultzako aldian, elementu klasegabetuekin duten loturaz, hau da, klase jakin batetik baztertuak izan direnekin, lumpenproletar goa bezala.

Baina ezin esan daiteke, goran baieztaturikoan oinarrituz, anarkistek praktikan klase burges txikiaren, lumpenproletalgoaren edo langabetuen alderdia osatzen dutenik. Praktikan anarkismoa ez da ez bata ez bestea bakarka, baizik eta bata zein bestea izan daiteke edo baita hirugarren bat ere baldintza jakin batzuetan.

Zergatik dago hainbeste burges txiki anarkismoan? Anarkismoa gobernu botere ororen aurka dagoelako eta burges txiki oro ere, batez ere burges txiki pobretua, Estatuaren aurka dagoelako. Burgesia txikia bere diktadura gauzatzeko gai ez den klase bat da, boterea denbora motzean geratzen da klase honen eskuetan eta feudalismoari hau kentzen dionean, burgesia handiaren edo proletalgoaren harrapakin bihurtzen da.

Alde batetik, gobernu boterea kapital handiaren eskuetan dagoenean, honek burges txikiaren aurkako presio politika bat burutzen du bere proletalogotzea erraztuz. Bestaldetik, botere proletarioak ez du ez sostengatzen ez indartzen ekonomia txiki independentea ezta ekonomia honek dakarren lan

indarren alferrik galtze zabarra ere, alderantziz baizik, ekoizpen txikia maila altuago batetara pasatzea bultzatzen du, burges txikia irmoki ordenara deituaz langileen kontura aberastuten saiatzen denean. Burges txikia estatu botereari dagokionean anarkista bat da izatez bere klase egoeragatik, batez ere ekonomia txikiaren egoera kritikoa bihurtzen den garaian.

Anarkistak babesteko prest agertzen den bakarra ez da jabe txikien zati pobretua, modu honetan lasaitasuna bilatzen duela, noski, alferrik den arren. Nekazari aberatsagoak ere batzuetan anarkismoa babesteko prest agertzen dira Estatu proletarioaren aurka. Izatez, lurjabe handia kapitalista gai bat da, eta ikuspuntu honetatik, anarkismoaren etsaia da. Komununa anarkistak ez du erakartzen, izutu egiten du eta atzeraka ematen dio. Baina ez zaio gaizki iruditzen anarkistak “ezkutari” bezala aprobeztatzea, modu honetan, aldi batez izan arren, Estatu proletarioak ezarri duen ogiaren monopoliotik eta bere jabetza nekazalgo behartsuarekin banatzeko obligaziotik defendatu badaiteke. (Geroago, lurjabe ukrainiar handia mugimendu anarkistaz baliatu den moduaz hitz egingo dugu.)

Hala ere, ekonomia txikia ekonomia sozialistaren sistema orokorrera erakarria izaten denean oinarri berrien gainean berreraikitako industriak beharrezko produktuez hornituko du eta berehala ekonomia kolektibora bihurtzeko benetako aukera jasoko du eta, aldi berean, landako langile masen egoera ekonomikoaren etengabeko hobekuntza eraginkorrarekin, anarkismoak eremu guztia galduko du arlo honetan, posibleki “nekazal sozialismoaren” psikologiaren itxuran mantenduz.

Zergatik ari da lumpenproletalgoa anarkismora jotzen?

Talde sozial honek komunismorantz banaketaren alorrean jotzen duelako (zurea den guztia nirea da), ekoizpenagatik ez arduratuz. Anarkismoak, hain zuzen ere, banaketaren berdintasunetik hastea proposatzen du. Hau da eskaleak behar duena. Denbora tarte honetan zehar anarkista konbentzitu bat izango da, baina ekoizpenaz arduratu behar denean beraz agurtu ahal izango dira anarkistak.

Kausa berberengatik handitzen da anarkismorako joera langabezia handiko momentuetan. Egoera larrian dauden kontzientzia baxuko langabetuen taldeei askoz gehiago interesatzen zaie bere momentuko egoera nola konpondu, momentuz

herrialdeko hornikuntza erreserbak banatzea nola lortu, erregimen kapitalista ororen eta orokorrean langabeziaren suntsiketari buruz hausnartzen jartzea baino. Hona hemen zergatik anarkismoak banaketaren auzia nabarmenduz aurkitzen dituen bere aldekoak. Batez ere ez duelako zentzu honetan abenturazalekeriaren aurka egiten eta masei ahal den guztia hartzeko aholkatzen baitie, benetan, produktuen erreserbaren banaketa, kapitalismoaren desegitearekin zerikusia duten arazo guztien konponbidean, auziaren zati bat besterik ez denean eta gizarte kapitalistaren erreserbak eskuratzea eta banatzea iraultzaren zati politikoa amaiera arte eraman gabe, hau da, burgesiari boterea kendu gabe, ezinezkoa denean. Zentzu honetan erakargarriagoa da bide erraza, azkenean bide hau luzeago batean erortzen den arren eta masa langileei ogirik ekarriko ez dien arren.

Lehenengo iraultza errusiarraren gainbehera aldian, anarkismoak proletalgoaren zati batean, artisauetan eta intelektual batzuetan eduki zituen arrakastak ondorengo gertaeragatik azaltzen dira: tsarismoaren aurkako borroka porrot batean amaitu zen. Masak boterea modu antolatu batean konkistatzen saiatu zirenean, hauek ez zuten beren egoera hobetzea lortu, ihes masibo bat eman zelarik, bakoitza bere egoera hobetzen saiatu zelarik, klase osoaren egoera hobetzea lortu gabe; desjabetzearen aldia hasi zenean, anarkismoa ekintza hauek justifikatzeko helburuarekin aurkeztu zen. Desjabetzea burutzen zutenek kapitalaren eta tsarismoaren aurka borrokatzen zutela eta etsaiaren aurkako ofentsiba egiten ari zirela uste zuten, praktikan, taldeengatik eta interes korporatiboengatik buruturiko ekintza hauek, iraultzatik ihes egitea esan nahi zuten bitartean: kapitalistak eta botere autokratikoko agentek isolatuki atzemango zituzten, baina hau ez zen batere arriskutsua kapitalisten eta lurjabeen klaseko boterearen osotasunarentzat.

1917ko iraultza hasieran anarkismoak ez zeukan eraginik. Langabezia igo egiten zen neurrian eta masa langileen bizitzan zailtasunak handitzeaz gain, iraultzaren aurkako kapital internazionalaren ofentsiba dela eta, egoera hartatik irteke aukerak murriztu egiten ziren neurrian, anarkismoa indartzen hasi zen. Brest-Litovsken ondoren, hau da, Iraultza

errusiarrak inperialismo alemaniarraren aurrean atzera egin ondoren, langile masek taldekatzeko eta sobietetan sendoki antolatzeko beharra eduki zutenean, diziiplina zorrotza ezartzeko eta taldeen interesak interes orokorren menpe ezartzeko beharra eduki zutenean, anarkismoa arrakasta handia lortzen hasi zen. Ikus dezagun zein ziren anarkismoari, edo hobe esanda, anarkismoaren kontsigna batzuei atxikitzen ziren taldeak, Urriko iraultzako eta berreraikuntzaren hasierako garaiko bereizgarri ziren masen berezko marea handiak atzerakada batean sartzen ari ziren aldi honetan.

Botere sobietarrak enpresen nazionalizazioa gauzatzen du, hau da, ekoizpen baliabideak ekoizleen klaseari ematen dizkio, ez bertako talde isolatuei.

Anarkismoa lantegiak eta enpresak bertako langileei ematearen alde agertzen da. Kontzientzia baxuena zuten eta ohitura burges txikiek ustelduena zegoen langileen zatiak puntu honetan anarkismoa sostengatzen zuten, ez komunismo anarkikoagatik, hain zuzen ere aurkakoagatik baizik: bere egoera gainontzeko langile klasearen kontura hobetzeagatik. Modu honetan anarkismoa, beren psikologia berezia dela eta langile girotik irtendako burges txikian, ugazaban eta trukezalean sostengatzen zen.

Botere sobietarrak lanaren diziiplina praktikan ezartzeko joera du eta honen esentzia ondorengoan laburtzen da: ekoizpena kontsumoa baino baxuagoa bada produktuak ez dira nahikoa, beraz beharrezkoa da ekoizpena kosta ala kosta altxatzea. Egoera honek bi irtenbide ditu: edo kapitalak garaitzen du ekoizpena antolatzeko eta ekoizpen indarrak hobetzeko gai ez garela erakusteagatik, edo ekoizpena handitzen dugu lanaren diziiplina sartzearen bidez, honela proletalgoa Skoropadskien fusilamendupeko presioan ekoizpena handitzeko beharretik, kosakoaren zartailutik eta gosearen mehatxutik salbatuz.

Hauetako zein alde babesten zuen anarkismoak?

Lanaren diziplinaren aurkako borroka demagogikoarekin, hain zuzen ere Skoropadski eta Riabuchinski babesten zituen, oztopatu egiten baitzuen egoera hura konpontzeko bide komunista, baldintza haietan, bestela Skoropadskitarren ustarekin ebatzia izan zitekeela. Anarkismoa langileen

kontzientzia baxueneko taldeetan sostengatzen zen, enpresa sozialistetan ere gutxiago lan egin eta gehiago jasotzea espero zuten horietan.

Balioak jasotzea trukean baliorik sortu gabe, gogor lan egiten duten beste lantegietako langileak larrutzea esan nahi du. Hemen ere anarkismoa jabetza txikiaren, langileen talde atzeratuen, interesen adierazpidea izatea gertatu zen, zeren langile klase guztiak ekoizten duen hura kontsumitzen baitu eta ez zaio interesatzen lanaren ekoizpena jaistea: klase guztiak ezin du bere burua lapurtu eta horregatik ezin du langileen lan produktuen kopurua handitzen duen lanaren diziplinaren aurka egin.

Ikus dezagun haratago. Botere sobietarrak ogiaren monopolioa praktikan jartzera, hala nola, hiriko eta nekazal guneetako ekonomia bere kontrolpean hartzera jotzen du. Operazio hau ez da oso onuragarria jabe txikiarentzat, ez baitio aukerarik uzten gosearekin espekulatzeke ezta beste langile masa guztiaren kontura aberasteko ere (jabe txiki bakoitzak lanaren batz besteko irabazi bat edukiko balu, ez luke inolaz ere zertan kontrolaren beldur izan).

Anarkistak, komunistak bezala, ogiaren banaketa justuaren eta bidezkoaren aldekoak dira. Ogi hau ezinbestekoa da herrialdearentzat eta ez dago behar-beharrezkoa den kopurua baino gehiagorik. Egungo garaian banaketa hau praktika-ramateko bide bakarra dago: Estatuak ogiaren monopolioa ezartzea. Neurri hau aurrera eramatea gobernu aparaturok gabe, batez ere antolaturiko biolentziarik gabe, ezinezkoa litzateke. Botere ororen aurka, eta batez ere botere sobietarraren aurka altxatzen diren anarkistek burgesia txikiko espekulatzaileen babesik grinatsuena jasotzen dute, hauek ere botere sobietarraren aurka baitaude, honek gose daudenak esplotatzeko aukera kentzen baitie eta beren erreserben zati bat entregatzera behartzen baititu. Honela, anarkistak interes zikoitzenak defendatzen zituzten elementuek sostengatuak zeuden.

Gerrak eta iraultzak, geroago, bere klasetik eta lan produktibotik aldendu ziren eta arrazoi bategatik edo besteagatik lanaren bizitza aktibora itzuli nahi ez zuten edo ezin zuten jendarte nahiko handiak sortu zituen. Aldez aurretik zehazturiko

plan baten arabera eta behartsu guztien artean aurrez egokituriko banaketa baten interesetan arakatzeko eta konfiskazioak gauzatzen zituen Estatu sobietarraren indar antolatua rekin talka eginez, talde hauek oposizio bilakatzen dira eta anarkismoaren banderapean jarduteko duten eskubidea defendatzen dute. Begi bistakoa da “anarkismo” honek bidelapurrieriaren askatasuna adierazten duela eta kontroletik eta irabazien mugaketatik banantzeko, hala nola, lan produktiboa saihesteko desirarekin lotzen dela.

Iraultza garaiko krisi ekonomikoaren testuinguruan, norberarentzat ahal bezain besteko kopurua lortzeko joera burges txikia garatzen da, honek langileen ejertzito guztia rentzat edukiko dituen berehalako ondorioetan pentsatu gabe. Honako hau ere anarkismoarentzat eremu mesedegarria da, maila guztietako ustiatzaileek aurkitzen duten lehen traba botere proletarioa baita. Hain zuzen ere, hemen, gure aurrean lehen iraultzaren gainbehera aldian eman zen desjabetze anarkikoaren desertzio berdina daukagu iraultzari dagokionean.

Anarkismoaren izaera desertorea⁶ ez da arlo ekonomikoan bakarrik agertzen, baita politikoan ere. Errusia sobietarraren aurka ez da altxatzen antolatu gabeko kapital mundial bat, aparatu militar bikain bat daukan kapital internazional antolatu bat baizik, nahiz eta hau jada deskonposaketa eta erlaxamendu aldi baten hasieran egon. Etsai honen aurkako erresistentziak ere zorrozki antolatua izan behar du. Borrokarako, frontean armada diziplinatu bat behar den bezala, barrenean ekoizleen armada diziplinatu bat behar da. Bakoitza derrigorturik egongo da, ez nahi lukeena eta nahi lukeen neurrian egitera, orokorrean borroka osoaren interesek eskatzen duten neurrian eta moduan egitera baizik. Borroka antolatu honen aurka protesta egiteak eta borroka mota pertsonalki erabakitzeak eskubidea defendatzeak honen zailtasunetatik desertatzea esan nahi du eta politikoki,

6. Klase arteko borrokaren fronte guztietako desertzioak ez ditu inolaz ere pertsonen eta talde isolatuen ausardia pertsonalen adibideak kentzen. Desjabetzea oso aursarki gauzatua izan daiteke, baina desjabetzeak ez dio horregatik iraultzaren einkizun funtsezkoenetatik ihes egite bat izateari uzten. (Idazlearen oharra)

Cheremjoveko meatzariak zeudenaren antzeko posizio pribilegiatu⁷ batean jartzea. Langile hauek, anarkisten nahasmen-
duak atrofiaturik, meatzeak beraienak zirela esan zuten eta
“libreki” bataz besteko soldata baino bost aldiz soldata handia-
goa lortu zuten, espekulatzailer baten antzekoa eginez, honek
bere ogia eta bere burua irabazietan eraldatzeko joera baitu,
baita honek beste milioika gizabanakoen obra gauzatzen ez uz-
tea inplikatzan badu ere.

Azkenik, botere ororen aurkako deskontentua haztegi
bat da anarkismoarentzat, baita herri boterearen eta erabat
langilea den boterearen aurkako deskontetua ere, botere hau
beharturik badago bere herria, gobernuaren borondate onaz
gain, okerrera doazen baldintza ekonomiko batzuetan zuzen-
tzera. Hau, tsarismoaren existentziaren ondorioen, gerraren
ondorioen, atzerapen ekonomikoaren, etabarren erruduna da.
Eta langile burges txiki askok, bizitzaren zailtasunek astindu-
ta, “Behera botere sobietarra!” oihukatzen dutenean, izatez,
zera oihukatzen dute: “Behera gosea!”. Baina ekoizpenaren ar-
loko hobekuntzei eta banaketaren antolakuntza justuari es-
ker, langilea erabat aseko duten produktuak kopuru handia-
goan ekoizten badira, anarkismoentzako pena handiz, hauek
izango dira lehenengoak “Gora botere sobietarra!” oihukatzen.

Hala eta guztiz ere, anarkismoak babesik handiena Erru-
siako hegoaldean jaso zuen, *kulak* ukrainiarren klaseko intere-
sak zeuden tokian. Langileen geruza atzeratu jakin batzuk
anarkismoari zioten begikotasuna behin behinekoa eta izaera
kasualekoa izaten zen, eta erraz ordezkaturia izan zitekeen aur-
kako aldarteengatik klaseko sentimendu sana, kontzientzia-
ren hazkuntza eta iraultzaren berehalako esperientzia gailen-
tzen zirenean. Aldiz, Ukrainian, han sorturiko egoera zela eta,
*kulak*ek eta elementu kriminal bizkarroiek anarkismoarekin
zuten lotura askoz sendoagoa izatea gertatu zen eta alde bate-
tik ez da erabat apurtua izan momentu hauek arte. Ukrainia-
ko industriaren gainbeheraren eta proletalgo ukrainiarren dis-
pertsioaren ondorioz, jabetza nekazariaren paper eta esanahi
ekonomikoaren emaitza gisa, *kulak* ukrainiarrak hegoaldean

7. Adibidez, independenteki jarduten duen destakamendu anarkistak, modu berean
erabakitzen du eraso egitea bezala erretiratzea ere. (Idazlearen oharra)

klase ekonomikoki dominatzailea bihurtu ziren. *Kulakek* jotzan mantentzen zituzten nekazari pobre ukrainarrak, eta hiritarra, langilea nahiz artisaua edo, besterik gabe, burges txikia, ogi eske joaten zitzaizkien. Bizi baliabide guztiak bere eskuetan zeuden. *Kulakarentzat* guardia zurien boterea ez zen onuragarria, lurjabe burgesaren gobernu aparatuentzat eta armadarentzat zergak ordaintzea, lurra noblei, eta orokorrean, klase artotz baten gobernuari bueltatzea esan nahi baitzuen. Botere proletarioa ere ez da onuragarria beretzat, gose jasaten duten hirientzat ogi soberakinak desjabetzea, edo bestela, zerga bakarra eta lurren eta laborantza tresnen soberakinak nekazari behartsuei entregatzea esan nahi baitu. *Kulakarentzat* egoera ideala botererik ez egotea zen, anarkia, Ukrainian botererik ez egoteak *kulaken* boterea baitzekarren. Boterean hainbeste aldaketa ematen zirenez, *kulakarena* bezalako gobernu batek bakarrik lortzen zuen azken momentura arte, nekazalگو pobrearen sorrera arte, botere solido eta hautsiezin bat izatea. *Kulakek*, alde batetik lurjabeen boteretik eta bestetik botere sobietarretik defendatzeko konpainia armatuak antolatzen zituzten eta ekoizpenetik aldentutako elementu eskaleen modu orotako bandak sostengatzen zituzten, iraultza proletario armatuaren momentuetan Ukrainan asko ugaritzen zirenak. Egoera sozial honetan garatu zen, hau da, hain zuzen ere *kulak* ukrainiarraren bizkarren gainean garatu zen Majnoren anarkismoa. Majnoren bandak, Ukrainan burutu zituzten ekin-tzen ondorio objektiboengatik, *kulaken* bizkartzainak eta hauen gariz beteriko deposituen zaindariak bihurtu ziren, hirian eta landan zuten botere errealdaren defendatzaileak. Anarkismoak, atzapar hauetan erotzean, modu natural batean bere programatik *kulakak* digeritu ezin zuen guzti hura galdu zuen. Noski, ezin zen ez hitz egin komunez ezta “beharren” arabera inola-ko banketaz ere (bidelapurren beharren arabera banaketaz salbu). Aldiz, “Behera botere oro” kontsigna, “Behera zergak eta asebateek gosetuei ogia entregatzeko obligazioa” esan nahi zuena, *kulakarentzat* oso gustukoa gertatu zen eta anarkistek hain zuzen ere beren programaren zati hau gauzatzean kontzentratu zuten arreta. *Kulaka* ez zen anarkismoaren borrokari bihurtu, baina anarkismoa, aldiz, *kulaken* eta beren interesen defendatzaile bihurtu zen.

Ukrainan azkenik, guardia zuriak behin betiko deseginak izan ondoren, Ukrainako nekazalgo behartsuaren potentziala agertu zenean, hau *kulakaren* aurkako borroka armatua eta beraiek desjabetzera pasa zenean, Majnoren tankerako jaun anarkistek beharturik ikusi zuten euren burua borrokan zeuden alde batean edo bestean jartzera. Nekazari behartsuen zati bat Majnotik banandu zen baina “indarren” gehiengoa, alde batetik *kulaken* semeez eta bestetik bidelapur profesional bezala osatua, *kulakaren* alde jarri ziren, oraindik herrixketan klase arteko ezberdintzerik eman ez zen eta orokorrean Estatu sobietarraren, komisarioen, etabarren aurkako borroka kontsignekin beren nortasun *kulaka* ezkutatzea errazagoa izango zitzairen errepublikako eskualdeetara pasatzen saiatuaz.

Honela, anarkismoa baldintzen arabera aldatu egiten den klase oinarri aldabera batean sostengatzen dela ikus daiteke eta anarkismoaren arrakasta guztiak aldi batekoak direla eta ez direla sakonki errotzen. Hain zuzen ere, Iraultza errusiarraren esperientziak anarkismoak proletalgoarengan duen eragin txikia eta bereziki motza erakutsi zuen; alderantziz, arrakasta handienak bere zoria proletalgoaren diktaduraren aurka borrokan ziharduen burgesia txikiaren klaseko interesak babestera lotu zuenean eskuratu zituen.

ANARKISTEN TAKTIKA

Egin dezagun orain azalpen motz bat anarkisten taktikari buruz, hau da, beren helburuak praktikara eramaten saiatzen ziren prozedura horiei buruz. Iraultza garaian zehar taktikak garrantzia ikaragarria dauka. Askotan, alderdiko programa oso demokratiko eta sozialista bat publizitate huts batera murrizten da, alderdiak, zuzenean edo zeharka, benetan kontrairaultza laguntzen duen edo dagoen erregimen monarkiko burgesa indartzen duen bitartean. Geure aurrean daukagu sozialibertzeale europarren eta errusiarren adibidea.

Anarkistei dagokionean, planteatzen dituzten helburu eta asmo on guztiek ere, ez dute zerikusirik edukitzen beren ekin-tzen emaitza praktikoekin. Hau bereziki anarkista errusiarrei buruz esan daiteke, iraultza errusiarraren momentu zailen-tan, beren artean sobietar batasunaren aurkako sabotadore gehiago egon baitira erregimen burgesaren aurka baino.

Taktikaren ikuspuntuaren arabera, anarkistak hiru tal-detan sailkatu daitezke: 1.- Anarkista bakezaleak, beren helburuak lortzeko indarkeriaz-ko metodo ororen etsaiak direnak; 2.- Altxamendu sozialaren aldekoak, soilik masen borrokaren aldekoak eta terrorismo in-dibidualaren, kapitalaren aurkako eraso isolatuen eta “ekint-za bidezko propagandaren” antzeko prozeduren aurka daude-nak; 3.- Masen borroka iraultzailearen alde eta baita terro-re politiko eta ekonomiko indibidualaren, desjabetzeen, konfis-kazio isolatuen, etabarren ere alde daudenak.

Anarkista bakezaleei dagokionean, tolstoitar motakoak, anarkista mistikoak eta ideietan orientazio erlijioso bat duten horiek guztiak, beren izaera burges, aristokratiko eta intelek-tuala hain begi bistakoa da, ezen anarkismoaren beste korron-te guztiak beren kabuz banantzen diren bakezaleetatik. Ho-rregatik, soberan dago hauen taktikari buruz hitz egitea, foi-letto honek ez baitu anarkismoari buruzko ikerketa bat izan

nahi eta aurrerantzean beren helburuak gauzatzeko biolentzia onartzen duten anarkisten inguruan bakarrik hitz egingo dugu.

Anarkismoaren korrante guztien ezaugarri orokorra da borroka politiko orori dioten mespretxua eta arreta guztia borroka ekonomikoan kontzentratzeko duten joera. Proletalgoaren borrokaren funtsezko xedea hain zuzen ere askapen ekonomikoa dela, eta orokorrean proletalgoaren borroka gizartearen eraikuntza ekonomikoaren aldeko borroka dela, hemen gobernu boterearen konkista bitarteko bat bakarrik izanik, ongi zekiten anarkisten aurretik komunismo zientifikoaren sortzaileek, Marxek eta Engelsek, eta beraiengandik anarkismoaren apostoluak, Bakuninek, historiaren kontzepzio materialista ikasi zuen (nahiz eta inoiz ulertzero ez iritsi).

Baina gure maisu handiek egia bat aldarrikatzean, hau ez zela erdipurdiko egia bat bihurtu behar honen zati bat bakarrik aitortuz ohartarazten zuten. Printzipio berrien gainean, baita printzipio anarkisten gainean ere, gauzatutako gizartearen berreraikuntza ekonomikoak klase esplotatzaileek sorturiko Estatua suntsitzea eta proletalgoak bere etsaiak behin betiko deuseztatzeko botere politikoa aprobetxatzea eskatzen du.

Honela, kapitalaren aurkako borroka antolatua, klase gisa proletalgoaren indarren bidez hau suntsitzeko borroka, hain zuzen ere borroka politiko bat da, edozein izanik ere hartu duen forma.

Iraultza aurreko garaian parlamentuan sartu ginenean, guk erregimen burgesaren aurka borrokatzen genuen eta parlamentua, beste gauzen artean, borroka politikoetarako ere aprobetxatzen genuen. Langileei esaten genien: ez baduzue indar nahikoa instituzio hau desegiteko, zeuon ordezkariak aukeratu behar dituzue, beste aukera bat gehiago ez galtzearen, zeuon indarrak batu eta parlamentuko tribuna propagandarako eta antolakuntzarako aprobetxatzeko helburuarekin. Eta oportunistek eta zentzu guztietako sozialista faltsuek beren kretinismo parlamentarioarekin, borroka parlamentarioko gure parte hartzearen benetako zentzua desitxuratzen eta ezkututzen asko lagundu badute ere, anarkistek kritikatuak izateko motibo asko eman badituzte ere, horregatik ez dira txikiagoak

aldi honetan gure borrokarekin eta gure helburuetarako lortu genituen emaitzak. Gaur egun geure garaipenei laguntzen die, langile europarrei beren garaipenetan lagunduko die, zeren borroka bitarteko ezberdinen artean, borroka parlamentarioko parte hartzeak bere papera jokatu baitzuen proletalgoaren klaseko heziketa lanean eta bere kontzientzia sozialista igo-tzea erraztu baitzuen.

Gaur egun ere, gure kideen parlamentu europarretako parte hartzeak, hauetan gutxi egon arren, paper handia jokatzen du iraultza proletarioaren aldeko agitazio lanean, eta tribunatik buruturiko agitazio honek orri ilegalaren eta asanblada sekretuen lana osatzen du. Honakoa argitzeko nahikoa da 1914ko gerraren aurkako Liebknecht kidearen hitzaldia gogoratzeta, langile klasearengan hain inpresio ikaragarria eragin zuela. Zeharka, anarkistek beraiek onartu zuten ustekabeen parlamentuan sozialismoaren ideiak zabaltzeko gure parte hartzearen egokitasuna. Sobietetan eta Sobieten Kongresu Panerrusiarrean anarkismoaren propaganda zabaltzeko parte hartuz onartu zuten.

Hain urrun iritsi ziren beren “irrika parlamentarioan”, ezen momentu batean Sobieten Komite Zentral Exekutiboan egotera iritsi baitziren.

Aldi pasiboa amaitzean eta borroka politikoak botere proletarioaren aldeko borroka zuzen baten forma hartu zuenean, anarkistek klaseko borroka antolatuarekiko eta proletalgoaren diktadurarekiko zuten jarrera ezkorrak paper tamalgarri bat jokatzera eraman zituen mugimenduaren garai handian. Borroka politikoari dagokionean anarkisten taktikaren funs-gabetasuna frogatzea gure bi iraultzen esperientziaren ondoren, guztiz alferrikako zeregina da. Frogapena jada Otsaileko eta Urriko iraultzen garaipenean bertan egongo litzateke. Iraultza hauek, hain zuzen ere, boterearen konkistari esker lortu zuten garaipena; lehen kasuan burgesiaren blokeak, eta bigarrean proletalgoaren eta nekazal guneetako burgesia txikiaren blokeak. Minutu batez bada ere gure iraultzan zehar masak anarkisten atzetik joango zirela eta boterearen auzian hauekin ados egongo zirela suposatuko bagenu, klase aberatsen aurkako konfrontazioan porrotik krudelena jasango zuten. Aurrean masa sakabanatu bat edukiz, nahiz eta masa ho-

nek esplotatzaileen gobernu boterea hautsi, burgesiak segituan batuko zituen berriro bere indarrak maila nazionalen, eta beren aurrean ez zutenez indar berdinen proletarioen batasun bat edukiko, langile klaseak jazarriko zituen berriz ere.

Gaur egun langile guztiek dakite kapitalaren botere ekonomikoari emandako golperik gogorrenak Urriko iraultza ostean burutu zirela, hau da, proletalgoak boterea konkistatu ostean.

Bere diktadura konkistatu ondoren, proletalgoak pixkanaka modu antolatuan kapitalismoa itotzeko eta maila zabaLEAN erregimen burgesarekin amaitzeko aukera lortu zuen. Birtartean, anarkistak Estatu proletarioa baliatuz erregimen burgesa suntsitzea eta hau erabat eraisteraino iristea ukatzean kondenaturik zeuden berau modu isolatuan asaldatzera, jabetza jakin batzuen konfiskazioaren bidez, zergen aplikazioarekin; aurrerago bezala, lehenengo iraultzan zehar, boterearen konkistaren borroka ukatzeak anarkistei garaipenerako benetako bidea ixten zien, kapitalista isolatuen aurkako erasoen eta erregimen autokratikoaren agente jakin batzuen aurkako terrorearen bidera bultzatzen zituelarik. Taktika hau kapitalista eta bere agente banako batzuk izutzeko bakarrik dela gai eta ez duela esplotazio erregimena bere osotasunean erasotzen, jada frogatu dute 1905eko iraultzako eta baita egungo iraultzako ekintza anarkistek ere. Baina anarkistei, beti anarkistak izaten jarraitzen dutenez, ez zaie zer eginik gertzen. Ez dira gai masa langileen artean behin betiko garaipenerako antolakuntza lanak egiteko, eta ez da egon eta ez da egongo historian anarkismoa kapitalaren gainean garaipen garrantzitsu bat lortzeko gai izan den adibide bakar bat ere.

Taktika anarkistaren funsgabetasuna guztiz agerian gertatzen da kapitalaren aurkako ofentsiba antolatu bat eskatzen duen neurriren bat aurrera eramane behar denean. Har dezagun adibide bezala burgesiari inposaturiko derrigorrezko lana, obligazio hau anarkistek beren agitazioan komunista boltxebikeena baino erradikalagoa agertu nahi dutela. Anarkismoak gauzatu al lezake antolakuntza neurri hau, ekintza askatasun osoa emango balie?

Barregarria egiten da auzia planteatzea ere. Anarkistei errazagoa litzaieke burgesiaren kide guztiekin amaitzea, auzo burgesetako biztanleekin amaitzea, klase honek lan egiteko

obligazioa betetzea baino. Momentu honetan, neurri hau antolatzeke beharrezkoa da estatistika orokor profesionala, beharrezkoa da ogiaren monopolioa guztiz gauzatzea, ezinbestekoa da maila nazionalean lan kartilen sistema eta merkantzien aldaketa antolatzea aurrez txanpona truke zeinu bezala deseginenez. Baina neurri guzti hauek Estatu proletarioaren eta bere organo ekonomiko zentralen existentzia suposatzen dute, hau da, anarkistek izurriteari bezala beldur dioten aparatu bat suposatzen dute.

Har dezagun beste adibide bat, etxebizitzaren sozializazioa. Neurri hau zati batean eraman da praktikara, eta soilik botere sobietarreko organoekin izan daiteke burutua modu antolatutuan batean. Lortuko al zuten anarkistek praktikan gauzatzea? Beren eskuetan eroriko ziren lehen jauregiek erakutsiko zuten zein ikuspuntutatik hasiko zuten zeregin hau eta zein tamalgarria izango litzatekeen azken emaitza.

Anarkismoa kapitalismoarentzat sistema bezala arriskutsua ez izateaz gain, behin baino gehiagotan gure iraultzan zehar, bere taktika eta agitazio prozedurak direla eta, honek modu batean kontrairaultzaren arrakastak errazten zituen. Anarkismoak ez zuen inoiz botere proletarioaren aurkako eta burgesiaren aurkako erasoak neurtzen jakin, honela bere agitazioak min gehiago egiten ziolarik iraultzari eta gobernu sobietarrari erregimen burgesari baino. Iraultzaren momentu zailenetan, borroka ez zenean botere sobietarraren eta botereen anarkiaren artean ematen, sobieten eta Kolchaken eta Denikinen botereen artean baizik, anarkistak grina handiz arduratzen ziren masei organo sobietarren aurka altxatzeko eragiten eta esplotatzaileen lan politikoen zati bat gauzatzen zuten. Txekoslovakiako altxamenduan, kontrairaultzaileak indar sobietarren erretagoardian hainbat altxamendu presatzen ari zirenean, helburu honetarako masen artean mitinen bidez lan eginez, anarkistek botere sobietarraren aurka abesten zuten ahotsen abesbatza orokorra babesten zuten, anarkismoaren ideiak garaituko zuela pentsatuz eta ez Dutoven asmoak. Ez da harritzekoa beraz, Petrogradoko politiko burgesen asanblada batean, 1918. urtean, honen aipamena egunkariek argitaratu zuten (ikus Izvestia, Sobieten K. E.rena), kontrairaultzaileek anarkistengan esperantza handiak jartzea botere

sobietarraren deskonposaketa lanean, lan suntsitzaile hau diktadura burgesaren behin betiko garaipenerako aprobetxatzea proposatuz.

Errusian langileek kapitalaren aurkako borrokaren fronte guztietan, anarkismoak porrotak jasotzen ikasten zuten eskolaren papera jokatzeko zuen, eta zalantzazkoa da anarkismoak, gure iraultzan hainbesteko porrota jaso zuenak, etorkizunean masa proletarioengan influentziarik edukitzeko patua izango duen. Langileen talde bakar batek ere, txikiena izanik ere, ez du nahiko akats hauek eta borrokarako prozedura absurdu guzti hauek errepikatzea.

Ez du merezi anarkismoaren funsgabetasunaz ohartzeko eskubidea hain garesti ordaintzea.

ANARKOSINDIKALISMOTIK KOMUNISMORA

Anarkismoaren korronte ezberdinak aztertzea, anarkistak betidanik sakabanatu izan diren talde eta taldetxo ezberdin askoren arteko ezadostasunak eta ñabardurak aztertzea lan aspergarri samarra da eta ez da batere emankorra, izan ere, korronte bakoitzak pertsona gutxi batzuek osaturik egoten amaitzen baitu. Hala ere, komunista batentzat anarkismoaren azterketak bai interes handia hartzen duela honek langile masen mugimenduan eragina duen tokian. Anarkosindikalismoak, orokorrean anarkismoaren edizio proletarioenak, paper bat jokatu zuen eta jokatzeko duen langile mugimendu internazionalen, eta horregatik beharrezkoa da honi hainbat orri eskaintzea. Mugimendu burges txikiarekin eta *kulakarekin* lotu den anarkismoa zertan bilakatzen den ikusi ondoren, interesgarria da anarkismotik geratzen dena aztertzea hau proletalgoaren klase arteko borrokaren zurrunbiloan jausi denean.

Ikus dezagun zein den sindikalismoaren eta anarkosindikalismoaren esentzia eta zein eraldaketa jasan dituen sistema kapitalistaren krakaren momentutik.

Sindikalismoaren funtsezko postulatuak ondorengo hauek dira:

1.- Botere kapitalistatik askatzea lortzeko langileak sindikatu profesionaletan antolatu behar dute, alde batera utziz langile klasearen alderdi politiko batean antolatzea.

2.- Sindikatuak batasun orokor batean edo sindikatuen federazio batean elkartzen dira: Lanaren Konfederazioa Frantzia, Lanaren Konfederazio Orokorra Italian, IWW Iparramerikako Estatu Batuetan, Batasun Langilea Alemanian, etabar.

3.- Bake garaian, sindikatuak kapitalaren aurkako eguneroko borroka ekonomiko bat burutzen dute. Erregimen kapitalista osoa eraisteko borrokarako oinarritzko armak greba orokorra izan behar du.

4.- Erregimen kapitalistarekin amaitu ondoren, langile klaseak ez du Estaturik sortzen eta sindikatuak kapitalaren aurkako borroka organoak izatetik industriaren zuzendaritzaren organo izatera pasatzen dira.

5.- Borroka politikoa erabiliz, batez ere borroka parlamentarioa erabiliz, langile klaseak ezingo du ezer lortu eta iruzur burgesaren tresna gisa balioko du. Langile klasea alderdi politikoan antolatzea ez da beharrezkoa, proletalgoa dis-traitu egiten baitu langileen erakunde ekonomikoen bitartez emantzipatzeko duen bide ziur bakarretik.

Hau zen gutxi gorabehera mundu gerra aurreko sindika-listen plataforma, honi gehituz, sindikalista batzuk garrantzi gehiago ematen ziotela proletalgoaren egoera ekonomikoan benetako hobekuntzak lortzeko beharrari eta beste batzuk gehiago azpimarratzen zutela greba orokorrerako elkartzeko eta kapitaletik emantzipatzeko beharra. Batzuk alderdi sozialis-tengana hurbiltzeko eta, klase proletario berekoak ziren hei-nean, ekintzak beraiekin adosteko joerak zituzten eta besteek (anarkosindikalistek) sozialismoarekin eta politikarekin “adiskidetze” oro ukatzen zuten. Batzuek erregimen kapitalis-tarekiko taktika adiskidetzaille bat jarraitzen zuten eta beste-ek klase arteko borroka krudel eta adiskidezin baten beharra azpimarratzen zuten. Sindikalismoaren teorikorik nabarmen-enak, frantziarren artean Sorel eta Lagardelle, eta italiarren artean Arturo Labriola izan ziren.

Sindikatuaren lan baldintzen hobekuntzaren aldeko borro-ka orokorra alde batera uzten badugu, sindikalismoa European eta Amerikan langile masengan alderdi sozialisten politika adiskidetzaillearen aurka, parlamentuko erlaxamenduaren aurka eta proletalgoaren aurkako traizio sistematikoen aurka sortu zen berezko protestaren gainean hazi zen. Langileen bo-toekin Parlamentura hautetsiriko sozialista lau urtetan zehar besaulki bigunetan esertzeaz, alderdi burgesekin hitzarmenak burutzeaz, ministerio burgesean sartzeaz, langileen eta nagu-sien artean klase arteko borroka areagotzen denean, borroka hau zuzendu beharrean, kapitalisten alde suhiltzailearen pape-ra jokatzear arduratzen denean; azkenik, zentzu honetan egini-ko bost urteko “lanaren” ondoren, “sozialista” honek hauteskun-de berrietan langileek berriro hautatu dezaten proposatzen

duenean, argi dago edozein langile ondratu, Scheidemann, Renaduel, Henderson, Chernov, etabar bezalako jauntxo hauek ostikoka bidaltzen saiatuko dela. Frantziako, Italiako eta Amerikako langile batzuk ondorio batera iritsi ziren: halako parlamentarismoa eta borroka politikoa ikusi ondoren, parlamentu burgesetan ez dela inoiz parte hartu behar, borroka politikoa orokorrean ez dela beharrezkoa eta kapitalismoa eraisteko proletalgoak ez duela alderdi politiko batean antolatu behar.

Sindikalismoa eta anarkosindikalismoa neurri handi batean sozialisten, alderdi adiskidetzailen, traizioaren ondorio dira eta traizio honen aurka langile masek beren gaitzespena agertzeko erreakzio bat dira.

Nahiz eta alderdi sozialistako traidoreen aurka eta kapitalari guztiz egokitzeko duten politikaren aurka protesta oro justifikatua egon, sindikalisten eta anarkosindikalisten protestaren izaerak, gelatik zabor mentxebike guztiaz gain objektu baliagarriak ere garbitzen ditu.

Lehenik eta behin, iraganeko sozialistek, Millerand, Briand eta egungo Valdervelde jaunek, borroka parlamentarioko beren parte-hartzea proletalgoa engainatzeko xedez burgesiarekin adiskidetzeko bitarteko bihurtu bazuten ere, honek ez du esan nahi, inolaz ere, ezinezkoa denik parlamentarismoa modu iraultzaille batean proletalgoaren mesedetan aprobetxatzea. Bake sozialeko garaietan, oraindik borroka kalean egotetik urrun dagoenean, benetako iraultzailleek parlamentuko tribuna aprobetxatzeak erabilgarritasun ukaezina ematen du proletalgoaren klaseko heziketan. Nahikoa da Karl Liebknechten interbentzio parlamentarioak edo Alderdi Komunistaren Konferentzia Panerrusiarrean zehar gure frakzioak Duman eginikoak gogoratzea; Clara Zetkinen esaera bikainaren arabera, “propaganda lanean, komunistak, masei hitz egiteko, ez du ezta simaur batek eskaintzen dion tribuna ere mespretxatu behar”.

Egia da komunistarentzat, borroka parlamentarioak duen garrantzia murriztu egiten dela proletalgoaren altxamendu armatua gerturatzen den heinean eta, orokorrean, bide honek paper nahiko xumea jokatzen duela proletalgoaren klase arteko borrokaren sistemaren osotasunean. Horregatik, are garrantzitsuagoa da proletalgoaren borrokaren manifestazio guztiak

zuzenduko dituen eta boterea hartzera eta proletalgoaren diktadurara eramango duen alderdi politiko bat antolatzea.

Baina hemen sindikalistak moztu egin gaitzake eta esan diezaguke: *“Zuek oraindik frogatu behar duzuen suposatzen duzue. Oraindik proletalgoak bere askapenerako borrokan beharrezkoa duela boterea konkistatzea frogatu behar da”*.

Egia esan, proletalgoaren diktaduraren eta diktadura hau gauzatzen duen alderdiaren ezinbestekotasuna frogatzea, Errusiako eta Hungariako errepublika sobietarren esperientziaren ondoren, nahiko lan aspergarria da, baina hala ere, beharturik gaude hau egitera.

Lehenik eta behin, proletalgoak alderdia beharrezkoa du jada botere burgesa desegiteko borrokaren garaian ere. Iraultza askoren esperientziak frogatu du greba orokor bat inondik ere ez dela nahikoa dagoen erregimena eraisteko, ezta soilik iraultza burges baten kasuan ere. Greba orokorrak kolpe bat eman diezaioke gobernuan dagoen taldexkari, kontzesio bat edo beste egitera behartu, baina ez da gai klase jakin baten erregimen guztia eraisteko. Nahikoa da Errusiako 1905eko Urriko greba orokorra oroitzea. Burgesiaren aurrean garaipena eskuratzeko beharrezkoa da, aldiz, alderdi indartsu bat egotea, bere helburuak argi ulertuko dituen, bere lerroak eta masak kapitalaren aurkako behin betiko gudarako prestatuko dituen, eta gai izango dena azken kolpea emateko, masak jada irten direnean beren erasoak gobernu makinaria burgesaren puntu ahulenen aurka zuzentzera. Historiak ez du ezagutzen greba orokorra erregimen kapitalistaren erasketarekin amaitu den kasu bakar bat ere, baina aldiz, Errusian 1917ko Urriko iraultzaren adibidea ezagutzen du, langile klasearen garai penarekin amaitu zela; langile finlandiarren eta bere guardia gorriaren garaipena ezagutzen du, osatu gabea izan arren; Bavierako, Azerbaiyaneke, Georgiako errepublika sobietarrak ezagutzen ditu, non burgesiaren agintea, alderdi proletarioaren zuzendaritzan zeuden langileen altxamenduari esker eta Errusiako Estatu proletarioak eta ondoko herrietako alderdi komunistei eman zien laguntzari esker erori zen. Sindikalistek onartzen dute, edozein mugimendu handi aurrera eramateko beharrezkoa dela gutxiengo kontzientea deritzonaren iniziativa masaren zuzendaritzarako. Gutxiengo abiarazle honek,

bere presentziarekin proletalgoaren masa mugimendu ororen antolakuntza eta arrakasta handiagoa ziurtatzen duela, alderdia bera osatzen du, baina enbrioi egoera batean. Gutxiengo honen presentziak garaipenerako aukerak handitzen badi-tu, gutxiengo hau alderdi indartsu eta diziplinatu batean bi-hurtzeak garaipenerako aukerak biderkatu egiten ditu.

Jarrai dezagun aurrera. Hartu behar du ala ez du hartu behar proletalgoak boterea, edo hobe esanda, sortu behar du ala ez du sortu behar bere gobernu aparatua, gobernu aparatu burgesa suntsitu ondoren?

Gerra aurretik, eta gerra osteko langile iraultzaren leherketa berriak arte, sindikalistek nahikoa dela langileek erregimen burgesa eraistea, botere proletarioaren antolakuntzara iritsi beharrik gabe, sindikatuen bidez eraikuntza ekonomiko baketsu bat hasteko azaltzen zuen ideal utopikoa defendatzen zuten.

Ekonomia kudeatuko zuten ekoizleen sindikatu librean bidez gizarte burgesetik klase gabeko eta Estaturik gabeko gizartera salto egiteko aukeraren itxaropen xalo hauek ideal infantilen moduan geratu ziren proletalgoaren benetako iraultza mundiala hasi zenean. Gaur egun guk denok dakigu, egungo eta iraganeko sindikalista guztiek ere badakiten moduan, grebaren bidez kapitalismoa eraistea ezinezkoa izateaz gain, behin irabazitakoan ere ezin dela lorturiko posizioetan mantendu langile Estatuaren itxurako gotorleku bat sortu gabe. Miresgarria izango zen errealitatean kapitalismoaren desegitea sindikalistek orain dela hamar urte amestu zuten pasibotasunarekin eta azkartasunarekin gertatzea. Historiak ez zituen esperantza hauek bete. Arrazoiak marxista iraultzaileen (hau da komunisten) alde jarri zen, zeintzuk momentu orotan proletalgoaren diktaduraren aldi nahiko luze baten existentziaren beharrezkotasuna azaldu izan duten, hemendik ondorioztatzen den guztiarekin. Esperientziak erakutsi du aginte kapitalista eraitsi eta hurrengo egunean jada proletalgoa beharturik dagoela bere konkistak borroka gogor baten bidez defendatze-ra, armada gorria sortzera, gerrako beharrak hornitzeko beharrezko aparatu guztiak sortzera eta ekonomiaren kudeaketarako eta produktuen banaketarako aparatua sortzea, industria berrezartzen den artean aurrezpenik zorrotzenaren

kontura eusteko helburuz. Iraultzako aldiaren ondoren, iraultza sozialaren hasieran bertan, saihestezina gertatu zen gerrate aldi bat eta ondorioz gerra hauetan elkarren artean borrokatzen zuten klaseak Estatuaren barnean antolatzea. Proletalgoa beharturik dago bere diktadura salbatzeko Estatua sortzera, etsaiak berau suntsitzeko mehatxupean, honek bere eskuetan erregimen kapitalistako herrialde guztien estatu aparatua baitauka.

1920ko udaran Moskun burutu zen Hirugarren Internazionalaren II. Kongresuan, asko hitz egin zen garai hartan, gaur egun bezala, sindikalistek eta anarkosindikalistek egin zituzten akatsez. Gai ordenaren puntu horren inguruko eztabaida animatuen ondoren, zeinetan ikuspuntu sindikalista edo honen gertukoa defendatu zuten erakundetako ordezkariak parte hartu zuten (Espainiako CNTko Pestaña laguna), Munduko Langile Industrialeko ordezkariak (IWW), etabar kongresuak ebazpen berezi bat onartu zuen “iraultza proletarioan alderdi komunistak duen paperari buruz”, non beste gauzen artean honakoa esaten zen:

“Internazional Komunistak irmoki ukatzen du proletalgoak bere iraultza xede honetarako alderdi politiko independente bat gabe gauzatu dezakeen kontzeptua. Klase arteko borroka oro borroka politikoa da. Ezinbestean gerra zibil bilakatzen den borroka honen helburua botere politikoaren konkistan datza. Hala ere, botere politikoa ezin daiteke hartu, antolatu eta zuzendu alderdi politiko baten edo bestearen bidez ez den beste modu batera; hau ezin daiteke konkistatu proletalgoak ez badauka bere aurrean zuzendaritza moduan borrokan frogatutako alderdi antolatu bat, helburu zorrozki zehatzekin eta berehalako ekintzen gainean, barne nahiz kanpo politikaren arloan, guztiz eraturiko programa batekin. Botere politikoaren konkista, honela, ez da atal kasual bat izango, baizik eta proletalgoaren eraikuntza komunista luze baterako abiapuntu bezala balioko du”.

“Klase arteko borrokak berak eskatzen du langile mugimenduaren forma anitzak (sindikatuak, kooperatibak, lantegi eta tailerretako komiteak, lan kultural hezitzailea, hauteskundeak, etabar) zuzendaritza orokorreko zentro batean bartzeta. Elkartu eta zuzenduko duen zentro orokor bat alderdi

politikoak bakarrik osatu dezake. Hau sortzea eta sendotzea ukatzeak, hala nola, bere menpe jartzea ukatzeak, borroka eremu ezberdinetan jarduten duten proletalgoaren destakamendu armatuen zuzendaritzak batzeari uko egitea esan nahi du. Azkenik, proletalgoaren klaseko borrokak agitazio kontzentratua eskatzen du, ikuspuntu bakar batetik borrokaren eta pa ezberdinak argitu behar ditu, momentu jakin bakoitzean proletalgoaren arreta orokorrean klase guztiaren eginkizun konkretuen gainean kontzentratuz. Hau ezin daiteke gauzatu aparatu politiko zentral bat gabe, hau da, alderdi politiko baten orbitatik kanpo. Horregatik, alderdi langile independente baten ezinbestekotasunaren aurkako sindikalisten eta Munduko Langile Industrialen alde daudenen propagandak, objektiboki burgesiari eta “sozialdemokrata kontrairaultzaile traïdoreei” bakarrik laguntzen zien eta laguntzen die”.

“...Sindikalista iraultzaileak eta industrialistak burgesiaren diktaduraren aurka borrokatu nahi dute eta ez dakite nola egin. Ez dira ohartzen langile klasea, alderdi politiko independente bat gabe bururik gabeko gorputz bat dela. Sindikalista iraultzailea eta industrialista aurrerapauso bat dira, soilik Bigarren Internazionalen ideologia usteldu kontrairaultzailearekin alderatuz. Baina marxismo iraultzailearekin alderatuz, hau da, komunismoarekin alderatuz, sindikalismoa eta industrialismoa atzerapauso bat dira...”.

“... Langile klaseak ezin du burgesiaren gainean garaipen osatu bat eskuratu greba orokorra eta “beso antxumatuena” taktika bakarrik erabiliz. Proletalgoak honetarako altxamendu armatua erabili behar du. Hau ulertu duenak hemendik ezinbestean alderdi politiko antolatua baten nahitaezotasuna ondorioztatzen dela ulertu behar du, eta langile sindikatu desitxuratuak ez direla nahikoa helburu honetarako”.

Kongresuan parte hartzen zuten langile erakunde sindikalistetako ordezkariak, Errusian proletalgoaren diktadura eta Estatu proletarioa praktikan zer den sakonago ezagutu zutela, garai honetan Alderdi Komunistaren papera zein den eta urriko altxamenduan zehar bere papera eta bere zerbitzuak zeintzuk izan ziren ezagutu zutela; behin kongresua bukatutakoan, edo komunista konbentzitu bezala edo, edozein kasutan ere, sindikalismotik komunismora pauso handia emanaz joan ziren.

Sindikatu iraultzaileek elkartu zituzten langile masei dagokienean, ordura arte komunisten atzetik zihoazela, Errusian botere proletarioak garaipena eskuratu zuen momentutik aurrera, alde batetik honen eraginagatik eta bestetik beren herrialdeetan erregimen kapitalistaren aurkako guda irekiaren gertutasunagatik, geroz eta gehiago konbentzitzen ziren beren porroten ikasgai odoltsuen oinarriaren gainean, proletalgoaren garaipenerako alderdi komunista bat beharrezkoa zela, eta talde handietan sartzen ziren alderdi komunistetara hauek eratu ziren tokietan.

Langile erakundeetako sindikalistak komunistetatik anarkosindikalistetatik baino gertuago badaude, sindikalisten eta komunisten artean ere erdi bideko erakundeak existitzen dira. Honako kasua da esate baterako Alemaniako Alderdi Komunista Langilearena. Hau Alderdi Komunista Alemaniarretik bereizten da, ez soilik sindikalismorako desbideratze barikaezin batzuegatik, baita orokorrean alderdiaren paperari buruz eta honek proletalgoarekin eta beste erakundeekin eduki behar dituen erlazioen inguruan kontzeptu zalantzakor bat duelako ere. Alderdi Komunista Langilearen akatsa alderdiaren papera gutxiestean datza, proletalgoaren izaera espontaneoa gehiegi baloratzearen ondorioz. Hau sindikalismoranzko desbideratze ukaezin bat da, orokorrean, seriozki antolatutako eta diziplinaturiko proletalgoaren alderdi politiko baten beharra ukatzen baitu.

Langile klasea ez da homogeneoa bere osaeran. Abangoardiako geruza kontzienteagoak ditu eta geruza atzeratuagoak, sarritan nekazal giroari lotuak eta burges txikien psikologia eta ohiturak erabat atzean utzi ez dituztenak. Proletalgoaren geruza aurreratua, orokorrean bere klasearen interesak eta etorkizuna ulertzen dituen, ez da beti proletalgoaren zati atzeratuarekin batera joaten eta batzuetan beragandik banandu ere egiten da. Komunistek beti proletalgoaren masak momentu jakin batean justua dela irizten duena egingo balute beharturik egongo ziren 1914. urtean gerra inperialista babestera, 1917. urteko udaberrian Errusian Kerenski babestera, Ingalaterran eta Amerikan Compers, Henderson eta beste sozialabertzale sindikalen politika babestera. Alderdi komunistak proletalgoaren masa guztia bere mailaraino igo behar du

eta ez proletalgoaren masa atzeratuen mailara jaitsi; ez du zalantza egin behar hauek zalantza egiten dutenean, ez du beren aldartera egokitu behar. Iraultza errusiarrean zehar alderdi komunistak ezin izango zuen bere betebeharra gauzatu, proletalgoaren zeregina burutzeko momentu zailetan, alderdi gabeko masak zalantzaka zeudenean edo borrokaren porroten edo zailtasunen ondorioz desesperazioan sartzen zirenean, hau erretaguardian joan izan balitz langile klasearen eta gizateri langile guztiaren biharko eguna defendatuz bere postuan tinkoki eutsi beharrean.

Erabat okerra da baita ere proletalgoaren diktadura alderdiaren diktadurari kontrajartzea, aldi berean klasearen eta bere alderdiaren erlazioen kontzeptu oker batekin erlazionaturik dagoena. Auzi honen gainean Internazional Komunistaren bigarren Kongresuak ere bere jarrera adierazi du. Iraultza proletarioan alderdiak duen paperari buruzko ebazpenean zera irakur daiteke:

“...Alderdiaren kontzeptua klasearen kontzeptutik ezberdindu behar da. Premisa historiko jakin batzuk posible egiten dute langile klasearen barruan geruza erreakzionario asko egotea. Komunisten eginkizuna ez da langile klasearen zati atzeratu hauetara egokitzea, langile klase osoa bere abangoardia komunistaren mailara igotzea baizik. Kontzeptu hauek nahastea: alderdia eta klasea, akatsik eta nahasmenik handienak ekar ditzake. Honela, esate baterako, argi dago gerra inperialistan zehar langile masen zati jakin baten aldaratez edo aurreiritziez gain, Alderdi Langileak aldarte edo aurreiritzi hauen aurka agertu behar zuela, proletalgoaren interes historikoak defendatuz, interes hauek alderdi proletarioak “gerra gerrari” aldarrikatu zezan eskatzen zutelarik”.

Anarkistek eta mentxebikeek behin eta berriz oihukatzen dute komunistek boterea konkistatu izanari buruz, masen diktadura alderdiaren diktaduragatik ordezkatua izan denari buruz, hain zuzen ere kontzientzia baxuena duten geruzak bere klaseko alderdiarekiko atzeratuen dauden momentuetan, masa estoikoenak momentu kritikoetan ausartago agertzen direnean. Hemen alderdiaren eta proletalgoko geruza atzeratuen artean kontraesana badago, kontraesan hau armada batean edozein zailtasunen aurrean konkistaturiko posizioak

mantentzen dituzten gudarien eta momentu kritikoan atzera egiteko gai direnen artean existitzen den kontraesan berdina da.

Alderdi gabeko langile masen paperaren gorespen hau eta alderdiaren esanahi eta paperaren gutxiestea, ñabardura eta desbideratze jakin batzuen forman, alderdi komunisten barnean ere antzematen da, batez ere krisi politikoen eta klase arteko borrokaren porroten garaietan. Momentu hauetan bereziki mingarria da proletalgoaren geruza atzeratuen aldar-te egoeragatik gehiegi inpresionatzen uztea, zeren aldi berean alderdiarenganako, bere indarrenganako, aipaturiko bidearen zuzentasunarenganako fedea gutxitzearen adierazle baita. Izaera espontaneoren alderantzko desbideratze hauek alderdi-tik zati isolatuak banantzea bultzatzeko bezain indartsuak izan daitezke. Errusian proletalgoaren diktadura garaian zehar, 1918ko udaberriaren ondoren honelako zerbait gertatu zen. 1921eko udaberrian, blokeo kapitalistako lau urteren, go-searen eta espero zen proletalgo europarraren laguntza ez etortzearen ondoren, proletalgoaren geruza batzuk zuten ne-kearen ondorioz aldarte egoera monarkikoen indartze bat eman zen. Hau proletalgoaren diktaduraren eta klaseko alder-di komunistaren aberrian gertatzen da, hain zuzen ere maila internazionallean herrialde guztietako proletalgoaren artean aurkako prozesua ematen ari den bitartean.

Eskala handian ematen diren prozesuetan, milioika pertso-nek parte hartzen duten eta esanahi historiko mundial bat du-tenetan, fenomeno hauek, bere ur guztiak itsasora daramatzan ibai ikaragarri handi batean uharka txikien forman aurkako korronteak existitzen diren bezala gertatzen dira.

Kominternaren bigarren kongresuko ebazpena parte hartzaileek aho batez onartu izanak, nahiz eta kongresuko parte-hartzean sindikalisten eta aldar-tez hauen hurbilekoak ziren delegatuen kopuru handia egon, European eta Amerikan langile sindikalisten eta anarkosindikalisten masak zein nor-abidetan doazen aurrera erakusten du. Anarkismo errusia-rra⁸, bere gehiengoan proletalgoaren diktaduraren aurkako *ku-laken* klaseko mugimenduekin lotu zen heinean, Majnoren

8. Argi utzi beharra daukat ezaugarri honek ez duela zerikusirik botere sobieta-rraren aurkako borroka armatua gaitzesten duten anarkista horiekin, badutela

jarraitzaileetan gorpuzturik modu jakin batean gainbeheran erortzen bada, faktore kontrairaultzaile bat da; aldiz Mendebaldean, langile mugimenduarekin loturik dauden sindikalismoa eta anarkosindikalismoa altxamendu armaturik gabeko eta proletalgoak boterea konkistatu gabeko iraultza sozialaren inguruko ilusioez askatzen dira, alderdiko diziplina zorrotzari eta Estatu proletarioari zitzaion beldur anarkista gainditzen dute eta modu irmo batean alderdiaren eta taktika komunistaren bila mugitzen dira.

Honela beraz, sindikalismoan eta anarkosindikalismoan proletariotik dagoen guztia, mundu osoan ematen ari den ezberdintze handiko garaian, gudaren aurretik, proletalgoaren diktaduraren eta komunismoaren alde jartzen da; anarkismoan burges txikitik dagoen guztia ordea beste muturrean elkartzen da, suntsiketaren bezperan dagoen mundu zaharrentzako ezkerkeriazko gortina baten papera jokatzearren, edo honen ondoren proletalgoaren diktaduraren aurka⁹ borrokatzen duen erretagoardia burges txiki bezala esku hartzeko, Errusia sobietarrean gertatzen den bezala.

mundu kapitalistaren eta *kulaken* aurkako borrokaren momentu zailenetan honen aurka amorruez ez jotzeko bezain beste arreta, eta ez duela zerikusirik ezta ere, adibidez Gordinen taldeak bezala, proletalgoaren diktaduraren eta Estatu proletarioaren behar historikoa onartzen dutenekin, hemendik anarkismoarentzat eratortzen diren ondorio guztiekin. (Idazlearen oharra).

9. Armak eskuan zituztela proletalgoaren diktaduraren aurka ekiten zuten anarkistak, hala ere, komunistak baino “ezkertiarra” eta kapitalarentzat arriskutsuagoak zirela uste zuten. Jakina den bezala, historia pertsonen eta klaseen ekintzekin eratzen da, eta ez ekintzan “pentsatzen” duten horiekin. Kronstadteko altxamendua txalotzen zuen Milyukov ez zen gobernu sobietarraren aurkako altxamendua gauzatzen zuten anarkistek euren burua komunistak baino ezkertiarra zela uste izatearen aurka agertzen.

ANARKISMO ERRUSIARRA

1921. URTEAN

1918an bezala, 1921eko udaberri hasieran ere, komunistek lan asko egin behar izan genuen anarkisten artean eta hauen aurka borroka indartsuago bat burutu behar izan genuen, herrialdean zebilen agitazio anarkistaren emana zela eta.

Ikus dezagun xehetasunez nola azaltzen den 1921eko udaberriko agitazio anarkistaren eta sozialiraultzaile burges txikiaren indartzea, zein konsigna oihukatzen zituzten anarkistek eta zeintzuk ziren garai honetan beren behin behineko aliatuak eta, azkenik, kontrairaultza sozialiraultzaile anarkistaren garaipenak nora eramán zezakeen iraultza eta herrialdea.

Lehenik eta behin, begi-bistakoa da errepublikan 1918an eta 1921ean zegoen egoeraren artean, momentu batzuetan, antzekotasun eztabaida ezina dagoela.

Duela hiru urte, aurrerago aipatu dugun bezala, Errepublikak krisi bikoitzeko garai bat igarotzen zuen; alde batetik, ofentsiba kontrairaultzaile internazionalak eta barnekoak defentsarako indarrak mobilizatzen derrigortzen zuelako, eta beste aldetik, hornikuntzen barne krisiak eta krisi industriallak masen artean deskontetu entzungor bat eragiten zuelako eta diziplinari, hala nola, Estatu proletarioaren mugei aurre egitera bultzatzen zituelako. Agitazio anarkistak ez zuen babesa bidelapurren artean bakarrik aurkitzen, baita nekazarien artean eta proletarioaren zati atzeratuen artean ere. 1921. urteko udaberrian Errepublikaren kanpo egoera inoiz baino onuragarriagoa zen, baina aldez, barne krisia 1918koa baino larriagoa zen. Duela hiru urte bezala, armadaren demobilizazioak lan produktibotik bananduak izan ziren ehun milaka pertsona libre utzi zituen. Nekazal ekonomia eta kosa-koaren pobretzeak, batez ere gerra zibila eman zen edo uzta txarra errepikatzen zen eskualdeetan, langabetu askorentzat

ezinezkoa edo oso zaila egiten zuen berehala lan baketsura bueltatzea. Gerrako hiru urtek, lanetik aldenduta egotearekin elkarturik, psikologia berezi bat eta ogibide militarretik bizitzeko joera sortzen dute. Honegatik eman zen bidelapurreriarren eta ideia anarkisten garapena, hala nola, anarkismoak elementu hauen artean zuen arrakasta. Nekazalgoaren artean deskontentua, nagusiki, jeneroetako zergak sortzen zuen, hau bereziki pisutsua baitzen herriarentzat 1920ean. Nekazalga ez zen Estatuaren etsaia, honek lurra eman zion eta armada gorriaren bidez lurjabe handien eta kapitalisten aurrean defendatu zuen heinean. Baina jeneroetako zergen sistema gauzatzen zuen Estatuaren aurka zegoen, nekazariari ez baitzizkion beharrezko produktuak ere uzten. Honek azaltzen du nekazarien geruza jakin batzuetan anarkosozialiraultzaileen mugimenduarekiko zegoen begikotasuna Volgan eta Hego-mendebaldean, hau da, gariaren eskualdeetan, hauek baitziren Estatuari zergetan gehien ematen ziotenak eta emandakoaren aldean gutxien jasotzen zutenak. Jeneroetako zerga egotetik zerga naturalera pasatzean, ezabatu egiten da probintzia produktiboetako nekazalgoaren deskontentuaren arrazoi nagusia. Honekin herrixkako aldarte egoera aldatu egiten da eta nekazalgoarengan anarkismoarenganako mesfidantza hazten da, eraikuntza ekonomikorako zuen gaitasun falta begi bistakoegia egin baitzen edozein langilerentzat.

Langileei dagokienean, 1921. urteko udaberrian proletargoaren zati atzeratuak gobernu sobietarraren aurrean zuen deskontentuak, lehen begirada batean, ulergaitza dirudi. Gobernu sobietarrak 1920ean nekazariei sakrifizio handiak eskatzen bazizkien ez zen Armada Gorrirako bakarrik, baita industria berrezartzeko ere. Langileen deskontentuaren kausak ezin du nekazarien deskontentuaren berdina izan, nekazariei jeneroetako zerga igotzeak langileentzako hornikuntza handiagoa suposatzen baitu. Alabaina, langilearen deskontentuaren aurrean geunden eta, bide batez esan, deskontentu hau jeneroetako zergarengatik eta komertzio askatasun faltagatik zela. Honek, langileen zati atzeratua nekazarien aldarte egoeraren eraginpean zegoela azaltzen du eta ez zituela bere langile interesak defendatzen, nekazarien interesak baizik. Honek guztiak ez zuen denbora gehiegi iraun, eta proletalgoaren

interesen aurkako lehenengo mehatxu serioaren aurrean desgertu egin zen. Baina bien bitartean, aldarte egoera hau ongi aprobetxatzen dute anarkistek eta guardia zuriek beren helburuetarako.

Langileen deskontentuaren bigarren arrazoia, gerra, gosea eta behar izugarriko zazpi urteren ondorio diren agortze orokorra eta nekea dira. Gobernu sobietarrak, uzta txarraren urtea izan arren eta Hornikuntzako Herri Komisaritzari esker, 1919. urtearekin alderatuz langileen hornikuntza asko hobetzea lortu zuenean, deskontentu hau jada ez zen agertzen. Baina udaberria pasa bezain laster, garraiobideen suntsiketetatik eta erregaien faltetatik, eta Siberiako *kulaken* altxamenduaren ondorioz, rasionamendua murriztea beharrezkoa izan zenean, deskontentua modu oso ageri batean agertu zen. Deskontentu honek behin behinekoa izan behar zuen, behin behinekoak izaten diren bezala garraioko irregulartasunak eta uzta berri bat arteko rasionamenduaren murrizketak. Baina langile klasearen deskontentu orokorra, oinarri berrien gainera eraikuntza ekonomikoaren arrakasten mantsotasuna dela eta, aldi nahiko luze batean egongo da, eta anarkistek 1921. urtearen ondoren eremu ona eduki lezakete beren demagogiaren garapen esperimentalerako.

Gure industriaren berrezarkuntza ez da noski kontsumorako produktuen ekoizpena handitzetik hasten, lehengaien erreserbak eta erregaiak handitzetik, garraiobideak konpontzetik eta ekoizpen baliabideak berrezartzetik baizik, eta soilik ondoren hedatzen da kontsumorako produktuetara. Loratzeko ekonomikoaren lehen epealdi honetan, orokorrean klase bezala eginiko langile guztien ahaleginek ez dituzte oraindik kontsumoan hobekuntza nabariak ematen, eta burgesia txikiaren “ekonomia politikoko” ikuspuntutik ere, lanaren gastuek ez dutela fruiturik ematen dirudi. Era berean, eraikuntza ikaragarri batek, eraikitzen ari denean, oraindik paretak eta sabaia egin gabe badauzka ezin die bere eraikitzaileei elementuen aurrean eraikuntza berria ordezkatu behar duen txabola txikiak ematen zien bezain besteko babesik eman. Hasierako metatze sozialistaren aldi hau, ekoizpen guztiarentzako aurrebaldintzak sortzekoa, motza izan daiteke; baina Errusia pobretuak, kapitalismotik oinordetzan inbentario oso txiroa jaso zuen heinean,

atzerriarekiko merkataritzari esker eta (Mendebaldeko iraultza atzeratzeko kasuan) atzerriko teknika eta kapitala kontzesio moduan erabiltzeari esker bakarrik egin dezake aurrea. Aldi hau azkarrago igaroko litzateke herrialde guztian zehar, Mendebaldean iraultza proletarioak garaitu izan balu eta Mendebaldeko teknika gure lehengaiei neurri ikaragarrietan aplikatua izan balitz. Baina Errusia beharturik dago bien bitartean, zegoen miseria sakon hartatik bere indarren kabuz irtetera. Denak ez daude bide astun hau jasateko prest eta denek ez dute emaitzen mantsotasunaren ondorioz etsipenean ez erortzeko nahikoa pazientzia eta energia. Behin gerra zibila bukatutakoan, bere egoeraren hobekuntza azkar bat espero zuen eta soilik hobekuntza txiki bat lortu zuen langile nekatuak, anarkistengandik zumarretik eroritako udarenen pareko kontsigna itxaropentsuak jasotzen ditu. Horregatik, ez da harritzekoa anarkistak txalotzen dituzten elementuak egotea, nahiz eta txalo hauek, klase arteko borrokaren ikuspuntutik, etsipenezko oihu bat eta nekearen aiene bat besterik ez izan.

Azkenik, langile masek ezbairik gabe aparatu sobietarren burokraziakeriaren jarduera jasaten dute, langileen eguneroko beharrak asetzeko duen geldotasuna eta hutsune hauen aurkako borrokaren emaitza ahulak. Eta momentu hauetan anarkista honako kontsignekin deskontentu guztiengana hurbiltzen da: “Behera Estatua!” “Behera gobernu sobietarra!” “Gora sobiet aske eta independenteak!” Anarkistenganako begikotasuna puntu honetan ere existitzen da. Burokraziakeria dela eta haserre daudenek onartu egiten dituzte kontsigna hauek, nahiz eta hauetako gehiengo zabala ez dagoen Gobernu Sobietarraren eta Estatuaren aurka, langile Estatu sobietar honen gaitz burokratikoaren aurka baizik.

Ikus dezagun orain 1921. urteko udaberrian zeintzuk ziren anarkisten kontsignak. Arlo politikoan kontsignak ondorengoak ziren: “Behera komunistak!”, “Behera Estatu sobietar zentralizatua!”, “Gora sobiet askeak!”. Arlo ekonomikoan, anarkistek industriaren administrazio zentralizatua desagitea eta, administrazio hau bai sindikatuen eskuetara pasatzea, edo baita lantegi bakoitza bertan lan egiten duten langileei ematea ere (lantegi komunak) exijitzen zuten. Banaketaren arloan

ogiaren eta lehengaien monopolioaren aurka zeuden, jeneroe-tako zergaren aurka eta langile eta nekazarien artean beren produktuen truke askearen alde zeuden.

Ikus dezagun orain praktikan zer ekarriko zuen Erru-sian kontsigna hauen gauzatzeak, herrialde barnean zegoen klase arteko korrelazio indarrekin eta herrialde kapitalisten etengabeko blokeoarekin.

Has gaitezen sobiet askeetatik eta komunisten kanpora-tzetik. Suposa dezagun borroka hasi dela. Borrokaldi guztian zehar herrialdea gerra zibileko egoera larri batean egongo li-tzateke. Kronstadteko altxamenduaren adibideak borroka la-tza eta odoltsua izango zela erakusten du. Lehen emaitza, ez dezala inork zalantzarik izan, herrialdeko bizitza industrial-a etetea, garraibideak gelditzea eta Errusiako galsoroen pro-bintzietako produktuekin langile klasea hornitzeaz uztea izango zen ezbairik gabe. Hau lehen epe batean.

Suposa dezagun ondoren sobiet librean kontsigna gauza-tua izango zela. Egungo gobernu sobietarra desegina izango zen eta komunistak ezereztuak. Lehenik eta behin, honek lan-gile klasearen abangoardia kontzienteena eta batuen borro-kan hil izana ekarriko luke, hau da, kapitalaren aurkako bo-rrokaren indar garrantzitsuenaren deuseztapena suposatuko luke. Garaileen indarrak anarko-sozialiraultzaileen eta kade-teen blokeaz osaturik egongo ziren. Gauza jakina da Milyukov borrokaren lehen aldian zehar Kronstadten eta sobiet askeen aldekoa zela, burgesiak ororen gainetik boltxebikeak garaitu nahi baitzituen, hau da, proletalgoaren diktadura garaitu nahi baitzuen. Zer gertatuko zen ondoren?

Sobiet askeak anarkistak izango balira eta seriozki bote-rera kapitalismoa itzultzearen aurka egongo balira, sobiet hauek berehala jasango zuten atzerriko kapitalaren nahiz barneko guardia zurien ofentsiba. Ofentsibari ahalik eta arra-kasta handienarekin aurka egitearren sobietak beharturik egongo ziren elkartzera, zentro bakar bat edukitzera, indar militar komunak eta finantza komunak edukitzera, hau da, be-harturik egongo ziren boltxebikeen aldian zegoen egoera ber-dinera bueltatzera, egoera hura ez baitzen hauek kapritxoan sortua, baizik eta proletalgoak klase bezala Estatuan antola-tzean bere indarrak biderkatzen dituelako antolatu ziren modu

honetan. Zergatik orduan ozenki oihukatu? Zein helbururekin aldarrikatu sobiet askeak sobiet zentralizatuak beharrean? Hala ere, sobiet askeak batzen hasi izan balira ere, proletalgoaren abangoardiak borroka utziko zuenez eta antolakuntza oro desegina egongo zenez, kadeteen eta sozialiraultzaileen kontrairaultzaileen garaipena saihestezina izango zen.

Kontrairaultzaren garaipena are errazagoa izango zen “sobiet askeak”, Estatu sobietar batean antolatzeko beldurrez, isolatuki eta modu sakabanatu batean borrokatzen hasi izan balira. Guardia zuriek banan bana zapalduko zituzten eperik laburrenean.

Honela, anarkisten ideala gauzatu izan balitz eta komunistak ezereztuak izan balira, hurrengo egunean anarkisten eta kadete eta sozialiraultzaileen arteko borroka lehertuko zen, eta azken hauek, kapital internazionalaren laguntzarekin, denbora laburrean bloke antiboltxebikeko beren lagunak deuseztatuko zituzten, eta boterean Asanblada Konstituziogile baten moduko zerbait jarriko zen. Eta hain zuzen ere, komunistak desegin ostean eta anarkistek zuzenduriko elementu burges txiki erreboltariekin amaitu ondoren, sozialiraultzaileen eta kadeteen arteko borroka hasiko zen. Borroka honetan, edo sozialiraultzaileak eta orokorrean adiskidetzailleak borrokatu gabe errendituko ziren, edo guardia zuriek garaituak izango ziren, Kolchaken kasuan edo Hungarian botere sobietarraren erorketaren ondoren gertatu zen bezala; zeren Milyukoven bloke burges lurjabeak Victor Chernov eta bere lagunek baino azkarrago jasoko baitzuen atzerriko kapitalaren babes. Baina orduan burgesia errusiarra ekonomikoki ahituta zegoenez eta boterera igotzeko eta ekonomia burgesa berrezartzeko xedean atzerriko kapitalistek sostengatua izan beharko zuenez, “sobiet askeekin” hasitako mugimendu ororen amaiera berdina izango zen. Errusia kapital internazionalaren kolonia bihurtuko zen.

Bere osotasunean mundu guztiko kapitalaren eta lanaren arteko egungo borrokaren egoera eta zehazki botere sobietarraren aurkako kontrairaultza burges txikiaren ofentsiba aztertzeko badugu, xehetasun txikiak alde batera utziz, ondorioa bakarra da: anarkisten kontsigna ezkertiarrien atzean babestuz, kapital internazionalak egiten du aurrera. Kapitalak ez du baidaltzen hasieratik inperialismoaren jukutria agerian uzten duen

jeneral zuria, hau seguru eduki nahi baitu amaieraraino. Eta hain zuzen ere horregatik kapitalistek eta bere gidari jakintsuek, Milyukovek bezala, grinez txalotzen dituzte lan sobietararen aurka ekiten duten anarkistak, hauengan gudaren hasiera bere gain hartzen duen infanteria ikusten baitute. Anarkistek, masak nahastean, hein handi batean, euren buruak nahasten dituzte eta ez dute ulertzen esku hartzen duten gertaera horien esanahia. Baina borroka gauzatzen den zatien arteko indar nagusiek, hau da, alde batetik Milyukov kadetea buru duen burgesiak, eta bestetik Alderdi Komunistak zuzenduriko proletalgo kontzienteak, oso ongi ulertzen dute zeinen artean dagoen borroka eta zer den mahai gainean dagoena. Burges txikia muturrekoaren zale amorratua da, hitzek nahastu egiten dute, burges txiki iraultzaileak, landako burges txiki anarkistak, garrantzia gehiegi ematen dio desira duen horri, bere sinesmenen helburu jarri duen horri. Baina benetako politikoak, bere klasearen benetako zuzendari denak, hitzei beste ezeri baino garrantzi gutxiago ematen die. Borrokaren emaitza objektiboa ez du erabakitzen guda hasieran esaten diren hitz konbinazioak, baizik eta borrokatzen duten klaseen indarren konbinazioak, indar hauen korrelazioak eta guda amaitzean, borroka eremuan abangoardiako taldeak erori direnean, dagoen emaitzak erabakitzen du. Milyukov kadeteak txalotu egiten du Kronstadeko altxamendua eta aldi berean, guardia zuriei esaten die: "Itxoin ezazue hor, geldi zaitezte une batez". Zergatik? Bere klasearen interesak modu argi batean ulertzen dituelako. Lehenik, beharrezkoa da boltxebikeen aurka gobernu sobietarretik burgesiaren diktaduratik baino gertuago dauden indarrak jaurtitzea. Guda hasieran burgesiaren aurkako eremuan dagoen barrenetako borroka honek azken konkistarako dituzten aukerak sendotzen ditu. Milyukovek badaki Petrogradoko langileekin batera Kerenski eta Milyukov bera kanporatu zituen eta Asanblada Konstituziogilea desegin zuen Kronstadeko marinela ez dela bere botererako sostengu bat izango, honen garaipenaren ordua iristen bada. Baina marinel honek boltxebikeen aurka borrokatzen badu, gutxiago izango dira Milyukoven garaipenaren momenturako geratuko direnak, eta boltxebike gehiago izango dira guda zelaian hilak gertatuko direnak. Egia da marinel hauek eta zuzentzen dituzten

anarkistek “sobiet askeen” kontsignaren baitan jarduten dutela. Milyukovek ez du orokorrean sobietenganako eta batez ere “sobiet askeenganako” miresmen handiegirik sentitzen, alabaina, txalotu egiten ditu. Honako hau burges koldarrak uxatzen dituzten hitzen beldur ez delako egiten du. Ez ditu txalotzen “sobiet askeen” aldeko hitzak, hauekin erlazionaturiko auziaren oinarria baiziki; kapitalaren boterea txalotzen du, zeinaren zoriagatik gehiago arduratzen diren (nahiz eta aurkakoa pentsatu) anarkista “ezkertiarrenak” boltxebikeak baino.

Komunistek, anarkisten kontsignen atzetik erasoak zuzentzen duena zein den ere ulertzen dute. Eta Milyukovek “sobiet askeen” iraultzagarritasunean sinesten ez duen bezala, komunista bakar batek ere ez du horretan sinesten. Zenbat eta grina handiagoz txalotu Milyukov jaunek agitatzaile anarkistak, hainbat eta tinkoago eta irmoago borrokatuko du alderdi komunistak hauen aurka, edonola ere, masa langileei kontrairaultza anarkista burges txikia Errusia sobietarraren aurkako gurutzada burges latifundistaren aurrerapen bat besterik ez dela argituz.

Halakoak izango ziren arlo politikoan kontrairaultza anarkistaren garaipenaren ondorioak. Ikus dezagun orain zein ondorio edukiko zituen Errusia sobietarrean bere programa ekonomikoaren gauzapenak; orokorrean, programa ekonomiko anarkista batetaz hitz egitea posible bada behintzat.

Suposa dezagun “sobiet askeak” eratuak izan direla eta lantegiak komuna askeetan ere eraldatuak izan direla, eta egun horretan bertan, lantegi bakoitzean ondorengo arazoa sortzen dela: non lortu honentzako erregaia eta lehengaiak? Honetarako beharrezkoa da erregaien hornikuntzarako erakunde parterrusiar bat, zeren, esate baterako, Sormov lantegiak ezin du aldi berean lokomotorak eraiki, egurra moztu eta garraiatu, Bakun petrolio deposituak eskuratu, Volgan zehar garraiatu eta Donetzeko arroan bere meatzeak eduki. Egur zelaietan ere negu guztirako plan bat behar da eta gizaki eta animalientzako hornikuntzen erreserbak behar dira; eta erreserba naturaletan dagoen eskasia dela medio, nekazariak garraiobidean derrigorrez laguntzea lortzeko, beharrezkoa izango zen inposaketa erabiltzea. Azkenik, erregaiak banatzeko ere herrialde guztirako plan zehatz bat behar da, erregaiak eta lehengaiak

ez daitezen erabat hauen inguruan dauden lantegiek eta taile-
rrek bakarrik aprobetxatuak izan. Hitz batean, lantegi-komu-
nak beharturik egongo ziren berehala plan zehatz baten ara-
berako industriaren kudeaketa panerrusiar bat eratzerara, hau
da, herri ekonomiaren sobietak berrezartzera; edo bestela in-
dustriak pixkanaka hondoa jo zezan utzi beharko zuten, erre-
gai guztiak eta lehengai guztien ekoizpena agortzeraino, hau
da, herrialdeko industria guztia hondoratu arte. Egia da anar-
kisten zati bat (anarkosindikalistak) ez dela industria antola-
kuntzaren aurkakoa, baizik eta adar bakoitza dagokion sindi-
katuak eta lantegi bakoitza sindikatuaren zati diren langileen
komiteek zuzentzearen alde daude.

Baina erabat begi bistakoa da industriako adar ezberdi-
nei loturiko arazoez gain, orokorrean industria guztiarekin er-
lazonaturiko auziak daudela. Har dezagun, esate baterako,
erregaien eta lehengaien, garraioaren, etabarren arazoa. Modu
honetan sindikatuak, ekonomiaren kudeaketa orokorra aurre-
ra eramateko, herri ekonomiaren sobiet gorenara bera antolatu
beharrean egongo ziren. Bigarrenik, industriaren adar isola-
tuen antolakuntzarako ere beharrezkoa egiten da zentraliza-
zioa sindikatuaren barrenean. Enpresa batzuk handituak izan
behar dute, besteak murriztuak, besteak itxiak. Baina honek,
beren jardueraren adarrik garrantzitsuenean “sobiet askeak”
jada ez direla askeak izango, lantegi-komunak ez dira askeak
izango esan nahi du. Alderantziz ordea, lantegi bakoitzeko
langileek ekoizpena enpresa horretako interesen ikuspuntutik
eta ez interes orokorretatik zuzentzeko eskubidea lortuko ba-
lute, enpresa bakoitzak beharrezkotzat duen hura egingo zuen
nahiz eta hau herrialdeko plan orokorraren aurka joan. Or-
duan desagertu egingo dira bai ekonomia bakarra eta baita
ekonomia kolektiboak kapitalismoaren aldean dituen onura
guztiak ere. Eta ez dugu esaten honek, egungo Errusian, in-
dustriaren hondoratzea eta hau zati isolatuetan sakabanatu-
rik geratzea, hala nola, honen jaitsiera azkarra esan nahi due-
la bakarrik, noski, honelakorik ez du inongo langilek nahi,
ezta beren kontzientzia baxuagatik eta klasearen interesak ez
ulertzeagatik anarkistengana jotzen duten talde horiek ere,
baizik eta anarkistek aldarrikaturiko banaketa sistemak
oraindik eta gaitz handiagoak eragin zitzakeela baieztatzen

dugu. Haiek langileen eta nekazarien arteko merkantzien elkar truke askeaz hitz egiten dute. Ikus dezagun zer ekarriko lukeen bada honek egungo Errusiaren barnean.

Har dezagun manufaktura lantegi bateko langileen kasua. Hauek zoriontsuak izango dira objektu trukagarriak dituzten heinean. Beren merkantziak oso beharrezkoak dira herrixkan eta mota guztietako produktuekin izan daitezke trukatuak. Baina zer emango diete trakzioko lantegi bateko langileei beren lokomotorengatik? Nola moldatuko dira trenbideen erai-kuntzako enpresetako langileak? Zer trukatu dute estazio elektrikoetako, kanalizazioko, konponketetako, etabarreko langileek? Hala ere, langile hauek guztiek beharrezkoa dute trukean jaso behar duten ogia ez ezik, baita landara doan manufaktura ere. Hau dena jasotzeko eskubide guztia dute, manufaktura ez baita inolaz ere soilik ehungileena den produktua. Bertan kotoia prestatzeko lantegietako langileena, kotoiaren ekoizleena, Turkestanetik kotoia garraiatzen duten trenena, lantegiei eta trenei zura ematen dien basoko langileena, Doneko arroko petrolioko langileena, eta garraioarentzat lan egiten duten ekoizpen guztiena eta enpresa hauentzat lan egiten duten ekoizpen guztiena den lanaren zati bat dago. Industria guztia-ri begirada orokor bat botatzen badiogu, oihala hazbete bakoitza industria guztian diharduen proletalgu guztiaren produktua denaz konbentzitzen gara. Berdin gertatzen da lur landuekin, iltzeekin, lokomotorekin, hiri handi batetako hoditerietatik doan urarekin, energia elektrikoarekin. Hori dela eta, ondorengo ondoriora iristen gara: industriako produktuak trukatzeko eskubidea ez da produktu hauek azken buruan lantzen dituzten langileena, baizik eta langile klase guztiaarena orokorrean, zeren produktu bakoitzean herrialdeko langileen lanaren zati bat baitago. Honela, ez dira ehungintza lantegietako langileak oihala beren jabetza bezala trukatu behar dutenak, langile klase osoa baizik. Langile klaseak bere barrenean beharrezkoa duen adina banatu behar du, beste guztia elkar trukerako eman ez, honela herrixkarekin truke bidez jasotako produktuak ere langile klase osoaren artean banatuak izan daitezten. Ikuspuntu proletariotik begiratuta ezin du beste modu batera izan. Baina honek herrialdeko industriaren eta nekazaritzaren produktuen banaketarako organo bat sortzea suposatzen du, hau da,

gaur egun existitzen dena sortzea. Zerumugan berriz ere Herri Hornikuntzako Komisaritza gorrotatua agertzen da, lehen ere ezinbestean Ekonomia Nazionalako Sobiet Gorena agertzen zen bezala. Honela, “sobiet askeen” eta merkantzien “truke askearen” inguruko hitzontzikeria anarkistak absurdoak gertatzen dira. Badirudi hitzek zer bait promesten dutela eta gaur egungo ordenarekin alderatuz esanahi ikaragarrikoak direla, baina praktikan, kasurik hoberenean, gaur egun existitzen den horretarako itzulera bat esan nahi dute.

Kasurik okerrenean programa anarkistak ondorengoa esan nahi dezake: truke askea zer trukatua daukaten horiek gauzatuko lukete. Ehun ekoizleek lehen epealdi batean egoeraren onura guztiak jasoko zituzten baina berehala amaituko zitzairen loraldia. Inor ez zen hauentzat erregaia antolatzeko, kotoia garraiatzeko, beraientzat lan egiteko... prest egongo eta ehungintzaren industriak gelditu egin beharko zuen. Truke askea besterik gabe proletalgoaren jabetza orokor guztia langileen zati batek esplotatzea izango zen. Truke aske honek artisaunen kasuan bakarrik dauka zentzua, baina enpresa handienetako eta garrantzitsuenetako langileentzat, garraioarentzat eta industria handiarentzat, burla baten modukoa da. Hemen ere anarkistek langileen talde isolatu batzuen jabetza senarekin jotatzen dute eta merkantzien trukerako formula ekonomiko bat ematen dute, ez proletalgoarena, jabe txikiarena baizik, orokorrean anarkisten izaerari guztiz erantzuten diona.

Baina truke askeak, “sobiet askeen” existentziak bezala, ondorengoa esan nahi du: lehenik eta behin, gari biltegiak dau den eskualdeetako nekazarien “sobiet askeek” ez zuten gari hau hirira eramaten utziko. Honen ondorioz, anarkistek produktuen metaketa arloan duten talentua agertu ezean, gobernu sobietarrak langileentzat prestatutako eta pilatutako guztia herrixkan geratuko zen, eta proletalgoak gosez hil beharko zuen.

Bigarrenik, gobernu sobietarrak gaur egun nekazariei kontzesio bat eginez, zerga natural bat ezarri du jeneroetako zerga beharrean. Anarkista eskuzabalek hau ez dela beharrezkoa eta ez dela bidezkoa aldarrikatzen dute. Zer promesten dio proletalgoari anarkista eskuzabalen justizia honek? Hau kalkulatu sinpleenetik ateratzen da. Egun gure industriak batz bestez gerra aurretik ekoizten zuenaren ehuneko 15etik 20ra

bitartean ekoizten du. Esate baterako, ehungintzako industriak hain gutxi ekoizten du, ezen aurreikuspenik estuenarekin ere ez den langile klasearentzat behar adinera iristen (1921ean 600 milioi barako ekoizpena kalkulatzeko zen, nahiz eta zalan-tzazkoa den 350 milioi baino gehiago ekoizti izana). Gutxiene-koaren arau batekin langileak, beren familiak, ospitaleak, es-kolak, etabar asebetez, merkantzien trukerako 100 milioi bara baino gutxiago geratuko ziren. Industriako gainontzeko pro-duktuetatik herrixkarekin trukatzeko erabili daitekeen zatia ere ez da oso handia, eta honekin trukatzeko posible den pro-duktuen kopurua biztanleria langilea urte batean zehar bi edo hiru hilabetez elikatze behar denaren adinakoa da.

Nondik hartu orduan gainontzeko produktuak? Gobernu sobietarrak zerga natural bat dekretatzen du, zeinak lehen epe-aldi batean langileentzako hornikuntza produktuen masa nagur-sia eman behar duen. Zerga naturalaren bidez hartzen denak, honi produktuen trukearen bidez jasotzen dena gehituz, proletal-goaren elikadurarako funts nahikoa emango du. Zerga naturala honela, industriari eta nekazaritzari, langileari eta nekazariari, hiriari eta landari, sozialismoari eta, ekoizpen handia antolatu bitartean, ekoizpen txikiari ematen zaion zerga bat da. Ekoizpen honek, oraindik antolatu gabea, lehen epealdi batean gastuak baino errendimendu txikiagoa ematen du, eta oinarri tinkoen gainean kokatutakoan bakarrik hasten da irabaziak ematen eta nekazariari bere mailegua itzultzen. Aipaturiko mailegu hau gabe ezinezkoa da industria berrezartzea, ezta hiriko langileak goseak akabatzeko heriotza ziur batetatik salbatzea ere.

Zerga naturalaren aurka agertzean, anarkistek proletal-go gosez hiltzea eta gure industria guztia gelditzea presta-tzen dute. Baina hasiera batean zerga naturala kentzea oso onuragarria iruditzen zitzaion nekazaria bera ere, geroago ira-bazi hau oso garesti kostatzen zaiola ohartuko litzateke. In-dustriak lur jotzen badu, nekazaritzak ezin du hondoa jo gabe geratu, ezta nekazal ekonomia txikiak ere. Hau modu estu ba-tean dago industriaren zoriarekin lotua. Nekazal ekonomia altxatzeko esperantza guztiak nekazaritzako makinaren hobe-kuntzari, traktoreak aprobetxatzeari, ongarri artifiziala apro-betxatzeari lotuak daude. Horregatik industria kaltetzen duen politikak, nekazaritza ere kaltetzen du.

Honela beraz, edozein langilerentzat erabat begi bistakoa den ondoriora iristen gara: “sobiet askeen” eta merkantzien “truke askearen” kontsignen izenean buruturiko anarkisten ekintzek, alde batetik Milyukov jaunari botererako gonbidapena luzatzea esan nahi dute eta bestetik, industriaren suntsiketa eta langile klasea gosez hiltzea prestatzen dute. Egia da beraiek ez dutela hau nahi. Baina akaso honek lasaitzen al gaitu? Chernovek ere ez zuen Kolchakeko boterea nahi Samarako hirian asanblada konstituziogilea deitzen zuenean.

Amaitzeko, hitz batzuk esan behar ditugu anarkistek gure estatu aparatuarien aurka burutzen dituzten erasoei buruz eta, batez ere, aparatu sobietarraren hutsuneak direla eta ematen dituzten hitzaldi demagogikoei buruz.

Anarkistek botere sobietarra bere hutsuneetan oinarrituz erasotzen dute, ez hauek ezabatzeko, bera suntsitzeko baizik. Bere etxeko labezomorroak akabatzeko honi lau izkinetatik su eman zion jabe buruargi hark bezala jardutera gonbidatzen dituzte langileak. Eta hain zuzen ere botere sobietarraren hutsuneak anarkistei ez zaizkielako batere axola, hauek poz maltzur baten sentimendua eragiten die eta eraikin sobietar guztiaren aurka aprobetxatzen dituzte. Puntu honetan proletario guztien gaitzespenik irmoena jaso behar dute. Onestuki botere sobietarraren alde daudenek botere honen hutsuneen aurka eta energien xahukeriaren aurka burutzen duten borroka, ezberdina da errotik demagogo anarkisten ekintzetatik, lehenengoek hutsune hauek ezabatuz botere sobietarra indartzearantz jotzen baitute.

Ikuspuntu honetatik aztertu behar da banaketako ezberdintasunaren aurkako borroka ere, botere sobietarra behin behinean ezberdintasun hau jasatera beharturik egon zen heinean. Donetzeko meatzariari beste adar industrialetako langileei baino gehiago ematen diogu, zeren eraikuntza ekonomikoaren aldian meatzariei entregaturiko ogi soberakinen arropa batek, gure arrakasta guztiak harrikatzairen baitan daudenean, emaitza hobea emango baitu industriako beste adarreiei entregaturiko bost arroek baino.

Ekonomikoki komeni zaiguna ez da banaketako berdintasuna. Pobreegiak gara berdintasunaren luxua eduki ahal izateko ere. Hau da banaketako ezberdintasunarekin gertatzen

dena. Alde guztietan ezberdintasun ekonomiko hau ezinbestekoa eta berreraikuntzaren eskaerek eragindakoa izan da. Funtsezko arrazoi hauek guztiek, zenbakien bidez egiaztagarriak, ez dituzte hornikuntza sistema apurtzeko ahaleginetan, itsuki berdintasunaren alde dauden anarkistak gelditzen, nahiz eta industriaren berreraikuntza garaian berdintasun absolutua galera zuzen bat izango zen.

Eraikuntza ekonomikoaren eta borroka politikoen eska-kizunek eragin ez dituzten soberakin, pribilegio eta ezberdintasunei dagokienean, alderdi Komunistak borroka tinkoa burutzen du hauen aurka, 1920. urteko irailean buruturiko Alderdiaren konferentziaren ondoren indartu egin zena. Baina komunistaren eta botere sobietarraren alderdiaren borroka hemen errotik ezberdintzen da anarkisten edo berdintasunaren defendatzaile burgesen borrokatik, zeren lehenek badakite hutsune hauek botere sobietarraren konkisten batura osoarekin alderatuz garrantzia hutsal batekoak direla. Hutsune eta ezberdintasun hauek guztiek orratz baten buruaren neurrikoak direla emango dute, Urriko iraultza proletarioak desegin zuen eta Asanblada Konstituziogilearen boterearekin edo Milyukoven diktadurarekin birsortuko zen desberdintasunarekin alderatuz. Jada botere sobietarrak eta alderdi komunistak lortu dituzten konkista izugarriak, kapital internazionalaren aurkako fronte guztietan arrakasta eduki zuen hiru urtetako borroka heroikoak, ekonomiaren berreraikuntzan hasitako lan ikaragarriak eta langileentzat eskuraturiko konkista izugarriak eta, azkenik, hiru urte eta erditan zehar herrialde ikaragarri batean langile boterea existitu izanak, gizateriaren historian faktore hain garrantzitsua adierazten dute, ezen aipaturiko akats guztiak, bi edo hiru aldiz biderkatuz gero ere, lortutakoarekin alderatuz mendi altu baten magalean dagoen simaur txiki baten parekoak izango ziren. Eta burges txiki penagarriak bakarrik, simaurrak zerumuga estaltzen dion kakalardoak bakarrik, uzten dio simaur pila horren gainetik proletargoaren diktaduraren Himalaya Gorriaren handitasun eta edertasun guztia ikusteari.

ONDORIOA

Kapitalismotik komunismorainoko bidea, bide luzea, astuna eta zaila da. Hau ulertzen ez duenak, ez du horregatik motzagoa egingo, alderantziz baizik, trantsiziozko aldiaren ezinbestekotasuna ulertzen duenak bakarrik laburtu dezake etorkizuneranzko bidea, bere indarrek baimentzen dioten neurrian maila bakoitza azkarrago gainditzea erraztuz.

Ez dakigu nola joango den gizarte komunistaren erai-kuntza lana Mendebaldean, proletalgo europarrak burgesia garaitu ostean. Baina Errusia sobietarrarentzat, proletalgoaren diktadurako hiru urte eta erdiko esperientziaren oinarriaren gainean, ondoz ondoko etapa batzuk aurreikusi ditzakegu.

Lehenengo aldia. Urriko Iraultza. Masak boterearen eta gobernu ekonomikoaren forma burges latifundistak deuseztatzeke bultzadak bereganatu ditu. Aldi honetan langile eta nekazari masen artean gailentzen ziren aldarteek lasaitasun handi bat zuten bereizgarri, askapena lortu baitzuten Estatu burges latifundistaren uztarripetik, lapurren arteko gerraren izugarrikerietatik, kartzela tsaristako kateetatik, lantegiko diziplina kapitalistatik, nekazaritzako nobleen joputzatik eta zer-ga pobretzaileetatik. Aldi honetan, langile, soldadu eta nekazari diputatuen sobietak oroz gain erregimen zaharra desegiteko organoak, iraganeko nagusiei kendutako jabetzak kontrolatzeko organoak eta jabetza hauek banatzeko organoak dira. Organo berri hauek ezartzen duten oinarrizko ordena astuna da klase zapaltzaileentzat eta arina langile masentzat. Gobernu sobietar zentralaren dekretu berri bakoitza (botere zentral bezala herrietan ia nabaritu ere egiten ez dena) eta tokiko sobietaren dekretu bakoitza, bere gehiengoan, ondoren zaharra suntsitzeko deialdi bat, edo bestela masek jada suntsitua izan denaren komunikatu bat izaten ziren. Masek lege-gintzaldi berri hau bere diktaduraren gauzatze moduan agurtzen zuten, zapalduak beraien mendetako zapaltzaileen aurka pilatu zuten

haserreari irtenbidea ematen zion, lan emantzipatuak bere ka-
teen forjarien aurka zeraman mendeku bat zen. Sobietek, aldi
honetan, ulertzeko moduko auziak eta langile bakoitza sakon-
ki agitatzen zutenak eztabaidatzen eta erabakitzen zituzten.
Horregatik ulertzen da masek aldi honetan sobieten lanari ager-
tzen dioten interesa, asanbladetako tokietan esku-hartzen zu-
ten modua, ordezkari hautetsien informeak jasotzean jartzen
zuten arreta, argitaraturiko dekretuak irakurtzeko zuten arre-
ta, kontrairaultzaren aldetik beren botere organoaren, bere so-
bietaren, aurkako mehatxu txikienaren aurrean armak har-
tzeko zuten erraztasuna.

Baina iraultzaren festak ez du denbora gehiegi irauten.
Iraultza proletarioaren festa langile klasearen etsaiek moztu
zuten. Mugetan kontrairaultzaren aurkako borroka hasten da,
inperialismo alemaniarren aurka, txekoslovakiarren altxa-
menduaren aurka eta aliatuen aurka. Gerrarako ezinbestekoa
da armada, armada indartsu bat eratzeko Estatu indartsu bat
behar da, Estatu sobietar indartsu baterako beharrezkoa da
diziplina proletario eraginkor bat, diziplina hau ezartzeko gai
izango diren botere organoak behar dira, honen menpe jartze-
ko prest dauden masak behar dira.

Bestalde, gerrak balio materialen gastu ikaragarri bat
dakar. Erreserbak urriak ziren. Hauen zati bat suntsiketa fes-
tan gastatua izan zen. Nahitaezkoa zen industria antolatzea,
lantegi sozialistetan langile diziplina behar zen, ezinbesteko-
ak ziren nekazarien sakrifizioak ekonomia nekazariaren sobe-
rakinen entrega moduan. Suntsitzea erraza da, sortzea zaila.
Iraultzatik jasotzea errazagoa da iraultzagatik sakrifikatzea
baino. Amaitu ziren festak. Hasi ziren errepublika proletario-
ko lan egunak. Sobietak, erregimen burgesa desegiteko orga-
no izatetik, langileen diziplinaren organo izatera pasa ziren.
Beren inposaketa ez da burgesiara bakarrik zabaltzen, baita
burgesiaren aurka borrokatzeko obligazioa dutela ahazten du-
ten langile horien artera ere. Banandu egin ziren iraultzatik
kulakak. Lehen latifundisten irabaziak banatzerakoan neka-
zal masa guztiaren ondoan aritzen ziren, baina Estatuari gari
soberakina entregatu behar zitzaionean bertatik apartatu egin
ziren. Honek esan nahi du beharrezkoa dela erresistentzia
berriak zapaltzeko interesek eskatzen duten muga barnean

gobernu aparatua indartzea. Banandu egin ziren iraultzatik erregimen eroriak erlaxaturik zeuzkan langile klaseko elementu goranahiak. Honek esan nahi du indartu egin behar dela estatu aparatua eremu honetan diziiplina proletarioaren aurkako erresistentzia garaitzeko. Intelektualek sabotajearekin jarraitzen zuten. Kontrairaultzak konplotak antolatzen zituen bata bestearen atzetik; honek esan nahi du indartu egin behar direla kontrairaultzaren aurkako borrokarako aparatuak. Nekazaria, aurreko gerrarekin nekatua, ez doa borondate handiz mobilizazio berrietara eta etsaiek alde guztietatik presionatzen dute. Honek esan nahi du inposaketa militarren aparatua indartu eta desertzioa gainditu behar dela. Erreserbak agortu egiten dira, ekoizpena txikitu egiten da, beharrezkoa da ahalik eta aurrezte handienarekin petrolio, ikatz eta metal soberakinak banatzea; honek esan nahi du indartu egin behar direla alde batetik banaketako aparatu zentralizatuak eta bestetik industriako kudeaketa aparatuak. Azkenik, Errepublikan hainbat behar sozial egonik, hauen asebetetzerako dagozkien gobernu organoak ere nahitaezkoak dira (herri heziketa, osasuna, seguru sozialak, etabar). Honela, alde batetik gerra zibileko golpeen azpian eta bestetik gosearen aurkako eta ekonomia hondoratzearen aurkako borrokaren gainean, Estatu proletarioko hezurdura indartsu bat eraiki zen herrialdeko behar kulturalak asetzeko. Hau esplotatzaileen aurkako borroka gidatzeko organoa eta ekonomiaren kudeaketarako organoa zen aldi berean. Gerra zibileko lehen epealdiaren azkenaldira, behin guardia zurien aurkako fronte militarren deuseztapena amaitutakoan eta egoera erdi baketsuaren hasierarekin (1920. urte amaieran), estatu aparatua guztiz eratu zen. Momentu hauetan amaitzen da bigarren aldi honetako lehenengo maila, aparatuaren eraikuntza aldia, eta aldi bereko bigarren maila hasten da.

Bigarren etapa honetan, 1921. urtean gauden honetan, berehalako eginkizuna gobernu aparatua perfektionatzea, sinplifikatzea eta murriztea da, ekoizpenerantz indar gehiago bideratuz. Oinarrizko fronteak desegin izanak alderdiaren eta Errepublikako organo sobietarren arretra lanaren zati honetara zuzentzea baimentzen du. Bake erlatibozko aldiak armada-ko indarrak murrizteko aukera ematen du. Honek ehun milaka

langile eta nekazari lanera bueltatzea eta aparatu militarra txikiagotzea esan nahi du.

Aparatu sobietarraren eraikuntzan zehar, organo asko gehiegizko neurri batean hazi ziren inongo beharrik gabe eta beste batzuk erabat alferrekoak ziren jada sortu ziren momentutik bertatik. Aurrezte falta hau, estatu aparatuen sorkuntza aldiko gehiegizko gastu hau, neurri handi batean ondorengo kausengatik azaltzen da. Proletalgoak oinarritara arte suntsitu zuen Estatu zaharraren aparatua. Bere aparatua eraikitzerakoan behartua egon zen aparatu zaharreko giza materiala aprobatxatzera. Material hau aparatu zaharraren exigentzietara egokitua zegoen, iraganeko garaietan erroturiko ohiturak zituen eta banaketa automatikoki tradizio zaharren arabera gauzatzera jotzen zuen. Eta oinarritzko zelulak kasu gehienetan ez zeudenez komunistez osatuak, mota guztietako espezialistez baizik, elementu zaharrek adreiluen funtzioaz gain har ginarena eta igeltseroarena ere burutu zuten heinean, organo sobietarren eraikina, gauza askotan, eraikin zaharraren antzekoa gertatu zen, batez ere puntu erabakigarrienean, bertan ezartzen ziren indar kopuru izugarrian. Norabide honetan presionatzen zuen, baita berez ere, lanik gabe geratu ziren Estatu zaharreko enplegatuen masa izugarriaren joerak, kosta ala kosta postu bat bilatzen baitzuten. Hemen ere, gobernu sobietarraren aurrean, estatu aparatu zaharren desagitearen auzia ikuspuntu erabat berri batetik planteatzen zen. Beharrezkoa zen ez bakarrik forma zaharrak suntsitzea, baita ekonomia-
ren sistema berrian aparatu zaharreko giza elementua modu berri batean banatzea ere, ehun milaka pertsona lanbidez aldaraziz. Eginkizun hau ez bairik gabe askoz zailagoa da Estatu zaharraren desagite sinplea baino. Estatu zaharraren eta ekonomia pribatuaren oinarriaren gainean eraikia izan zen sistema zahar honek lan kolektiboaren aurka egiten zuen erresistentzia indarra agerian geratu zen, hain zuzen ere, Estatu proletario berriaren hezurdura mota guztietako enplegatuek, agenteek eta espezialistek, estatu aparatuen beharrak gainditzen zituen proportzioetan bereganatu zuten azkartasunean. Beharrezkoa da egungo Errepublika sobietarraren aparatua soilik eratze prozesuan dagoen zirriborro baldar bat bezala hartzea, den tinkoki ezarritako organo asko desegin beharreko aldarmioak

izango diren. Indarren banaketa berri hau, gobernu aparatua-
ren barnean eragozpenak murrizteko eta zuzenean ekoizpene-
ra bideratutako giza oinarria handitzeko erabat beharrezkoa
izateaz gain, aldi berean erabat gauzagarria bihurtzen da be-
netako eraikuntza sozialistaren arrakastei esker. Estatu so-
bietarrak enpresa nazionalizatuak beren artean dirutan or-
daintak egitea baimentzen du, hau da, bere artean trukeak
egitea, bertan behera uzten ditu etxebizitzaren ordaintak
jasotzea etxe nazionalizatueta, eguneroko liburuak, etabar,
honela kutxazainen, liburu edukitzaileen, etabarren murriz-
keta handi bat burutuz. Tranbia doakoa egiten da, honekin
kontrola eta liburu edukitzaileak, etabar aurrezten direlarik.
Kontsumoko produktuen kopurua handitzeak aparatu izuga-
rrien txikiagotzea ekarri behar du, aparatu hauek modu bal-
dar batean berdintasunezko gosearen banaketa aparatua ere
dei genitzakeela. Nekazariak Estatuarena den nekazaritzako
produktuen zatia Hornikuntza Komisaritzako organoei dago-
kien inposaketa beharrik gabe entregatzeko konbentzitzeak,
indartsu hazi den aparatu hau bi edo hiru aldiz murriztea
ahalbidetuko du. Ekonomiaren kudeaketaren gehiegizko zen-
tralizazioa txikiagotzeak eta organo zentralen hainbat funtzio
tokian tokiko organo sobietarrei emateak, burokraziakeriaren
eta organo zentralen gehiegizko hazkuntzaren murrizketa bat
suposatzen du. Aparatu sobietarren lanaren funtzionamendua
aparatu hauen barne indarren bidez hobetzeak, instituzioez
kanpo existitzen diren kontrolerako hainbat organo alferreko
egiten ditu.

Sozialismoa ez da kontrola bakarrik, baita kontrolean au-
rreztea ere. Aurrezte hau gauzatua izan dadin, ezinbestekoa
da gobernu aparatutik ihes egiten duten energiak lan produk-
tibora bideratzea honetarako funtzio berriak asmatu gabe.
Funtzionarioek ezingo dute hau saihestu, behartuak baitaude
jateko lan egitera. Estatu aparatuan geratzen diren langileen la-
naren intentsitatea handitzeak, beren hornikuntza hobetzeak,
enplegatuen kopurua jaitsi arren lanaren kantitatea eta az-
kartasuna handitzeagatik emandako sariak, kargutik kanpo
geratu diren hamar milaka langileak ekoizpenera sistemati-
koki bideratzeak, herrialdearen aparatu ez produktiboetako
gastuak murriztuko ditu, fronte ekonomiko guztian ekoizpena

handituko du eta aurrerapauso bat suposatuko du ekonomia sozialistaren gauzapeneko eraikuntza sobietarraren sektoreetako batetan.

Honela beraz, Estatu proletarioaren eraikuntzaren bigarren etapako lehen lerroan ez da gobernu aparatuen zabaltea jartzen, bere lanaren hobekuntza baizik. Etapa hau amaitzeko momentua erabat bere garapenaren arrakasten neurriaren eta Europako langileak borrokan proletalgoaren diktaduraren garaipenera iritsiko diren azkartasunaren baitan dago.

Europako langile iraultza gure Estatu proletarioaren bizitzako hirugarren aldiaren hasiera izango da, Estatua orokorrean suntsitzeko aldia alegia. Zaila da momentu honetan prozesu hau nola burutuko den aurreikustea. Gai honen inguruan “Utopia Zientifiko” bat idaztea ez da lan honetan sartzen den eginkizuna.

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

- 1 • Manifestu komunistari hitzaurrea
 - 2 • Ezkerkeria, komunismoaren haurtzaroko eritasunari hitzaurrea
 - 3 • Etengabeko Iraultzari hitzaurrea
 - 4 • Che Guevararen ondarea eta Latinoamerikako iraultza
 - 5 • Estatua eta Iraultzari hitzaurrea
 - 6 • Zer da sozialismoa?
 - 7 • Marxismoa eta artea
- MANIFESTU KOMUNISTA (K. Marx / F. Engels)
 - ERREFORMA EDO IRAULTZA (R. Luxemburgo)
 - ESTATUA ETA IRAULTZA (V. I. Lenin)
 - TRANTSIZIO PROGRAMA (L. Trotsky)
 - ANARKISMOA ETA KOMUNISMOA (E. Preobrazhenski)


Liburuxka hauek EUSKAL HERRIA SOZIALISTA aldizkariak argitaratu ditu Federiko Engels Fundazioaren laguntzarekin.

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA aldizkaria edo liburuxkak jasotzeko, gurekin kolaboratzeko, marxismoari buruzko hitzaldiak antolatzeko edo ideia hauekin interesatua bazaude:

JARRI HARREMANETAN:
euskalherriasozialista@hotmail.com
TEL.: 685 720 939
www.euskalherriasozialista.net

FEDERIKO ENGELS FUNDAZIOA

MARXISMOAREN KLASIKOAK bilduma

- 
1. El manifiesto comunista C. Marx / F. Engels
 2. El Estado y la revolución V.I. Lenin
 3. Las Tesis de Abril V.I. Lenin
 4. La enfermedad infantil del 'izquierdismo' en... V.I. Lenin
 5. Acerca de los sindicatos L. Trotsky
 6. Reforma o revolución R. Luxemburgo
 7. Huelga de masas, partido y sindicato R. Luxemburgo
 8. Qué es el marxismo / Su moral y la nuestra L. Trotsky
 9. Salario, precio y ganancia / Trabajo asalariado... C. Marx
 10. El 18 Brumario de Luis Bonaparte C. Marx
 11. La guerra civil en Francia C. Marx
 12. Crítica del programa de Gotha / Erfurt C. Marx / F. Engels
 13. Problemas de la vida cotidiana L. Trotsky
 14. El manifiesto comunista (catalá) C. Marx / F. Engels
 15. Anarquismo y comunismo E. Preobrazhenski
 16. La crisis de la socialdemocracia R. Luxemburgo
 17. Contribución al problema de la vivienda F. Engels
 18. L. Feuerbach y el fin de la filosofía... C. Marx / F. Engels
 19. Introducción a 'Dialéctica de la naturaleza' (y otros) F. Engels
 20. La revolución proletaria y el renegado Kautsky V.I. Lenin
 21. Del socialismo utópico al socialismo científico F. Engels
 22. El imperialismo, fase superior del capitalismo V.I. Lenin
 23. El papel del individuo en la historia J. Plejánov
 24. Sobre el materialismo histórico F. Mehring
 25. La revolución alemana de 1918-19 R. Luxemburgo / K. Liebknecht
 - El origen de la familia, la propiedad privada y el Estado F. Engels
 - La revolución permanente L. Trotsky
 - La revolución traicionada L. Trotsky
 - La lucha contra el fascismo L. Trotsky
 - 1905 L. Trotsky
 - Terrorismo y comunismo L. Trotsky
 - La revolución española (1930-39) - *Selecc. de escritos* L. Trotsky
 - Terrorismo y comunismo L. Trotsky
 - Historia de la Revolución Rusa (2 vols.) L. Trotsky

KRITIKA MARXISTA bilduma

- Razón y revolución. Filosofía marxista y ciencia moderna A. Woods / T. Grant
- Rusia, de la revolución a la contrarrevolución Ted Grant
- Lenin y Trotsky, qué defendieron realmente T. Grant / A. Woods
- Bolchevismo, el camino a la revolución Alan Woods
- La revolución bolivariana. Un análisis marxista Alan Woods
- Euskal Herria y el socialismo. Marxismo y cuestión nacional Alan Woods / Eloy Val
- Apuntes revolucionarios. Celia Hart
- Cuba, Venezuela y el socialismo internacional -
- En defensa de la Revolución de Octubre A. Woods
- Reformismo o revolución. Marxismo y socialismo del siglo XXI Pablo CORMENZANA
- La batalla de Inveval Juan Ignacio Ramos
- Pirómanos apagando un fuego

LANGILE MEMORIA bilduma

- Rebelión obrera en Tejas y Ladrillos José Martín
- 3 de marzo. Una lucha inacabada Arturo Val del Olmo
- Carrier. Lecciones de una lucha Felipe Palacios
- Historia del movimiento obrero en Guadalajara Enrique Alejandre

